ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-04-11
ASTELEHENA
317. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Errekuperatzen nabil, eta oraindik maila ona eman dezakedala uste dut"

Jon Urtzelai | Eibarko jokalaria | 27

Debagoieneko euskalakariak hasi dira eguenerako motorrak berotzen | 13

maitatu, ikasi, sti
euskaraz!
17. aek korrika
TREBIÑU-DONOSTIA
2011ko apirilaren 7tik 17ra

Fantasia nagusi, Patxiko Txerren ipuin lehiaketan | 12

San Frantzisko lepo, orkestra sinfoniko eta Arrasate Musikalekin | 30

Erradiografia digitalizatuak gure ospitalean, gaixoaren hobe beharrerako

Gaixoen historiala ikusten. | J. IRIONDO

Gure ospitalean hasi dira erradiografiak informatikoki gorde eta erabiltzen | 2-3

San Martingo babes ofizialeko etxeen baldintzak

26 etxebizitza zozkatuko dituzte Oñatiko San Martin auzoko 4. eta 5. zenbakietan | 18

Gaur zabalduko dute erabilitako altzarien saltokia

Arrasaten zabalduko du saltoki berria Emaus fundazioak, erabilitako jantzien saltokiaren alboan | 14

Bergarak maila jokoan izango du domekan, Labegaraietan | 24

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Sinpletasuna, emozioa eta txaloak

Motxila 21 taldeak ikusleak zutiarazi zituen Espaloia kafe antzokian, Elgetan | 29

Motxila 21 taldeko kideak Enrike Villareal 'El Drogas' musikariarekin

IBAN ARANTZABAL

Orain arte erabili izan duten erradiografiak ateratzeko makina. Kasu batzuetan, oraindik ezinbestekoa da. | JULEN IRIONDO

Profesionalak pazientearen historiala eta, horren

Erradiografia digitalizatuak, gaixoaren hobe beharrerako

- Debagoieneko ospitalean hasi dira erradiografiak informatikoki gordetzen eta erabiltzen
- Askoz prozesu azkarragoa, merkeagoa eta fidagarriagoa da, garantia gehiagorekin
- Paziente bakoitzak bere historiala izango du mediku eta zentro guztietarako

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko ospitalera ere ailegatu da Osakidetzaren berrikuntza garrantzitsu bat: erradiologia irudi gehienak modu digitalean egiten eta lantzen dituzte orain. Izan ere, Osakidetzak 2008ko uztailean aurkeztu zuen Irudiak Digitalizatzeko Berrikuntza Teknologiko proiektua, eta Arrasateko ospitalera otsailaren 26an ailegatu zen. Orduan ezarri zen, ospitaleko profesionalek lan egiteko modu berria ikasi zuten eta ohitzen joan ziren; gaur egun, horrela lan egiten dute, salbuespen gutxi batzuekin.

Hala, betidanik ezagutu ditugun *plakak*, oro har, iraganeko kontua dira dagoeneko –nahiz eta kasu gutxi batzuetan oraindik ezinbestean erabili egin behar dituzten.

Erradiografiak orain modu digitalean egiten dituzte, baina baita bestelako irudi batzuk ere: eskanerrak, mamografiak, ekografiak eta antzekoak.

Informazio guztia, batera

Ospitaleko mediku Martin Aperribaik Goiena telebistarendako hitz egin zuen eta, Julen Iriondori azaltzen dionez, denondako mesedea da sistema berria. Batik bat, pazientearendako: "Askoz azkarrago egiten da dena. Lehen, erradiografia egin eta gero, bost bat minutu itxoin behar izaten zuen aldagelan, erradiografia errebelatu arte eta ea ondo zegoen egiaztatu arte. Orain, irudia atera eta dagoeneko joan egin daiteke pazientea", azaltzen du.

Beste onurarik ere badauka pazientearendako: "Diagnostiko hobea eta fidagarriagoa egin dezakegu medikuok, eta modu samurragoan. Izan ere, orain erradiografia egin eta ordenagailuan daukagu momentuan bertan; eta ordenagailuak ematen digu aukera irudiaz jokatzeko: distira eta kontrastea aldatu, alderdi jakin bat gehiago nabarmendu, irudia handitu eta zati txiki bat hobeto aztertu, neurketak egin...", esaten du Aperribaik.

Ez hori bakarrik: erradiografien bideak ez du zertan bukatu egin diren ospitalean. Aperribai doktoreak honela azaltzen du: "Erradiografia guztiak barne-sarean gelditzen dira gordeta. Handik, adibidez, Debagoieneko ospitalean ikus dezakegu Santiagoko ospitalean edo beste baten ateratako erradiografia bat. Bestalde, anbulatorioko familia-medikuak ere ikus ditzake bere pazientearen erradiografiak bere ordenagailuan". Modu horretara, pazienteak ez du erradiografiarekin alde batetik bestera ibili beharrik, horrek dakartzan trabekin.

Gainera, erradiografia ez dutenez ezabatzen, pazienteak ez dauka X-izpi gelatik irudi berdina ateratzeko bi aldiz pasatu beharrik: informazio guztia sarean gordeta geratzen da.

Sare berri horrekin, Osakidetzako erabiltzaile bakoitzak bere identifikazio-kodea izango du, eta beraren gaineko informazio guztia batera gordeko da. Orain arte, informazio mota bakoitzeko kode bat zegoen, eta gainera, osasun-zentro bakoitzak bere kode sistema zeukan.

Medikuen arteko sarea

Sistema berri horrekin, lehen arretako medikuak, familia-medikuak, momentuan bertan ikus ditzake interesatzen zaizkion erradiografiak, lehen baino kalitate handiagoarekin, eta beste medikuenganako edo erradiologoenganako harremana askoz estuagoa da.

Debagoieneko Eskualde Ospitaleak apustu egin du, hain zuzen ere, lehen arretako medikuen

"Sistema oso landua zegoen"

Gabriel Inclanek, garaiko Osasun sailburuak, 2008ko uztailean aurkeztu zuten Erradiologia-Irudiaren Kudeaketa Proiektu Globala izenekoa. Lehenengo fasean, 12 milioi euroko aurrekontua zuten, eta helburua zen EAEko paziente bakoitzak bere erradiologia-historial klinikoa izan zezan, kode-zenbaki bakar batekin, zentralizatua eta edozein momentutan Osakidetzako edozein mediku baimenduk sareko edozein osasun-zentrotan ikusteko eta erabiltzeko moduan.

Debagoieneko ospitalean, otsailean ezarri zuten. Martin Aperribai doktoreak dioenez, horrek bere alde ona ere izan du: "Guregana ailegatu orduko, sistema oso landua zegoen, eta ez da ia arazorik egon", esaten du. Hilabete eta erdian bukatu zuten profesionalek euren prestakuntza.

barruan, interesatzen zaion erradiografia aukeratu dezake. | JULEN IRIONDO

Ordenagailuan aztertu daiteke erradiografia, eta beste batzuekin konparatu ere bai. | JULEN IRIONDO

eta mediku espezializatuen artean pazientearenganako arreta integral sarea osatzearen alde. Horrek esan nahi du helburua dela paziente bakoitza atenditzen duten medikuek euren artean konpartitzea informazio guztia, eta pazientearen inguruko informazioa bion eskura egon dadin. Horrela, urte askoan oso ohikoak izan diren egoerak saihestuko dira: alegia, pazienteak berak azaldu beharra –behin baino gehiagotan, gainera– bere tratamenduari dagokion informazioa hainbat medikuri. Bada, honako aurrerapen berria bide horretatik doa.

Ebakuntzetarako, plakak

Arrasateko ospitalean oraindik badaukate betidanik erabili izan duten erradiografien gela, bere makineriarekin. Hantxe egiten zituzten erradiografiak, eta, gero, pazienteak han itxoin behar zuen irudiaren negatiboa errebelatzen zuten bitartean. Txasis batzuetan kapturatzen zuten irudia eta horiek prozesu kimiko baten bidez errebelatu behar izaten zituzten, likido batzuekin.

Hori hasierako sistema zen. Gero, hobetu egin zuten hura: inprimagailua baten bidez ateratzen zituzten, eta likidoen bidez egin beharreko errebelatu prozesua saihestea lortu zen horrela.

Orain, hirugarren pausoa eman dute: irudi halogeno bat lortzen dute eta hori irudi digital bihurtzen dute.

Edozein modutan, oraindik plaka zaharrak ez dira guztiz baztertzekoak, eta zenbait kasutan haiek erabiltzen jarraitzen dute: "Osakidetzako zentrook elkarrekin sarean gaude, baina paziente asko dauzkagu Lagun Arokoak, edo beste zentro pribatu batzuetakoak; hortaz, horien kasuan oraindik plakak egin behar izaten dira", esaten du Martin Aperribaik.

Beste kasu jakin batzuetarako ere plakak beharrezkoak dira oraindik: "Ebakuntza-geletan oraindik ez dago erradiografia digitalizatuak erabiltzeko behar den ekipamendua. Traumatologian ere lan-karga handia izaten dute, eta sail hori ere egokitu egin behar da", esaten du Aperribai doktoreak. "Asmoa da hurrengo hilabetean egitea aldaketa", gaineratzen du.

Teknologia digitalak beste abantaila bat ere ematen du, hor zubi-lana egiten lagun dezakeena: CDan edo antzeko euskarri baten irudiaren kopia grabatu daiteke. Helburua da CDak erabiltzea Osakidetzaren saretik kanpo. Aperribai doktoreak esaten duenez, leku askotan –Onkologikoan, Donostiako poliklinikan...– dagoeneko erabiltzen dituzte CDak.

Kontuan hartu behar da "pazientea dela bere erradiografien jabea", Martin Aperribaik esaten duen moduan. Hortaz, etorkizunean berak jaso ahal izango du bere erradiografia digitalizatua; "horrela, beste mediku batengana jo nahi badu, edo Osakidetzatik kanpoko zentroren batera, CDa eraman ahal izango du".

Ahotsa ere, digitalizatu

Irudia ez ezik, ahotsa ere gorde daiteke sarean, teknologia berriarekin; izan ere, ahots-oharrak ere egin ditzakete medikuek. Martin Aperribai medikuak honela diosku: "Hori beste abantaila bat da. Lehen, txostenak ahots-grabagailuarekin grabatzen genituen, eta gero idazkariak transkribatu egin behar izaten zituen". Orain, berriz, tresna informatiko bat daukate medikuek: ordenagailuari konektatutako mikrofono baten bidez, txostena diktatu egiten dute, eta automatikoki idatzita, zuzenduta, artxibatuta eta izenpetuta gelditzen da.

ESANAK

"Bi ospitaletako medikuek aldi berean pantailan ikusiko dituzte erradiografiak"

GABRIEL INCLAN | BULTZATZAILEA

"Diagnostiko hobea egin dezakegu orain, askoz modu samurragoan"

MARTIN APERRIBAI | MEDIKUA

DATUAK

2

MILIOI AZTERKETA

Kudeaketa sistema berriarekin, Osakidetzak urtean bi milioi azterketa erradiologiko gordetzen ditu informatikoki.

3,4

MILIOI EURO

Urtean 3,4 milioi euro aurrezten ditu Osakidetzak, ia hiru milioi plaka zeluloidean inprimatzeari utzi diolako.

Mendiari eman behar zaion tratu egokiaren gaineko hausnarketa, Arantzazun

- Astean hainbat ekitaldi egin ostean, Arantzazun amaitu dituzte orain arteko jardunaldiak
- VI. mintegi horretan Estatu osotik etorritako 80 lagun pasak parte hartu dute

U.M./I.G. | OÑATI

Mendi federazioetako ordezkariek, babestutako mendi-guneen arduradunek eta besteak beste, aholkularitza zientifikoko ordezkariek parte hartu dute egunotan Arantzazun bi urtetik behin egiten duten VI. mintegian. "Estatu osotik etorritako 85 bat lagunek eman dute izena, 14 erkidego daude ordezkatuta", kontatu du Alvaro Arregik, Gipuzkoako Mendi Federazioko presidenteak.

Mendiko lasterketak naturgune babestuetan eta *Nola uztartu mendiko kirolak eta erabilera tradizionalak*, landu dute. Hau da, halako ekimenek mendian duten eragina aztertu dute adituek, beti ere, aholkularitza zientifikoko batzordeak egindako ikerketan oinarrituta.

Tratamendua da garrantzitsua

Eta besteak beste, atera duten ondorioa da gure mendiek "osasun ona" dutela, eta gizakiok garela "natura baino basatiago". Uste dute gune babestu izan edo ez, azkenean garrantzitsuena dela mendia "behar den moduan" tratatu behar dela. Bereziki "horri bueltak ematen" ibili dira VI. mintegi honetan.

Bestalde, Arregik esandakoaren arabera, aurten lehen aldiz, mintegia herritarrei zabaldu eta joan den astean bi mahai-inguru egin zituzten, Donostian eta Beasainen. Bakoitzean 40na bat lagunek parte hartu zuten.

Gurean izan diren bitartean, Txindoki eta Udalatx bisitatu dituzte, besteak beste, Estatuko ordezkariek. "Ikaratuta geratu dira izandako eguraldiarekin, eurendako ere ez-ohikoa delako, eta gure mendi eta bistekin ere bai", kontatu du Arregik.

Agustin Santori, Jose Maria Nasarre eta Asier Arrese. | IRATI GOITIA

Konklusioak hilabete barru

Orain, mintegian landutakoarekin borradorea egingo dute, eta atzera ere emango diete adituei, haiek hilabetean ekarpen, zuzenketak eta antzekoak egin ditzaten. "Horren ostean emango ditugu jakitera konklusioak", adierazi du Arregik.

ESANAK

"Gure mendien osasuna ona da. Gertatzen dena da gizakiok garela natura baino basatiago"

ALVARO ARREGI | GIPUZKOAKO MENDI FEDERAZIOA

Manifestazio jendetsua, Sortu legeztatzearen alde

Mariasun Pagoagak manifestua irakurri zuen Alderdien Legea bertan behera uzteko eskatuz

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Eskubide zibil eta politikoen defentsan orain legalizazioa zioen pankartaren ostean jendetza atera zen egubakoitz iluntzean Arrasateko Seber Altube plazatik. Sorturen legeztatzea eskatzeko Arrasateko Eusko Alkartasunak, Alternatibak, Aralarrek, Ezker Abertzaleak, Gorripideanek eta LAB eta ESK sindikatuek deitutako manifestazioa izan zen.

Manifestazioa Portaloitik gora. | JULIO CALLEJA

Irtenbide elkarrizketatua

Herriko plazan amaitu zen manifestazioa eta Mariasun Pagoaga aktoreak hartu zuen hitza amaieran manifestua irakurtzeko. Euskal Herriko politikagintza aro berri baten atarian dagoela adierazi zuen: "Urte luzeetako gatazkaren ostean, argi dago herritarren gehiengo zabalak uste duela politikagintzan eman diren azken urratsek eragina izango dutela. Horregatik, uste dugu herri honek bizi duen konfrontazio eta gatazka egoerak irtenbide elkarrizketatua behar duela".

Gernikako Akordioan esandakoa berretsiz eskubide zibil eta politikoak errespetatzea ezinbestekoa dela adierazi zuen Pagoagak eta gaineratu zuen Alderdien Legea bertan behera utzi beharra dagoela: "Herri honek zatiketarako eta ukaziorako sorturiko tresna den Alderdien Legea bertan behera uzteko eskatzen dugu. Ezker abertzaleari politika egiteko eskatzen zaio, baina era berean ez zaio uzten. Herri honen sektore garrantzitsu bat baztertu egiten da erabaki politikoen ondorioz. Eratu berri den Sortu alderdiak estatutuetan legea osotasunean bete arren, Sorturen sinesgarritasuna epaitzen ari dira".

Etorkizunerarako itxaropentsu

Etorkizunera begira, itxaropentsu egoteko arrazoiak dituztela esan zuen Pagoagak: "Konfrontazioa, desadostasun, ezin ikusi eta ezin ulertuen ilunabarra atzean utzi eta elkartasuna, errespetua eta adostasunaren egunsentiari bide emateko momentua da orain".

Manifestazioa txalo zaparrada luze batekin amaitu zen.

UBANE MADERA

Berradiskidetzarako gakoak

Bi egunetako gogoeten ondoren, itxaropenerako mezua helarazi zuten Arantzazuko Baketik zentroan, bizikidetzaren berradiskidetze prozesuaren gaineko mahai-inguru publikoan. 300 bat herritarrek parte hartu, eta aukera izan zuten Juan Jose Ibarretxe, Margarita Robles, Mario Zubiaga eta Juan Pablo Fusiri galderak egiteko.

ANDER MONEDERO

Biltoki, Bilduren egoitza Bergaran

Bergarako Barrenkalen inauguratu du egoitza berria Bildu koalizioak. Biltoki izena ipinita, koalizioa hauteskundeetarako prestatzen ari den programari buruzko informazioa ezagutzeko aukera izango da. Besteak beste, herri euskalduna, euskal kultura, ama lurraren eta langileen eskubideen defentsa eta berdintasuna aldarrikatzen ditu Bilduk.



Jardunaldian parte hartu zuten hainbat ikertzaile. | GOIENA

Mikro, nano eta bioteknologiaz jardun dute Ikerlanen

Besteak beste, gaixotasunen diagnostiko azkarrago eta eraginkorrez egin zuten berba

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Ikerlan-IK4k eta Europako Batzordeak antolatuta, mikro, nano eta bioteknologien gaineko jardunaldiak egin zituzten joan den astean Arrasaten. Europako 100 lagun batu zituen jardunaldiak. Besteak beste, Alemania, Frantzia, Ingalaterra, Suitza eta Italiako adituak izan ziren osasun, ingurumen eta elikagai eta edarien sektoreen aplikazioen gaineko esperientziak elkartrukatzen eta etorkizunari begira proiektuak bultzatzeko sinergia topatzen eta lorpenak merkaturatzeko aukerak aztertzen. Besteak beste, Ikerlango Jesus Ruano, Micro-Nano-Systems Clusterko Andreas Lymberis eta Biobasque agentziako Maria Agirre izan ziren.

Europan osasunarekin lotuta dauden proiektu garrantzitsuenak aurkezteaz gain, gailu berritzaileak ere aurkeztu zituzten; esaterako, odol tanta bat haurdun dagoen emakumearen umea neska edo mutila izango den jakiteko gailua erakutsi zuten han. Horretaz gainera, gaixotasun bat detektatzeko orduan ere, ez da gauza bera odol pote bat erabiltzea edo tanta bakarra erabiltzea; horretarako, gailu txikiak ikertzen dabiltza odol tanta bakarrarekin pertsona batek salmonella duen edo ez jakiteko.

Sektore horien gainean zabal jarduteaz gain, jardunaldietan parte hartu zuten ikertzaileek Ikerlan-IK4 enpresaren laborategiak ezagutzeko aukera izan zuten, mikrosistemen harira garatutako berrienarekin.

Fagor taldeak 50 urte bete ditu hozkailuak ekoizten

Berrikuntza, diseinua eta iraunkortasuna dira taldearen ardatzak, kalitatea ahaztu barik

M.B. | ARRASATE

Fagor Groupen hotzaren sektoreak 50 urte bete ditu elikagaiak kontserbatzen. Prentsa -ohar batean, kooperatibak nabarmendu nahi izan du "berrikuntza" izan dela urte hauetan guztietan hotzaren sektorearen ardatza.

Enpresa hasi zen ate bateko hozkailuak egiten. 60ko hamarkada bukaeran beste ate bat gehitu zuen eta 80ko hamarkada hasieran lehenengo Combiak egin zituen, makina berean batuta hozkailua eta izozkailua. Hamarkada bereko amaiera aldean, hiru atekoak eta izotzik sortzen ez dutenak fabrikatzen hasi zen.

Lau planta

Taldeak gaur egun lau lantegi ditu: Arrasaten, Marokon (1998), Polonian (2004) eta Italian (2006). Prentsa-ohar berean, Fagor Groupek azaldu du egun eskaintzen duen hozkailu-gaman "berrikuntza, diseinua eta iraunkortasuna bere DNAren barruan" daudela, "fidagarritasuna, segurtasuna eta kalitatea ahaztu barik". Horrekin batera, azpimarratu du energia-eraginkortasunaren erronka beteta, erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzen eta bezeroen bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duela.

DATUA

130

HERRIALDE

Egun, 130 herrialdetan topa ditzakegu Fagor Groupen produktuak, taldeak dituen 12 marka komertzialen bidez.

Yanela Zarumaren hilketa salatu zuten

Beriainen hilda azaldutako Yanela Zarumaren hilketa gaitzesteko elkarretaratzea egin zuten eguenean Arrasateko Herriko Plazan, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako plataformak deituta. Normalean baino jende gehiago batu zen han. Ertzaintza ere ezustean azaldu zen eta hainbat lagun identifikatu zituen.

UBANE MADERA

TXOMIN MADINA

Elkarretaratzea Ausolanen

ELA, LAB eta UGT sindikatuek deituta, eskoletako jantokietako langileek elkarretaratzea egin zuten egubakoitz goizean Ausolanen aurrean. Lan hitzarmen "duina" izan zen esandako mobilizazioaren aldarria, eta datozen egunotarako beste hainbat mobilizazio deitu dituzte. Bihar, martitzena, manifestazioak egingo dituzte erkidegoko hiru hiriburuetan eta eguenean greba eguna izango da.

Bergara-Antzuolaren aurrekontua 9 milioi igo izana ezeztatu dute

AHTren Bergara-Antzuola zatiko lanen aurrekontua igo dela ezeztatu egin du Jaurlaritzak. EB-Berdeak taldeak galdetuta, Iñaki Arriolaren Sailaren arabera, "kontzeptu aldaketa bat egin da, Bergara-Bergara tartean, 13.624.638 eurorekin. Kontu-sail batetik bestera eraman da, baina, guztira, 42.637.100 euro egiten du, kopurua aldatu gabe ".

Enkantera atera dute Eibar-Elgeta garraiorako zerbitzuaren emakida

Diputazioak Debabarrena, Urola Erdia eta Urola Kosta eskualdeetako eta horiek Donostiarekin lotzeko herriarteko garraio publikoaren zerbitzua ezartzeko baldintzak onartu eta emakida enkantera ateratzea erabaki du. Emakida berriak 19 garraio linea eskainiko ditu; tartean, Euskotrenek Eibar eta Elgeta artean eskaintzen duen linea dago.

Garbittu

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

Santakurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Lourdes Idoiaga | Gizarte-zerbitzuen Erakunde Arteko Organoan Eudeleko ordezkaria

"Udalera ailegatzen dira oso kasu larriak, eta ez iruzurrak"

Larrialdi kasuetarako gizarte laguntzetarako partida erdira txikitu du Eusko Jaurlaritzak, eta haiek jasotzeko baldintzak zorrotzagoak dira aurten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gizarte-zerbitzuen Erakunde Arteko Organoa sortu zen iaz, eta horko kide da Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea, Eudeleko ordezkari gisa. Joan den astelehenean Goiena Magazinea-n izan zen, larrialdiko gizarte laguntzen gainean berbetan.

Zelan aldatu dira azkenaldian larrialdiko gizarte laguntzak?

Bost-sei urtean aldaketa asko egon dira. Oraingoan, murriztu egin dira, alokairua ordaintzeko prestazio berri bat sortu delako. Baina murrizketa gogorregia izan da. Iaz, nahiz eta alokairua ordaintzeko laguntza egon, Eusko Jaurlaritzak 24.900.000 euro ipini zituen larrialdietarako; aurten, berriz, 17.300.000. Aurten premia gutxiago dago? Ez; Jaurlaritzak bere kontura hartu ditu erabakiak, beste inorekin kontatu gabe, eta kanpoan utzi du iaz arte laguntza horiek jasotzeko eskubidea zuten lagun asko. Oso larria izan da.

"Banandutako emakume bat, hiru umerekin, laguntza barik geratu da"

Gizarte dirulaguntzak

- Iaz, 40.000 euroko ondarea zen muga larrialdiko dirulaguntza eskatzeko; aurten, 8.000 eurokoa da.
- Bigarren higiezin edo etxebizitza bat duena kanpoan gelditzen da.
- Etxebizitza bakoitzeko eskaera bakarra onartuko dute.
- Hipoteka ordaintzeko laguntza gehienez 12 hilabetean emango dute; iaz, mugagabea zen.

Bestalde, dirulaguntza jasotzeko baldintzak gogortu egin ditu.

Bai, ikaragarri gogortu ditu. Gu, Eudeletik, iaz hasi ginen Jaurlaritzari galdetzen zertan zebiltzan, eta inorekin kontatu gabe zebiltzala. Urtarrilean jakin genuen zer erabaki zuten.

Lehen zeuden baldintza batzuk oso zabalak ziren. Adibidez, 2. etxebizitza bat zuenak ere eska zitzakeen laguntzak...

Ez dut esaten azterketa beharrik ez zegoenik. Nik 2. higiezin bat duenari, edo 40.000 eurotik gorako ondarea duenari ere ez nioke emango. Baina beste gauza bat da muga 8.000 eurotan jartzea. Hona benetako kasu bat: emakume bat, banandua, hiru seme-alabarekin, urtean 16.900 euro irabazten zituenak. Iaz, lanean zegoenez, ahalegin bat egiten, 12.000 moduan kontatzen zioten, eta alokairurako laguntza jaso zezakeen. Baina, orain, eskubide hori gabe geratu da.

Lourdes Idoiaga. | LEIRE KORTABARRIA

Udalek, gainera, aldiro errebisatu egin beharko dituzue kasuak.

Eudelek beste proposamen bat dauka Jaurlaritzari egiteko: hiru hilean behin egin dezatela txostena udal bakoitzeko gizarte langileek. Eskatuko diogu Jaurlaritzari konfiantza izan dezala gizarte langileongan, eurek ez dituztelako iruzur kasurik ikusten, oso-oso kasu larriak baizik.

Etxebizitza erosteko, soldataren zati handiegia behar da oraindik

L.K. | BERGARA

Soldatapekoek oraindik soldataren zati handi bat erabili behar izaten dute etxebizitza erosteko, eta Gipuzkoak ahalegin-maila handienetariko bat dauka, Euskal Herriko eta kanpoko lurraldeen artean; Deloitte kontsultoriaren arabera, Bartzelonako probintziaren parekoa. Familia bakoitzeko, ahalegin-tasa hori %38 baino handiagoa da Gipuzkoan.

Deloitteren esanetan, oraindik ahalegin-maila handia da hori, "interes-tipoak neurrizkoak izan arren eta etxebizitzaren batez besteko salneurria txikitzen joan den arren". Kontsultorak dioenez, ahalegin-tasa hori oraindik "arrazoizko oreka-mailen gainetik" dago, eta horrek azaltzen du salgai dauden etxebizitzak ez direla behar adina saltzen.

Hiru lurralde, hobeto

Hego Euskal Herriko eta Espainiako etxebizitzaren egoera aztertu ondoren, Deloitte-ek esan du etxebizitza stock handia dagoela; baina Nafarroan, esaterako, txikitzen hasi dela esan du.

Azkenik, etxebizitza aktibitatean bere onera etortzen dabiltza Araba, Nafarroa eta Bizkaia, esaten du Deloitte-ek; horien egoera makroekonomikoa eta higiezin-merkatuaren funtsezkoak kontuan hartu ditu hori ondorioztatzeko.

Zerrajerako etxebizitzak, Arrasaten. | IMANOL SORIANO

Txakolingileak eta Pates Zubia goi gamako elikagaien Gourmet azokan izango dira, Madrilen

L.K. | BERGARA

Europako kalitatezko gastronomiaren erreferente den azoka profesionalak, 25. Gourmet Jaialdiak, Kalitatezko Elikagai eta Edarien Azokak, Euskal Herriko 40tik gora enpresa ekoizle hartuko ditu 11tik 14ra Madrilen, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren erakusmahaian (4 B26 erakusmahaia).

Debagoiena ere ordezkatuta egongo da: Getariako Txakolina izendapena –non hainbat ekoizle debagoiendar dauden– eta Eskoriatzako Pates Zubia enpresa han izango dira.

Ekintzetako bat izango da enpresek hainbat berritasun aurkeztea. Hala, Eskoriatzako Pates Zubiak bere produktuak gordetzeko bilkari mota berri bat aurkeztuko du, Darfresh izenekoa, eta "hutseko ontziratze perfektua" egiteko bidea ematen duena, enpresaren esanetan.

Hantxe sukaldatuko dute

Erakusmahai horretan ikusgai egongo diren enpresa eta produktuekin batera promozio eta ekintza bereziak ere egingo dira; besteak beste, zuzeneko sukaldaritza erakusketak, Gamarrako Goi Mailako Sukaldaritza Eskolatik; hamabost minutuko erakusketa horietan, pintxoak prestatuko dituzte bertako lehengaiekin, edo platerak, 2011ko Gourmet Jaialdian sustatuko diren Euskadiko IV eta V gametako produktuekin.

Ardo Galeria ere egongo da erakusmahaian; bertan, Arabako Errioxako ardoak eta erakusgai egongo diren upategietako txakolina dastatu ahal izango dituzte bisitariek. Sommelier aditu bat egongo da bertan uneoro.

Goi gamako elikagaiak

Gourmeten Klubaren Nazioarteko Jaialdia orain 25 urte sortu zen, goi gamako elikagaien egile eta kontsumitzaileen topaketa izateko asmoz, baina jarduera-programa zabala eskaintzen du: mahai-inguruak, hitzaldiak, erakusketak, lehiaketak, eztabaidak eta txapelketak.

Enpresak kooperatiba bihurtzeko gida bat argitaratu dute

Espainiako kooperatiben COCETA konfederazioak merkataritza-enpresak kooperatiba bihurtzeko gida berria argitaratu du, eta *www.coceta.coop* webgunetik jaits daiteke. Enpresak kooperatiba egiteko oinarriak ematen ditu, eta bereziki zuzenduta dago enpresa hartzekodunen konkurtsora deituta geratu den kasuetarako.

Harrera bikaina izan du Fagor Ederlanen eko-motorrak

Fagor Ederlanek eta Lotus Engineeringek elkarrekin garatu duten Lotus Range Extender eko-motorraren lehenengo prototipoa aurkeztu zuten Genevako Motor Show azokaren azken edizioan, martxoaren 3tik 10era. Harrera "bikaina" izan du, Mondragon Korporazioak dioenez. Gaur egun prototipo funtzionalen fabrikazioa lantzen ari dira bi bazkideak.

Urtebetean %6,7 hazi da industria-jarduera Euskadin

Eustat estatistika erakundeak landutako datuen arabera, 2011ko urtarrilean %6,7 hazi zen EAEko industria-jarduera, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2010eko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %3,8 hazi zen EAEko industri produkzioa, 2011ko urtarrilarekin alderatuta.

Garbiñe Arrizabalaga | Baikarako ordezkaria

"Pazientzia ez galtzeko kontuan izan behar dugu ikasteko beharrezkoa dela denbora"

- 'Giro onean hezi eta pazientziarik galdu gabe' hitzaldia eskaini zuen Arrizabalagak
- Datorren eguaztenean gai beraren gainean jardungo dute Oñatiko institutuan

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Oñigek eta Baikarak antolatuta hitzaldia eskaini zuen eguaztenean Garbiñe Arrizabalagak Oñatiko institutuan. 40 bat lagun batu ziren hitzaldia entzuteko. Haurraren heziketaz jardun zuen Arrizabalagak; giro onean nola hezi azaldu zuen.

Guraso eta seme-alaben arteko harremanaz jardun duzu Oñatin.

Hori da. Saiatu naiz azaltzen zeintzuk diren gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak.

Gainera, nerabezaroa nolakoa izaten den azaltzen saiatu naiz eta baita komunikazioa edo nerabeekin nola berba egin behar den azaldu dut.

Orokorrean nolakoak izaten dira gurasoak eta nerabeen arteko harremanak?

Orokorrean onak izaten dira baina askotan falta izaten dira trebetasunak gurasoen aldetik.

Batzutan guraso eta seme-alaben arteko erlazioan eztabaidak sortzen dira eta eztabaida horiek gurasoen estresa eragiten dute. Guk proposatzen duguna da gurasoek trebetasunak ikastea. Trebetasun horien bitartez estresa gainditu eta arazoak modu positiboan konpontzea da asmoa.

Giro onean heztea ezinbestekoa da haurrak edo nerabeek oreka emozionala izan dezaten?

Bai, noski. Haur edo nerabeen emozioak eta sentimenduak entzutea ezinbestekoa da. Gero, noski, emozio horiei erantzun bat eman behar zaie. Emozioen gestioa ezinbestekoa da haurrak orekan hezteko.

Nola lortzen da giro on hori?

Ezinbestekoa da entzuten ikastea eta jakitea. Gainera jakin behar dugu ze elementuk eragiten duten gura seme-alabek modu batera edo bestera jokatzea. Baita, behar ez diren jarrerak zela hobetu daitezkeen, motibatzen. Jakin behar dugu zeintzuk diren arazoak konpontzen lagunduko diguten trebetasunak.

Hitzaldian pazientzia ez galtzeaz jardun duzu. Hori zaila izango da hainbat kasutan!

Bai, ez da samurra. Baina bide egokian egongo gara konturatzen garenean denbora beharrezkoa dela ikasteko, eta ikaste hori toleranteak izanda egiten dela konturatzen garenean. Ez gara larritu behar emaitzak ez direnean egokiak. Nahiko denbora eman behar diegu emaitza txikiak ikusi arte. Itxaroten ikasi behar dugu, eragozpenak onartuz. Hori da pazientzia on baten oinarria.

Haur baten heziketan, ze garai da garrantzitsuena; hau da, noiz finkatzen dira baloreak?

Oso txikitatik hasten dira haurrak gurasoek dauzkaten baloreak euren gain hartzen. Esan daiteke haurtzaroa oso garrantzitsua dela gerora izango ditugun baloreak finkatzeko.

Nerabezaroan beste ezaugarri bat ematen da: seme-alabek baloreak transmititzen diete unitate familiarrari. Hori gertatzen da bai eskolak eta baita lagunek ere garrantzi handia hartzen dutelako garai horretan.

Familia osoaren inplikazioa ezinbestekoa izango da haurra ondo hezteko. Ez da hala?

Noski. Gurasoen inplikazioa ezinbestekoa da haurrek heziketa harmoniatsua izan dezaten maila guztietan: familian, eskolan eta baita gizartean ere. Baina, seme-alaba bakoitzaren berezitasunak errespetatu egin behar dira.

Kontuan hartu behar dira baita ere seme-alaba bakoitzaren behar afektiboak, kognitiboa eta sozialak

Gurasoek noiz galtzen dute pazientzia gehien?

Familia estres kasuetan samurra da pazientzia galtzea eta horrelako egoerak askotan ematen dira familietan. Baina, esan daiteke, seme-alaba baten heziketan bi garai daudela aipatzekoak: lehenengo haurtzaroa eta nerabezaroa.

Eta, zer egin behar dute gurasoek pazientzia galtzen dutenean?

Ba, lehen esan bezala, haurrak motibatu behar dira. Gainera, gurasoek positiboan jokatu behar dute. Haurrei denbora eman behar zaie irakatsitakoak ikasteko, autoestimua estimulatu behar zaie eta baita erantzukizunak eman ere. Baina, batez ere komunikazio trebetasunak hobetu behar dira.

Nola jokatu behar dugu umea jasanezin dagoenean?

Lehenengo egin behar duguna da haserrearen oinarria zein den ezagutu. Hala, haurraren eboluzio garaia artatuko dugu, eta jarrera onak sortuko dizkiogu; baina, bide batez, jarrera txarrak ere zuzendu egin beharko dizkiogu.

Jokabide alternatiboak eskaini beharko dizkiegu seme-alabei euren heziketarako baliagarriak izan daitezen.

Zein da gurasoek izaten duten kezka nagusia?

Gurasoen kezka nagusia haserrealdi edo kasketei aurre nola egin eta desobedientziari nola aurre egin izaten da. Baita, ikasketak eta nerabezaroko komunikazio falta ere. Gainera kezka izaten dute bizitzan zehar har dezaketen ohitura txarrengatik ere.

Asko aldatu dira azkeneko urteetan heziketa modua eta baloreak?

Bai, aldatu dira baina orokorrean gizartea aldatu den erritmo eta orientazio berean aldatu dira heziketa ohiturak ere.

Horregatik, gizartearen ardura da haurren heziketan egin behar diren aldaketak zeintzuk diren identifikatzea eta aldaketa horiek ematea. Baita, lortu gura dugunaren araberako baloreak finkatzea ere

Nolako lanak egiten dituzue Baikara elkartean?

Gipuzkoako ikasleen gurasoen federazioa da Baikara. Eskola publikoaren hobekuntzan jarduten dugu, egitasmo ezberdinak antolatuz eta proposatuz. Gainera, beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen ditugu; besteak beste, gurasoei formazioa ematen diegu, gaurkoa bezalako hitzaldiak antolatuz.

Garbiñe Arrizabalagak hitzaldia eskaini zuen eguaztenean Oñatiko institutuan. | A.E.

"Jokabide alternatiboak eskaini behar dizkiegu gazteei"

"Gizartea aldatu den modu berean aldatu dira heziketa baloreak"

ZABALIK

IÑAKI PEÑA
'http://goiena.net/iritzia/'

Mitoa versus Zientzia

Eskola garaian filosofia irakasleak behin azaldu euskun zelan gizakiaren historian pentsamendu magikoa edo mitoan oinarritutakoa nagusia zan hasikeran, eta denporak aurrera egin ahala esperimentazinoaren bidez gero eta arrazoi zientifikoagoak topatzen zituzten gertaerak esplikatzeko. Grafiko batean, Mitoaren pisua gero eta txikiagoa zelan bihurtzen zan ikusten zan, Zientziarenagaz alderantziz gertatzen zan bitartean.

Gaur egun, halandabe, mitoaren eragina ez da guztiz desagertu. Eta ziur aski gizakiak oraindino beharrezkoa daualako izango da, zientziak ezin daualako dana esplikatu eta kontrolatu. Geurean, medikuntza "ofiziala" erabat zientziaren menpe ez dagoala aitortu behar dogu, neurri handi batean farmazia industriaren menpe baizik. Gitxiengoan jarduten dabe behintzat "Ebidentzian oinarritutako medikuntza" arloan dabilzan lankideek, ahalik eta zientifikoen lan egin nahian. Bestaldean, Edzard Ernst eta Simon Singhek *Sendabide ala iruzurbide. Medikuntza alternatiboa proban* (Elhuyar, 2010) liburuan hiru multzotan sailkatzen dituzte medikuntza "ez ofizialak" ikuspegi zientifikoaren arabera: lelengoan, onurak aitortzen deutsiez besteak beste tai txi, yoga, masaje-terapia, osteopatia, kiropraktika eta txinatar medikuntza tradizionalari orokorrean. Bigarren multzoan, sinesmen hutsean oinarritzea eta dirua alferrik xahutaraztea leporatzen deutsiez feng-shui, reiki eta terapia magnetikoari beste batzuen artean. Eta hirugarren multzoan, zuzenean ebitatu beharrekotzat jotzen dabez iridologia, shiatsu eta dieta makrobiotikoak. Hauetaz gain, naturopatian onurekin batera zenbait arrisku topatu dituzte, eta homeopatiagaz akaso bereziki kritikoak dira, plazebo eraginean oinarrituta dagoala azpimarratuz.

"Gaur egun, mitoaren eragina ez da guztiz desagertu"

Zorionez, mitoak eta zientziak alkar behar dabe gaur egun be, nahi eta nahi ez.

USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | 'jberezibar@goiena.com'

Indar okupatzaileak

Berdin da lokal okupatua barik emandako eraikin baten bada, guztiz *anarkoa* barik udalaren laguntzatxoa jasotzen badu ala kanpotik egin eta erabakitakoak ez badira ulertzen. Benetan okupatzen dena norberaren espazio bat da, erantzukizunak hartuaz eta hurkoarekin lanean, askatasuna autogestionatzen da. Mundua aldatzeko nork bere burua aldatuz hasi beharra dago eta albokoari utzi gauza bera egiten; asmatu ala ez. Gaztetxeetan buruak okupatzen dira, hori da inporta duen bakarra, nork berea. Asanbladak bizitzarako hezkuntzaldi preziatuak dira. 20 urte dihardute horretan. Zorionak, buru okupatzaile guztiei.

KALE INKESTA

Zer pentsatzen zaizkizu politikarien dietak?

JUAN ASPE
ARRASATE

"Higuingarrikeria hutsa; eta politikan lotsagabeko guztiak daudela. Dietak kendu egin beharko litzaizkieke."

PETRA INDA
ARRASATE

"Txarto, larregiko ondo bizi dira eta horregatik apuntatzen dira politikara gehienak. Dietak kendu egin behar zaizkie."

TXARO PAGALDAI
ARRASATE

"Guk moduan egin beharko lukete: preziorik baxuenetan ibili. Eta guri ezer eskatu aurretik, eurak izan behar dira eredu."

MERCEDES PINO
ARRASATE

"Oso txarto. Jaitsi egin beharko litzaizkieke, eta kendu behar bada, kendu ere bai; guri ez digute ezer ordaintzen."

HANDIK ETA HEMENDIK

Sakonetaren patetismoa

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatino/

Sakoneta eleberria sarkastikoa ote? Neri –itxurazko molde arin guztien gainetik– ikaragarri patetikoa iruditu zait. Behar bada sarkasmorik gordinena patetikoa baino ezin delako izan.

Incendies filmaren hasierako sekuentzia batean, amak sukaldetik hots egiten du:

"Afaltzera!".

Erantzun gisa, Libanoko gatazkaz telebistan albisteak ikusten diharduen neskatilak bota dio:

"Erasoa izan da!".

Eta amak berriro:

"Horrek ez du esan gura afaldu behar ez denik".

Xabier Mendigurenek anekdota beretsu samarra gogorarazi digu oraintsu (*Ortzadar*, 2011.03.12), Franz Kafkak 1914ko abuztuaren 2an bere egunerokoan idatzi zuena:

"Alemaniak Errusiari gerra deklaratu dio. Ni arratsaldean igeri egitera joango naiz".

Izan ere, espiritu kafkar berbera izan du nonbait Xabier Mendigurenek berak *Sakoneta* eleberria idazterakoan.

Han-hemenka "sarkasmo" hitza ikusi dut gehien errepikatua nobelari buruzko informazio eta kritiketan, baina nik, berriro ere –ez galdetu zergatik—, Julio Iglesias kantariaz gogoratu naiz: *La vida sigue igual*.

Auskalo gero zer arraio aditzera eman nahi ote duen egileak nobela honen bitartez, baina zalantzarik ez dago gero bizitza uste baino arruntagoa dela edota, berdin baino diferente, errealitatea fikzioa baino latzagoa.

Amona zaharrak deitu zidan behin, Abiadura Handiko Trena zela-eta nahitaez utzi behar zuen baserriaren ordainetan, berrogei milioi pezeta eskaintzen zizkiotela eta diru harekin ez zuela kalean etxebizitza berririk erosterik.

Ea nik laguntzerik ote nuen.

Nik neuk galdetu nituen galdetu beharrekoak Eusko Jaurlaritzaren Garraio Sailean eta horrela jakin nuen Administrazioaren lehen eskaintza hirurogei milioikoa izan arren, etxeko semeak, gutxitxo iritzita, auzitara jo zuela amaren izenean eta epaileak, berriz, peritoak bidali ostean, baserria berrogeitan baloratzea erabaki zuela.

Segurutik, semeari ez zitzaion arrazoirik falta izango, ezta peritoei logikarik ere, epaileak egin beharrekoa egin zuen eta Administrazioak legea bete baino ez, baina amona gajoa nora ezean laguntza eske telebistako ispiluari deika.

Ez dakit zer den sarkasmo handiagoa, Abiadura Handiko Trenaren inguruko gatazka, semearen balentria edo telebistaz baino ezagutzen ez zuen aurpegiaz amona zaharrari zerion fedea.

Sakoneta eleberria sarkastikoa ote?

Neri –itxurazko molde arin guztien gainetik— ikaragarri patetikoa iruditu zait.

Behar bada sarkasmorik gordinena patetikoa baino ezin delako izan.

Patetikoa... kontatzen duen egoera jakina, ez eleberria bera.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Ubane Madera
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SARRERAK

Juan Tamariz ikuskizunerako sarrerak

Juan Tamariz kartomagian espezializatutako ilusionista ikusteko 4 sarrera (irabazle bakoitzari bi).

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

KORRIKA-KO ARROPA

aek 17. korrika

maitatu, ikasi, ari... euskaraz!

aek

WWW.KORRIKA.ORG

2 zozketetan parte hartzeko

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Telefonoz: 943 25 05 05

e-postaz: *kluba@goiena.com*

SMS bidez.

Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.

Bidali KLUBA KORRIKA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

2011n atera etekina txartelari

AQUARIUM
Donostia, 943 44 00 99
- Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

AVIA MECA GASOLINDEGIA
Arrasate, 943 79 13 39
- %2 gasolindegian erregaia erosita.
- %2 dendako produktuetan

AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA
Eskoriatza, 943 71 45 66
- %8 deskontua asteburuko egonaldietan.
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendraka).
- %10 deskontua jatetxeko kartan.

BARCELÓ BIDAIAK
Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43
- 1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI
(kontratatukoaren arabera: asteburuko egonaldiak, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta, 943 79 98 21
- -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA
Eskoriatza, 943 71 43 41
- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

ESKO SPORT KIROL DENDA
Eskoriatza, 943 71 52 96
- -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES ENTZUMEN ZENTROA
Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
- %10 deskontua(ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

CLÍNICA DENTAL BERGARA
Bergara, 943 76 05 77
- -%10 zerbitzu guztietan
- -%15 inplanteetan
- Aho-garbiketa doan,
- 120 eurotik gorako tratamenduetan
Bazkidearentzat eta familiako batentzat

IKER SUKALDEAK
Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
- Sukalde osoa erosita,mikrouhin-labea opari.

LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Bergara, 943 76 31 71
- -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

MULTIOPTICAS
Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
- %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA
Aretxabaleta, 943 08 21 89
- -%15 zerbitzu guztietan.

RENAULT AUTOBERRI
Arrasate, 943 71 24 72
- -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

TXIKI ZOO Aretxabaleta, 943 79 51 15
- Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
- %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA
Donostia, 943 46 44 00
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan
(ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
- -%20 zapatu eta domeketan
(ez bada zubia edo oporraldia)
- -%10 zubi eta oporraldietan.

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA
Donostia, 943 01 24 78
- %10 deskontua.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Antonio Herzog | Euskadiko Ezkerrako zinegotzia Bergaran (1983-91)

- Bi agintaldi egin zuen udaletxean, lehenbizikoa Jose Luis Egino alderdikidea ordezkatuta
- Oposizioan lan egitea tokatu zitzaion; EAJ zegoen gobernuan 1983an eta 87an HB eta EA
- Lokarriren bazkidea, Caritasekin eta Elikagaien Bankuarekin kolaboratzen du gaur egun

"Oposizioarekin adostasuna lortzen saiatzen zen udal gobernua urte haietan"

EDU MENDIBIL | BERGARA

Kordobakoa, La Carlotakoa jaiotzez, 17 urte besterik ez zituenean etorri zen Bergarara 1960. urtean. Bera izan zen familiakoa lehena. Haren ondotik etorri ziren Antonioren sei anai-arrebak. Hainbat tokitan lanean jardun ondoren Fagorren egin zuen urte gehien, 1969tik 2004an erretiratu zen arte. Zortzi urtez Euskadiko Ezkerrako zinegotzi bakarra izan zen udaletxean, oposizioan. Gesto por la paz taldearekin eta, urtetan, Elkarrirekin kolaboratu ondoren, Lokarriren bazkidea da gaur. Baikor da egun bizi dugun egoerarekin, Sortu legeztatzea faltan botatzen duen arren.

Nola hasi zinen politikan?

16 urte nituela Alderdi Komunistara hurbildu nintzen jaioterrian, Andaluzian eta Euskal Herrira etorritakoan hemengo komunistekin kontaktatu nuen. Ez geneukan Andaluzian besteko indarrik, baina tira... Baina PCEren X. Kongresuan, 1981ko uztailean, Euskal Herriko alderdi komunistaren bereizketa ekarri zuen eta alderdikideen erdiak-edo Euskadiko Ezkerrara joan ginen.

Antonio Herzogek Caritas Inclusion Bergara proiektuan kolaboratzen du gaur egun. | E.M.

Eta handik gutxira udaletxera iritsi zinen.

Gurutz Larrañaga izan zen EEko lehenbiziko ordezkaria Bergarako udaletxean 1979an, Jose Antonio Zabala alkatea zela. 1983ko hauteskundeetan, berriz, Jose Luis Egino genuen zerrendaburu, eta ordezkari bakarra lortu genuen. Baina irailerako-edo zinegotzi karguari uko egin eta ni hasi nintzen haren partez. Bi agintaldi bete nituen udaletxean, 1991ra arte hain zuzen.

Herzog (2.a ezkerretik) beste ordezkari batzuekin Iparralder egindako bidaia baten.

"Oxirondoko azokaren proiektuarekin ez genuen asmatu"

"Herriko auzoei ez zaie eskaintzen behar besteko arreta"

Eta epe horretan oposizioan egotea tokatu zitzaizun.

Bai. Nire lehenbiziko agintaldian Imanol Bolinaga zegoen alkatea eta EAJk zeukan gobernua, gehiengoarekin gainera. Bigarrenean HBk eta EAk osatu zuten gobernua eta tarte horretan Jose Luis Elkoro izan zen alkate. Orokorrean oroitzapen onak ditut. Nahiz eta oposizioan egon, elkarrizketa zegoen alderdien artean, PSOE agian bere kontura ibili arren... Logikoa denez, gure ezadostasunak izaten genituen eztabaidatan baina guztien arteko adostasuna lortzen saiatzen zen gobernua sasoi hartan. Niri dagokidanez, kultura eta hirigintza batzordeetan parte hartzen nuen gehienbat. Izan ere, horiek dira gehien atsegin ditudan gaiak.

Ez ziren garai errazak eta tentsioak ere izango ziren zenbait gairekin, ala?

Bai, Leitzarango autobiak esate baterako nahi baino buruhauste gehiago eman zizkigun... Horren kontura eztabaida dezente izan genituen eta egunero kalean ikusten duzun jendearekin gai zailak izaten dira horiek... Baina esandakoa: udaletxean ezagututako jendea da niretako gauzarik onena. Udaleko lana ez da batere eskergarria izaten eta hainbeste urteren ondoren lagunak izaten jarraitzen dugu. Ez da gutxi.

Udaletxean egindako lanetatik, zein nabarmenduko zenuke?

Bergarako saihesbidea eta Labegaraietako kiroldegia inauguratu ziren sasoi hartan eta nik uste dut bi proiektu horiek garrantzitsuak izan direla herriarendako. Eta arantzatxo bat ere badut: Oxirondoko azoka berriko proiektua ere ordukoa da eta ez dut uste asmatu genuenik. Orduan ere eztabaida ugari piztu zuen dendarien eta herritarren artean eta oraingo perspektibarekin ikusi dugu ez zela soluzio onena izan.

Nola ikusten duzu Bergara gaur?

Azpiegitura aldetik defizita ikusten dut herrian eta auzoei ez zaie eskaintzen behar besteko arreta. Adineko jendearendako adibidez, egoitzak edo lokalak egon beharko lirateke auzo ezberdinetan. Bestetik, Caritasekin kolaboratzen dut eta nik uste eskaleendako egoitzaren bat egotea ondo legoke, kalean lo egitera behartuta ez egoteko.

KORRIKA

GOENA TELEBISTA | SAIO BEREZIAK

APIRILAK 14, 19:45 | APIRILAK 15, 22:15 | APIRILAK 16, 18:30/21:30 | APIRILAK 17, 22:00

BABESLEA: EMUN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

HERRIAK

ARETXABALETA

Joan den eguen arratsaldean Aretxabaletako udaletxeko ganbaran egindako batzarra. | MIRIAN BITERI

DATUA

30

FAMILIA

Horixe da Basherri kontsumo taldean parte hartzeko interesa agertu duten aretxabaletarren kopurua.

ESANAK

"Baserritarrek eta kontsumitzaileek elkarlanean jarduteko konpromisoa hartzen dute"

ADRIAN SANCHEZ | BIOLURKO KIDEA

Sasoiko produktuak bitartekaririk gabe jaso gura dituzte herritarrek

Etzi, Mendibitzu eta Josu Mugiondoren instalazioak bisitatuko dituzte

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Basherri kontsumo taldea sortzeko bigarren batzarra egin zuten eguen arratsaldean Aretxabaletako udaletxean. Agertu ziren ekoizleen eskaintza aztertu zuten egitasmo horretan parte hartzeko interesa duten herritarrek, eta, horretarako, horien instalazioak bisitatzeaz jardun zuten. Horren harira, adostu zuten etzi, eguaztena, Mendibitzu Ekologikoak eta Josu Mugirondo ekoizleei bisita egitea, instalazioak ezagutzeko eta bakoitzaren eskaintza zelan egiten den gertutik ezagutzeko. Besteak beste, Mendibitzu Ekologikoetako Lete anaiak, Lourdes Aleu, Joseba Urtzelai, Jon Mugiriondo eta Maria Jesus Revuelta ekoizleak daude euren produktuak banatzeko gertu; hain justu ere, barazkiak, okela, ogia eta esnekiak eskaintzen dituzte, besteak beste.

Hilabeteak daramatzate herrian baserritarrez eta kontsumitzailez osatutako kontsumo taldea osatzeko asmotan. Aretxabaletako Udalak eskatuta, Biolur Gipuzkoa eta EHNE ari dira ekimen hori sustatzen. Ikusmina sortu du hasieratik egitasmoak; lehenengo batzarrean 50 lagun inguru batu ziren, eta horietatik, 29k eman zuten izena. Egueneko batzarrera bizpahiru lagun berri azaldu ziren, eta izena ematea erabaki zuten.

Bitartekari barik

Biolur elkarteko kide Adrian Sanchezen esanetan, "baserritarrek eta kontsumitzaileek elkarlanean jarduteko konpromisoa hartzen dute kontsumo taldeetan, urte osoan produktuak zuzenean kontsumitzeko, inolako bitartekaririk gabe, bi aldeen mesedetarako. Ohiko kontsumo ereduaren alternatiba erreala dira. Kontsumo taldeak autonomoak dira, talde bakoitzak erabakitzen du antolaketa guztia: zer kontsumitu nahi duten, ekologikoa lehenetsiko duten, prezioak eta kuotak, banaketa edo kudeaketa nola egin". Hain justu ere, hori da batzarretan erabakitzen ari direna.

Otarreak astero

Hilean behin batzeko asmoa dute, ortuaren edo bestelako instalazioen egoeraren berri izateko. Horren harira, ekoizleak astero otarre bat gertatuko du, sasoi bakoitzean dituen produktuen araberakoa egindakoa. Otarre hori nola osatuko den hileroko bilera horretan erabakiko da, beti garaian garaiko produktuekin.

Otarre horiek handiak edo ertainak izan daitezke; handiak lau lagunendako astebeterako produktuak izaten ditu eta ertainak, ostera, bi lagunendako astebeterakoak.

Oso denbora laburrean, Basherri talde asko sortu dira Gipuzkoa osoan. Dagoeneko 30 kontsumo taldetik gora eratu dira herrialdean, gehientsuenak azken urtean, eta, sistema horren bidez, guztira, 500 familia elikatzen dira. Debagoienari dagokionez, Arrasaten bi talde daude eta Bergaran eta Oñatin osatzekotan dabiltza.

AITOR ALBERDI
KONTSUMITZAILEA

"Eroskira joan naizenean, lekak erosterakoan Marokokoak direla ikusten dut eta arraina, Vietnamgoa. Kalitatea bilatzen dut. Gainera, hemengo jendeari ere lagundu behar zaio".

JOXE ANGEL ANTXIA
ZINEGOTZIA

"Udala arduratuta zegoen baserriaren garapena bultzatzeko. Deba Garapenerako Agentziara joan ginen eta kontsumo taldeen berri eman ziguten. Ideia ona iruditu zitzaigun".

GORKA LETE
EKOIZLEA

"Zuzeneko salmentaren aldeko apustua egiten dugu Mendibitzukook. Okela, gazta, arrautzak eta txorizoa eskaintzen dugu. Bi urte daramatzagu beste kontsumo taldeetan".

ZIGOR MONEO
KONTSUMITZAILEA

"Inguruko baserritarrei lagundu egin behar zaie, bertan dauzkagun produktuak kanpokoak baino hobeak dira. Denondako onuragarria izan daitekeela iruditzen zait".

LARRAITZ ALTUBE
KONTSUMITZAILEA

"Interesgarria iruditzen zait proposatzen duten kontsumitzaile eta baserritarren arteko zuzeneko salmenta, bitartekari barik. Edozeinendako abantailak bakarrik daudela dakartzala uste dut".

ANTZUOLA

Ipuinak, fantasia eta barre algarak nagusi Patxiko Txerrenen sari banaketan

Ilargia nahi zuen haurraren eta Txomin Ipurdiren istorioek aho zabalik utzi zituzten gaztetxoak

ARRITXU BARRUSO | ANTZUOLA

Ipuin lehiaketa baten sari banaketarako, zer hobeto ipuin kontaketa bat baino? Patxiko Txerrenen sari banaketan, zalantza barik, ipuinak izan ziren protagonista handiak. Lehenengo Apika taldekoek kontatutakoak eta ondoren Antzuolako gaztetxoenak.

Eskailera hartuta, ilargiraino

Apika antzerki taldeak gidatu zuen Patxiko Txerrenen sari banaketa ekitaldia. Luzia eta Monikak berehala bereganatu zuten Antzuolako gaztetxoen arreta. Ilargia eskuetan hartu nahi zuen haurraren ipuina kontatu zuten lehenengo eta Txomin Ipurdiren istorioa gero. Ipuin bakoitzari txalo zaparrada eskaini zioten gaztetxoek. Apika taldekoek argi utzi zuten liburuei esker lekutik mugitu barik, eta irudimena erabilita, oso urrutira bidaiatu daitekeela.

116 lan guztira

Antzuolako gaztetxoen txanda etorri zen gero. Eskolan diharduten 1. mailatik 6. mailara arteko neska-mutiko guztiek aurkeztu dituzte ipuinak Patxiko Txerren lehiaketara. Hamalaugarren edizioa izan da aurtengoa eta 116 lan aurkeztu dira guztira. Sei izan ziren taula gainera saria jasotzera igo ziren neska-mutikoak: Mairi Olabarria, Ander Muñoz, Alaitz Mata, Maren Montori, Irati Lizarralde eta Irati Ormazabal.

Patxiko Txerren lehiaketako sei irabazleak saria jaso ostean Apika taldeko lagunekin. | A. BARRUSO

MADDI DIEZ ETA IRATI LIZARRALDE
2. MAILAKO IKASLEA

Maddi Morgan (Bizkaia) bizi da eta Irati, bere laguna, bisitatzera etorri zen zapatuan Antzuolara. Sari banaketara elkarrekin joan ziren eta oso gustura ibili ziren "Nire lagunak lehiaketan parte hartu du eta horregatik etorri gara. Asko gustatu zait hasieran egin duten antzerkia. Oso ondo pasatu dugu", kontatu zigun amaieran Maddik. Irati, berriz, antzuolarra da eta bigarren mailako ikaslea da. Hura ere pozik irten zen sari banaketatik, batez ere, bere kategorian ipuin onenaren saria berarendako izan zelako: "Oso ondo ibili gara, barre asko egin dugu antzerkiarekin eta gainera saria eraman dut".

ANDER MUÑOZ
5. MAILAKO IKASLEA

Ander Muñozek ere saria irabazi zuen *Puzkerren Laberintoa* ipuinarekin. Izenburuaren originaltasunak barre algarak eragin zituen eta Muñozek taula gainean azaldu zuen bere ipuinaren istorioa: "Oso pozik nago saria irabazi dudalako, ez nuen horrelakorik espero. Datorren urtean berriz aurkeztuko naiz eta orain gogo gehiagorekin gainera". Ipuin kontaketa ere asko gustatu zitzaion: "Oso ondo pasatu dugu", kontatu zigun.

NAHIA GARAIKOETXEA
1. MAILAKO IKASLEA

Nahia Garaikoetxeak *Mago Ospetsua* izeneko ipuina aurkeztu zuen lehiaketara, baina ez zuen zorterik izan. Saririk irabazi ez arren, pozik itzuli zen etxera: "Ez dut saririk irabazi, baina ez dio axola. Oso ondo pasatu dugu hasieran egon den antzezlanarekin. Ipuin kontaketak asko gustatzen zaizkit eta gaurkoa ere gustatu zait. Beharbada baserritarren eta animalien antzezlana gustatu zait gehien umeak taula gainera igo direlako".

ARRASATE

Amaia antzokia lepo eta MUko ikasleak harro, tituluen banaketa ekitaldian

Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarra gonbidatu zuten hitzaldirako

Gazteak taulagainean pozik, ikasketa tituluak eskuartean dituztela. | U.M.

U.M. | ARRASATE

Dotoretasunak eta gaztetasunak bete zuten egubakoitzean Amaia Udal Antzokia, Mondragon Unibertsitatearen diploma banaketa ekitaldian. 261 ikasle zeuden deituta ikasketa amaierako diplomak har zitzaten. Seinaka taula-gainera igo eta pozik eta harro jaso zituzten diplomak, guraso eta lagunen txalo artean.

Gailurra barik, bidegintza

Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarrak egin zuen ekitaldiko hitzaldia. Bizimoduan eta lanean jarduteko kalitatea eta profesionaltasuna aldarrikatu zituen mendizale ezagunak, gaur egun geroago eta gehiago gailentzen den gailurra egitearen garrantziaren parean. Eta bidegintzaren garrantzia eta aberastasuna nabarmendu zituen.

OÑATI

Saturno eta ilargiko kraterrak begibistan, Oñatiko behaketa astronomikoan

U.M. | OÑATI

Behaketa astronomikoetarako zaletasun handia dagoela ikusi da egubakoitzean Oñatin. 100 bat lagunek bat egin zuten Ulmaren deialdiarekin eta egubakoitz gauaren zati handi bat gure zerua arakatzen eman zuten gustura asko, euren kontakizunaren arabera.

Ikusi eta ikasi

"Saturno eta Ilargiko kraterrak teleskopioz ikusteaz gain, planisferioak zela erabili erakutsi ziguten Ilatargi Astronomi Elkarteko kidiek. Bestalde, hainbat azalpen eman zituzten konstelazio eta ilargiaren ingurukoak. Egia esan, oso interesgarria izan zen", kontatu dute.

Gazteak teleskopiotik begira, egubakoitzean. | AGURTZANE BASTERRA

DEBAGOIENA

Debagoieneko Euskalakariak hasi dira eguenerako motorrak berotzen

- Mendi martxa, antzerkia, musika, pintxoak... Dena, Korrika heltzear dela gogorarazteko
- Eguenean 05:05ean iritsiko da Korrika Elgetara, eta Gatzagan agurtuko dugu

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Hasi da atzerako kontaketa. Hiru egun barru euskararen aldeko lasterketa garrantzitsu eta jendetsuenak Debagoiena zeharkatuko du. Eguenean izango da egun handia, baina gure ibarreko Euskalakariak dagoeneko hasi dira motorrak berotzen. Aste bukaeran asko izan dira Korrika kulturalaren barruan egin diren ekimenak.

Aretxabaletan, lehenak

Aretxabaletan egubakoitzean bertan hasi zituzten ospakizunak. Umeendako jaialdia egin zuten, aurpegiak margotuz eta Korrika 17ko pinak eginez. Umeen ostean nagusien txanda etorri zen; herriko plazan txistorra mokadutxoak jan zituzten ardoarekin eta trikitilarien doinuek lagunduta. Eguna amaitzeko Arrasateko Ain_1 taldeak kontzertua eskaini zuen Arkupeko Zaraia aretoan.

Aramaion ere jaten eta edaten ospatu zuten Korrika iristear dela. Basurde eta orkatza pintxoak jan zituzten zapatu arratsaldean herriko plazan, eta patata tortilla pintxoak sagardoarekin kultura etxe inguruan. Horrez gain, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzek kontzertua eskaini zuten Sastiña ermitan.

Domekan, gehiago

Arrasaten atzo eguna goibel esnatu zen arren, irribarretsu hasi zuten Korrika kulturalaren mendi martxan parte hartu zutenek. 09:30ean Arbolapetatik abiatu, Oñati aldera segi, Zubillagatik buelta egin eta hiru bat orduko ibilbidea egin zuten. Gero, 12:30ean Herriko plazan mokadutxoa egin zuten trikitilariek lagunduta. Eguna bukatzeko, Amaia antzokian *Sekula Bai* antzerki eta kabareta egon zen.

Elgetan berriz, herri bazkaria egin zuten atzo Oskarbi elkartean eta 16 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzera.

Aretxabaletan haurrendako jolasak egin zituzten eta Korrika 17ko pinak ere egin zituzten. | JULIO CALLEJA

EGITARAUA

ELGETA

APIRILAK 14

05:05 Herriko plazan harrera Korrikari.

ANGIOZAR

APIRILAK 14

05:40 Ongi etorria Korrikari herriko plazan eta gosaria Pagomendin.

BERGARA

APIRILAK 13

15:20-17:00 Korrika Txikia, jolasak eta txokolatada.

APIRILAK 14

06:25 Korrikari harrera.

ANTZUOLA

APIRILAK 12

18:00 *Zer egin?* hitzaldia Torresoroan, Larraitz Madinabeitiarekin (EMUN).

APIRILAK 13

12:00 Korrika Txikia.

APIRILAK 14

06:55 Korrikari harrera Altzarte parean.

OÑATI

APIRILAK 13

14:30 Korrika Txikia.

17:30 Ekitaldi berezia herriko plazan. Txokolatada eta ondoren, kalejira trikitilariekin eta Oñatz dantza taldekoekin.

APIRILAK 14

09:20 Korrikari harrera Udanan.

10:20 Korrikari harrera Foruen Enparantzan.

ARRASATE

APIRILAK 12

19:00 Euskarazko film laburren zirkuitua Kulturaten.

APIRILAK 14

11:00 Korrikari harrera San Isidron.

11:30 Traka Monterronen.

12:30 Poteo librea herriko tabernetan zehar.

17:00 Merienda Herriko plazan.

17:30 Txatxilipurdirekin jolasak Herriko plazan.

18:00 Konpartsa txikia herriko kaleetan zehar.

18:30 Ekitaldi berezia eta Patxi Uribarreni omenaldia Herriko plazan.

19:30 DJ Elvis Caino Herriko plazan.

22:00 Gose eta Anger gaztetxean.

ARAMAIO

APIRILAK 14

12:20 Herriko sarreran harrera Korrikari.

ARETXABALETA

APIRILAK 14

11:00 Korrika Txikia Pausokatik abiatuta.

13:30 Korrikari harrera Lausitta kalean.

ESKORIATZA

APIRILAK 14

13:45 Korrikari harrera

17:00 DJ Jon Urbietarekin musika eta dantza.

18:00 Txokolatada.

19:00 Kantu pintxo poteoa.

APIRILAK 15

17:00 Liburu truke azoka eta aurpegi margotzea herriko plazan

22:30 *Euskarazetamol* antzezlana Unibertsitateko areto nagusian.

GATZAGA

APIRILAK 14

14:25 Korrikari harrera Marulandan.

Elgetako Oskarbi elkartean bazkaria egin zuten atzo Korrika iristear dela ospatzeko. | JULIO CALLEJA

MERCEDES IÑARRA
ARRASATE

"Eskoriatzan egingo dut Korrika, ordu aldetik ondoen han datorkidalako. Ahal den guztietan parte hartzen dut, oso momentu polita izaten delako. Gaurko mendi martxa ere oso ondo egon da eta asko ikasi dugu gainera".

UNAI BERGARETXE
ARRASATE

"Lanean egongo naiz, baina ingurutik pasatzen denean irtengo naiz animatzera eta harrera egitera. Aurten ezingo dut testigua eraman. Korrika ezingo dudanez egin, gaur mendi bueltatxoa egitera etorri naiz Korrikaren alde".

ANUSKA ELORTZA
ARRASATE

"Urtero ahalegintzen naiz Korrikan parte hartzen, baina aurten Arrasatetik pasatuko den orduan lanean egongo naiz. Dena dela, ahalegin guztiak egingo ditut kanpora irten eta zarata apur bat egiteko".

Gaur zabalduko dute erabilitako altzari eta antzekoen saltoki berria

Nafarroa etorbidean zabalduko du denda berria Emaus fundazioak

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasateko eta ibarreko bigarren saltokia zabaldu behar du gaur, astelehena, Emaus fundazioak. Bigarren eskuko jantzien saltokiaren alboan zabaldu behar dute berria, Nafarroa etorbidean, beraz; oraingo hau erabilitako altzari, liburu eta etxeko bestelako tresnak saltzeko izango da.

Bi langile altzarien denda berriko produktuak kokatzen, gaur, astelehena, guztia gertu egoteko. | EMAUS

Produktu ugari batuta

"Bi talde ditugu Arrasate inguruan. Orain dela bi hilabete hasi ziren lanean. Publizitatea bidali zuten etxeetara gure saltokiaren berri emanez, eta produktuak jasotzeko gertu gaudela esanez. Telefono zenbaki batera deitu behar da produktuen berri emateko, (902 45 58 55), eta gu joaten gara etxez etxe batzen, doan. Herritarrek erantzun dute, eta dagoeneko badugu makinatxo bat gauza batuta: egongela osoak, sofak, armairuak, logela osoak, bizikletak, liburuak, osagarriak... Horiek ipiniko ditugu salgai gaurtik aurrera", kontatu du Oihana Agirrek, Emaus fundazioko kudeaketa arduradunak.

Prezio interesgarriak

Oso prezio onak iragarri ditu gainera: "10 eurotik hasi eta 90 eurora bitartekoak dira gehienak. Garestiena, esaterako, egongelarako altzari osoa da, egur oso onekoa. Horrek 150 euro balio du. Baina badago mahai txiki bat erostea, 15 eurorengatik... produktuen egoeraren arabera ipintzen dizkiegu prezioak. Bestalde, ondo badaude daudenetan ipintzen ditugu salgai; oso gaizki badaude, berriz, garbigunera botatzen ditugu; eta altzari eta liburuez gainera, etxeko tresna elektrikoak eta etxeko edozein produktu salduko dugu", gaineratu du.

Lanpostuak sortzeko bidea

Erosleei produktu merkeak eskaintzeaz gainera, Emaus fundazioaren saltoki mota hauek lanpostu berriak sortzen dituzte. "Une honetan Sin-Desperdizioko tailerrean (bigarren eskuko jantzien saltoki-tailerrean) hiru pertsona finko daude. Bigarren eskuko altzarien saltokia, berriz, sei hilabeterako esperientzia pilotua da hasiera batean, eta ordura arte 7-8 bat langile ibiliko dira, dirulaguntzak ematen dizkigutelako. Gero, asmoa da pertsona bat edo bi geratzea. Izan ere, halako ekimenak dirulaguntza barik ez dira bideragarriak", adierazi du Oihana Agirrek, Emaus fundazioko kudeaketa arduradunak.

Egunero zabalik

Gaur zabalduta, aurrerantzean astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan 10:00etatik 13:30ak arte izango da zabalik denda berria.

Hain zuzen, Gipuzkoan Emausek izango duen erabilitako produktuen laugarren saltokia izango da Arrasatekoa. Gainerakoak Donostia-Irun inguruan daude.

Denda berria Arrasaten zabaltzearen arrazoia, Agirreren esanetan, Arrasateko Udalarengandik jasotako "babes handia" da.

IRATI GOITIA

20. urteurrenaren oihartzuna

Garagartza-Besaide-Tellamendi-Gesalibar mendi martxarekin hasi, poteoarekin segi, herri bazkarian indarrak berreskuratu eta gauean ska doinuekin dantza egin. Horixe egin zuten, besteak beste, zapatuan 80 bat lagunek AGAKOren 20. urteurreneko ospakizun ekitaldien barruan. Ospakizuna kalera ateratzea izan zen antolatzaileen helburua eta kalean sumatzen zen giroarekin lortu ere lortu zutela esan genezake.

EAJk zehaztu du Arrasateko zerrenda

U.M. | ARRASATE

Arrasateko EAJk zehaztu ditu Juan Karlos Garitano alkategaiari laguntzen joango diren alderdikideen izenak. Oraingo asteko eguenean, apirilaren 14an, aurkeztuko ditu jendaurrean, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 19:30ean.

Gazteak eta esperientzia

Honakoak dira aurrenengo seiren izen eta ezaugarriak: bigarren Maria Ubarretxena ipini dute; 30 urteko urretxuarra, baina Arrasaten ezkonduta dagoena. Antzuolako Goizperren egiten du lan.

Hirugarren Ibon Arrupe izendatu dute. 37 urteko arrasatearra eta JMAan lanean diharduena.

Juan Ramon Mendieta da laugarrena; 55 urteko arrasatear autonomoa da bera.

Amaia Zeziaga farmazialaria dator bosgarren lekuan, gaur egun ere zinegotzi dena.

Eta Rafa Uribarren diputatua ere sartu dute zerrendan, seigarren lekuan.

Iazko jardunaldietan jende dezentek hartu zuen parte. | ARIZMENDI

Alzheimerra aztergai, Arizmendik eta MUk antolatutako erizaintzako jardunaldietan

U.M. | ARRASATE

Eguaztenean, apirilaren 13an *Alzheimerra: aurrekoa eta ondorengoa* izenburua duten erizaintzako jardunaldiak egingo dituzte Kulturaten. 09:00etan hasiko dira jardunaldiak eta 16:00etan izango dira azken ekitaldiak.

Erizaintzako laguntzaileei zuzendutako ekimen horren helburua da gizartean orokorrean, eta osasungintzan bereziki, sortzen diren "erronka, betebehar eta erantzukizun berriei" aurre egiten laguntzeko bidea lantzea.

Parte hartzeko, gaur, astelehena, eman daiteke izena: 943 77 20 25 edo *lanbide@arizmendi.ikastola.net*.

Medikuak eta senitartekoak

Mota askotako adituek parte hartuko dute ekimenean. Esate baterako, Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaletako profesionalek (neurologo eta psikogeriatriako unitatearen ikuskatzaileak) edo Afagiko kideek (Alzheimerra duten gaixoen senideen elkartea), tartean, elkarteko presidenteak.

Arrasateko Ahotsak proiektuan parte hartu dutenei omenaldia, etzi

- Herriko euskara eta ahozko ondarea mantentzea du helburu ekimenak
- Eguazteneko omenaldian grabazioa eta diploma emango diete hizlariei

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Badihardugu euskara elkarteak aspaldi jarri zuen martxan Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatzeko proiektua. Arrasateren kasuan azken hiru urteetan hainbat elkarrizketa egin diete, AEDrekin eta Udalarekin elkarlanean, gure hizkeraren historia bizia diren herriko adinekoei. 85 elkarrizketatu, hain zuzen. Interneten *www.ahotsak.com/arrasate* webgunean ikusgai daude elkarrizketok. 135 dira jasotakoak, baina horietatik 50 bat duela 20 urte ingurukoak dira. Gainera, oraindik internetera igo ez diren beste lau elkarrizketa ere egin dira. Izan ere, Ahotsak proiektua 2012an amaitzea zen hasierako asmoa.

DATUA

85

GONBIDAPEN BIDALI DIRA

Udalak 85 gonbidapen bidali ditu. Askok ez dute erantzun baina beste herrietan egin direnean gertatu izan da erantzun ez duten gonbidatu asko agertu dela. Beraz, gehienak agertzea espero du Udalak.

Esker ona emateko eguna

Eguaztenean, apirilak 13, omenaldia egingo diote Arrasateko Ahotsak proiektuan parte hartu dutenei. Egitasmoa aurkezteko balio izango du, baina ekitaldiaren helburu nagusia da, Jose Felix Diaz de Tuesta Udaleko euskara teknikariaren arabera, elkarrizketatuei esker ona ematea: "Eskertuko zaie bere garaian baiezkoa emateagatik eta euren testigantza utzi digutelako". Horretarako elkarrizketaren grabazioa ekitaldian bertan emango diete bertara agertzen diren protagonistei –edo euren senideei– eta horrekin batera, diploma bat. Ekitaldia Kulturateko areto nagusian izango da, 18:30ean.

85 gonbidapen bidali ditu –guztiak 75 urtetik gorakoak dira– Udalak baina gehienek ez dute erantzun: "Badihardugukoekin egon gara eta azaldu digute beste herri batzuetan egin direnean erantzun ez duten asko agertu izan direla; beraz, gehienak Kulturaten izatea espero dugu", azaldu du Diaz de Tuestak.

"Gehiago ere esan nezakeen"

Eguazteneko omenaldian egongo denetako bat da Soledad Abarrategi. 79 urte ditu eta Karmen ahizparekin –86 urtekoa– batera joango da. Udaletik gutuna jaso zuten etziko omenaldira joateko gonbidapenaz: "Joango gara, gure aldetik behar den guztia jarriko dugu", dio *Sole*-k. Elkarrizketan "gustura" aritu zen: "Ondo egon zen, baina gehiago ere esan nezakeen. Hurrengo egunean hainbat kontuz akordatu nintzen. Grabazioa gustu handiz hartuko dut, bai horixe".

Aste Santu osteko pazko astean ere ez da aspertzeko astirik izango gazte txokoetan

Apirilaren 26tik 30era egunero ekintza ezberdinak antolatu dituzte

J.B. | ARRASATE

Azken urteetako ohiturari jarraituz, gazte txokoek eskaintza berezia prestatu dute Aste Santuko oporretarako. Pazko asterako prestatu dute egitaraua, 12 eta 17 urte arteko *gaztetxokeroak* oporretan daudela aprobetxatuz. Hau da, apirilaren 26tik 30era bitartean ez dute aspertzeko astirik izango. Gainera, aurtengo ekintzek San Andres auzoko jaiekin egingo dute bat eta azken bi egunetako –hilaren 29a eta 30a– ekintzak San Andresko gazte txokoan egingo dira. Hala, auzoko jaiak girotu gura dituzte. Halaxe azaldu du Lander Juaristi Txatxilipurdiko dinamizatzaileak: "Jaiak hilaren 30ean hasten dira, baina gu egun bat aurreratuko gara, egubakoitza dela aprobetxatuz, jaien hasiera berotzeko".

Askotariko ekintzak

Apirilaren 26an ginkana erraldoia egingo dute Monterronen (17:00). Ez da lehen aldia; horrek gaztetxoen gustukoa dela erakusten du: sei laguneko taldetan hainbat froga egingo dituzte eta horiek guztiak modu egokian gainditzen azkarrena den taldea izango da txapeldun. Herriko hiru gazte txokoetan edo Gazte bulegoan eman behar da izena. Hilaren 27an, zaldian ibiltzeko irteera egingo dute eta hilaren 28an, berriz, bizikleta irteera. Bi ekintza horiek nola gauzatu zehazteko datozen egunetan elkartuko dira, nola ez, gazte txokoetan.

Eta San Andresko jaien barruan, hilaren 29an bazkaria eta disko festa –13:00etatik aurrera– egingo dute. Bazkarirako txartelak bi eurotan jarriko dituzte salgai Azkenik, apirilaren 30ean, patata tortilla lehiaketa egingo dute, 11:00etan hasita. Antolakuntzak patatak, arrautzak eta olioa jarriko dute; osagai sekretuak *gaztetxokeroek* jarri beharko dituzte. Irabazleendako saria egongo da.

Iaz moduan, zaldian ibiltzeko irteera egingo dute gazte txokoetakoek apirilaren 27an. | GOIENA

Nerabeen gurasoendako ikastaroa antolatu dute

Lau saio: maiatzaren 5, 12, 19 eta 26an; izena eman behar da apirilaren 15a baino lehen

J.B. | ARRASATE

Nerabezaroa ez da garai erraza izaten. Ez nerabearendako eta ez ezta gurasoendako ere. Bada, Udaleko Prebentzio zerbitzuak ikastaroa antolatu du 12 eta 18 urte arteko nerabeak dituzten gurasoei begira.

Lau saio izango ditu ikastaroak: maiatzaren 5ean, 12an, 19an eta 26an, hain zuzen. Ikastaroko saio guztiak Kulturateko Loramendi gelan izango dira, 18:00etatik 20:00etara.

BAZ edo Gizarte zerbitzuetan

Izena eman gura duten gurasoendako egubakoitza, apirilak 15, da azken eguna, eta izenemate orria beteta entregatu beharko dute Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailan edo Biztanleen Arreta Zerbitzuan. Agipad elkarteko psikologoak egingo ditu moderatzaile lanak, izan ere, ikastaroaren antolatzaileek gura dute ekimena parte-hartzailea izatea. Hau da, gurasoak entzule soil izatea baino nahiago dute euren esperientzia kontatzea.

Lehen saioan protagonisten gainean egingo dute berba, hau da, nerabeen gainean. Bigarrenean, berriz, seme-alabak hezterako orduan bikotearen artean adostasuna nola lor daitekeen –akordioa posible bada, behintzat– aztertuko dute. Maiatzaren 19ko saioan, ordea, nerabeei ezarri beharreko arauak eta mugak izango dituzte hizpide eta azken saioan, nerabeen gaueko irteeren gainean egingo dute berba.

Ortu ekologikoak hizpide hilaren 16an, Bedoña Baturi esker

Bedoña Batu elkarteak ortu ekologikoa zer den, etxean konposta nola egiten den edo ortuan izaten diren gaixotasunei nola aurre egin daitekeen irakatsiko du apirilaren 16an, 9:30etik 13:00etara, Bedoñako eskola-etxean antolatu duen ikastaroan. Izena eman behar da hilaren 13a baino lehen, 688 88 79 09ra deituta. Auzokoak ez direnendako, sei euro.

Padel ikastaroa ekainera arte, AKE elkartearen eskutik

AKE tenis elkarteak padel ikastaroa antolatu da apirila eta ekaina bitartean, Musakolako kiroldegian. Saioak martitzenetan izango dira, bi multzotan banatuta: hasiberriak 17:00etatik eta 18:00etara, eta euren jokoa hobetzea gura dutenek, berriz, 18:00etatik 19:00etara. Izena emateko edota informazio gehiagorako 660 436 429 telefono zenbakira deitu behar da.

Erramu-zapatuan, herri bazkaria Udal Pilotalekuan

Bazkarirako txartelak salgai daude ohiko tokietan; antolatzaileek 400 lagun batzea espero dute

EDU MENDIBIL | BERGARA

Erramu-zapatuko bazkarirako txartelak salgai daude Deporren, Bulebarren, Frontoiko tabernan eta Euxebion. Herri bazkaria Udal Pilotalekuan izango da zapatuan, apirilaren 16an, 14:30ean. Prezioa 16 euro da, 12 euro 16 urtetik beherakoendako, eta ondoko menua izango dute frontoian batutakoek: sarrerakoak, tripotxa, bildotsa entsaladarekin, postrea eta kafea.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, 400 lagun inguru batzea da asmoa. Salmenta ondo doa eta txartela lehenbailehen hartzea gomendatzen dute. Egubakoitza izango da horretarako azken eguna eta soberan geratzen direnak zapatu goizean salgai jarriko dituzte Udal Pilotalekuko sarreran. Hirugarren urtez egingo dute Erramu-zapatuko herri bazkaria Udal Pilotalekuan.

Aurreko urteetan bezala, Udalak mahoiz janzteko gonbidapena egin die herritarrei.

Argazkian, iazko herri bazkariko irudi bat. | GOIENA

Puntako bertsolariak bezperan

Erramu-zapatuaren bezperan, hilaren 15ean, puntako bertsolariekin jaialdia izango da Udal Pilotalekuan bertan. Andoni Egañak, Aitor Sarriegik, Jexux Mari Irazuk, Onintza Enbeitak eta Odei Barrosok jardungo dute. Gai-jartzailea Irati Agirreazaldegi elgoibartarra izango da eta jaialdia 22:30ean. Udal Pilotalekuko leihatila ordubete lehenago zabalduko dute. Sarrerak bost eurotan jarriko dituzte salgai.

Bestalde, Erramu-zapatuan ohiko trafiko aldaketak eragingo ditu feriak. Hori dela eta, zapatuan autoa ahalik eta gutxien erabiltzea eta egun horretarako espresuki jarritako arauak betetzea eskatu du Udaltzaingoak. Feria 09:30ean zabalduko dute eta arratsaldera arte ekitaldiak izango dira, herri erdian nagusiki. Arratsaldean umeendako zezentxoak egongo dira Seminarioan.

Apirilean Musika: hainbat ekitaldi gaurtik

E.M. | BERGARA

Apirilean Musika egitarauarekin jarraituz, gaur, astelehena, Patxi Montero irakaslearekin eskutik Europako dantzak jorratzeko aukera izango da Musika Eskolan, 16:45etik 17:30era. Jarraian, musika tresnak ezagutzeko saioa izango da eta 18:00etan Flash Bach taldearen emanaldia Santa Marinan.

Bihar, martitzena, Aitor Oleak *Organoa eta bere izaera* hitzaldia egingo du Santa Marinan, 18:00etan, eta eguaztenean Musika Eskolako organo ikasleen entzunaldia, ordu eta toki berean. Eguenean, Patxi Monterok beste dantza saio bat gidatuko du Musika Eskolan, 16:45ean. Era berean, ikasleen emanaldiak izango dira Zabalotegin bihar 18:00etan eta eguenean 19:00etan eta Musika Eskolan gaur eta etzi, 18:30ean. Eguenean, hilaren 14an, Jakoba Errekondok eta Asier Galdosek hitzaldia izango dute udaletxean, 19:00etan: *Euskal Herriko paisaiaren historia. Baserriaren garrantzia gure ingurunean*.

Jaietako sukaldaritza eta goitibehera lehiaketak antolatzeko bilerak bihar

E.M. | BERGARA

Udaren atarian, ekaineko bigarren aste bukaeran iritsiko dira Mendekoste jaiak aurten. Ekainaren 10etik 14ra bitartean ospatuko dira Pazkoak eta Udaleko Jai batzordea hasi da dagoeneko prestaketa lanetan. Horrela, bihar, martitzena, egitaraua zehazten joateko asmoz, pare bat kontu izango dituzte aztergai kultura etxean: alde batetik, sukaldaritza lehiaketa antolatzeko beste bilera bat egingo dute Errotalde jauregian, 20:00etan hasita. Bergarako elkarte guztiak animatzen dituzte aipatutako bileran parte hartzera.

Goitibehera proba

Bestalde, iazko jaietan goitibehera txapelketa jokatu zen San Martzialen, eta, orduan izandako harrera ona dela eta, aurten bigarren ekitaldia antolatzea da udal arduradunen asmoa. Besteak beste, laguntzaile bila dabil Udala, joan den urteko ekitaldian laguntzaile falta izan zelako hutsuneetako bat. Gaiarekin interesatutakoei dei egiten diete biharko bilerara. Kultura etxean izango da, 18:30ean.

San Joxepekoek irailean Cadizera bidaia egingo dute

San Joxepe erretiratuen elkarteak Andaluziara, Cadizera bidaia antolatu du irailerako. Cadiz hiriburua eta inguruko herri zuriak ezagutzeko irteera egingo dute irailean, hilaren 19tik 26ra.Izenematea apirilaren 11tik maiatzaren 31ra bitartean egin ahal izango da erretiratuen elkartean.

Bergarako EAJren zerrenda aurkeztuko dute bihar Batzokian

Aintzane Oiarbide Bergarako EAJko zerrendaburuarekin batera, gainerako hautagaiak aurkeztuko dituzte bihar, martitzena, 19:00etan. Ekitaldia Bergarako Batzokian izango da eta bertan parte hartuko du Gipuzku Buru Batzarreko presidente Joseba Egibarrek.

Jarduneko gaztetxoak Baskonia animatzen

Jarduneko Txapligu taldeko (asteburuko aisialdia taldea) 43 neska-mutiko eta hiru begirale Gasteizko Buesa Arena pabiloian izan ziren apirilaren 3an, Caja Laboral eta Estudiantes taldeen arteko partiduan. Gasteiztarrak erraz nagusitu ziren (89-66) eta Jardunekoek Aker maskotarekin ospatu zuten partidu amaieran.

JARDUN

Xabier Alberdi eta Carlos Rilova | Historian doktoreak

"Mende bateko oreka politikoaren eragile nagusia izan zen Madariaga"

- Seminarioko indusketa-arkeologikoan jardun dute Alberdik eta Rilovak
- Perun, Kontuen Auzitegiko kontatzaile nagusia izan zen Andres de Madariaga

EDU MENDIBIL | BERGARA

Carlos Rilova (Donostia, 1968) eta Xabier Alberdi (Zarautz, 1969) historialariek Andres de Madariaga bergarar ospetsuaren gaineko hitzaldia egin zuten eguaztenean udaletxean. Seminarioko elizako ikerketa historiko-arkeologikoan jardun dute biek 2009ko uda ezkero. Andres de Madariagak finantzatu zuen aipatutako eliza XVII. mendean, eta, indusketa lanak egiteaz gain, hilobiaren bi estalki eder berreskuratu eta zaharberritu dituzte Alberdik eta Rilovak. Era berean, aurkitutako gorpuen azterketa antropologikoa eta artxibo ikerketa sakona burutu dute azken urte eta erdian.

Carlos Rilova eta Xabier Alberdi, eguaztenean udaletxean ateratako argazkian. | E.M.

Zelako garrantzia izan zuen Andres de Madariagak XVII. mendeko politikan eta ekonomian?

Garrantzi benetan erabakigarria. Kontuan izan behar da Limako Kontu Auzitegiko buru moduan Potosiko meatzeetan ateratzen zen zilarra kontrolatzen zuela. Zilar hori zen garai hartako aberastasun eta botere iturri nagusia. Zilar hark ahalbidetzen zuen Europako estatuen nagusitasuna edo porrota; beraz, hori guztia Madariagaren eskuetan zegoen.

Nola iritsi zen Calatravako Zaldun eta Peruko Kontuen Auzitegiko kontatzaile nagusi izatera?

Limako merkatari garrantzitsuenetako bat zela, 1673an Limako merkatarien Kontsulatuko ordezkari moduan joan zen Madrilera Carlos II.a erregearekin akordio ekonomiko bat sinatzera. Ez zuen bidaia hura alferrik galdu Madariagak; garai hartan Espainia Frantziaren aurka ari zen gerran eta Ogasuna diru premian zegoen gudarien soldatak ordaintzeko. Madariagak urrezko 10.000 ezkutuko dohaintza egin zion erregeari. Ordainetan, erregeak Limako Kontu Auzitegiko kontulari nagusi izendatu zuen. Ekonomiaren eta politikaren ikuspegitik gailurrera iritsita, sozialki ere berretsi egin nahi izan zuen bere goreneko maila eta Calatravako Zaldun izendatua izateko beharrezko gestioak hasi zituen berriz Limara bueltatu aurretik.

Haren biografiatik zer nabarmenduko zenukete?

Esandakoak nahiko nabarmentzekoak dira, baina, agian, Madariaga euskal historiaren eredu ederra dela esan dezakegu: nahiz eta munduko historia ulertzeko haren ekarpena oso garrantzitsua izan, orain gutxi arte ez genuen Madariagari buruz ia ezer ezagutzen. Gertakari hau orokorra da euskal historiaren ezagutzari dagokionez. Euskaldunok munduari egindako ekarpenak –horietako asko benetan erabakigarriak gertatu direnak– ez dira ezagunak.

"Madariagaren alaba eta emaztea lehenago hil zirenez, ondasunen arrastoa galdu da"

Noiztik ezagutzen duzue Madariagaren historia?

Ikerlana egiten ari ginela ezagutu ahal izan dugu. Gehien inpresionatzen gaituena, agian, XVI, XVII eta XVIII. mendeetako euskaldunek zuten ekonomia eta politika gaitasun ikaragarria da. XVII. mende bukaeran indarrean jarri zen Europako estatuen arteko oreka politikaren, mende oso batez indarrean egon zen oreka politikoaren, eragile nagusienetako bat izan zen Andres de Madariaga bergararra. Oreka politika haren lehenengo emaitza Frantziako Luis XIV.aren, *Eguzki erregearen*, egitasmoen porrota izan zen, besteak beste.

"Haren dohaintzari esker 1678an amaitu zuten jesuiten eliza Seminarioan"

Madariagaren azken urteei buruz ezer gutxi dakigu, ala?

Dakiguna da osasunez sendo zegoela, bere lanean buru-belarri ari zela, eta 71 urterekin bat-batean hil zela. Madariagaren heriotzaren arrazoia ez dakigu; ezta Ameriketan zituen ondasunekin zer gertatu zen ere. Haren ondorengo zuzenak, alaba eta emaztea, hura baino lehenago hil ziren, eta horrela galdu zen ondasun haien jarraipena.

"Seminarioko ekarpen zientifikoendako lehen hazia erein zuen Madariagak"

Zein izan zen Madariagaren ekarpen nagusia, zuen ustez?

Agian, ekarpen nagusiena Bergaran eraiki zuen Jesuiten Eskolako eliza-mausoleo ederra da. Eliza hark 50 urte zeramatzan eraiki ezinik, beti diru eskasiarekin, eta Madariagaren dohaintzari esker lauzpabost urteren buruan amaitu ahal izan zuten, 1678rako. Jesuiten Eskolako diru arazoak betiko konponduta geratu ziren, eta, ondorioz, prestigio handiko irakaskuntza garrantzitsu bilakatu zen. Ikastetxe hura izan zen Errege Seminarioaren hazia. Beraz, esan dezakegu Madariaga izan zela gerora Seminarioak burututako ekarpen zientifiko funtsezkoak gauza zitezen hazia erein zuena.

Zeintzuk izan ziren Seminarioko eliza finantzatzeko arrazoiak eta zergatik kokatu zen eliza hantxe? Zein da elizaren berezitasun handiena?

Madariagak eliza-mausoleo bat sortu zuen jesuiten elizan. Mausoleo izaera nabarmena da benetan; izan ere, jesuiten elizetan ohikoa denaren aurka, elizaren erdi-erdian kokatu zuten Madariagaren hilobia. Bergarako jesuiten elizaren antzerako oso adibide gutxi dira munduan; benetan artelan bakarra eta aparta da. Eliza-mausoleo hau eraikitzearen arrazoi nagusia izan zen ohorea eta prestigioarekin zuen zerikusia. Madariagaren oroipena ohoratzeko eta prestigiatzeko eraiki zuten.

Madariagaren mausoleoan zer aurkitu duzue?

Aurkikuntza ikusgarriena hilobiaren estalki ederra da; harlauzez eraikitako artelan ikusgarria, Madariagaren armarri eta guzti. Azaldu ez dena haren gorpua da. Hau da, Madariaga bera ez zuten hemen lurperatu. Are gehiago, hilobi hori erabiltzeko eskubide ohoragarriari Bergarako senitartekoek ere uko egin zioten, On Andresen oroimena ez nahasteko -edo. Ondorioz, benetako *zenotafio* bilakatu zen, erabilgarria ez den hilobi ohoragarri. Era berean, zera aurkitu dugu: Madariagaren historiarako funtsezko biografia, Laskurainek XIX. mendean eraikitako lurzoru ederra, jesuiten komunitateko ehorzketa metodo berritzaileak, Erdi Aroan Bergarak zituen ezaugarriei buruzko datu berriak...

Gremioen gida



Jatetxeen gida

NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida



Profesional liberalen gida



Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

San Martingo babes ofizialeko etxeen baldintzak onartu dituzte

- 26 etxebizitza zozketatuko dituzte San Martin auzoko 4. eta 5. zenbakietan
- Lau etxe gordeko dituzte desjabetu egin dituzten pertsonendako

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

San Martin auzoko 4. eta 5. zenbakietan egiten diharduten babes ofizialeko etxeen zozketarako baldintzak onartu zituzten martxoko osoko bilkuran. Guztira, 30 etxe egiten dabiltza, eta horietatik 26 zozketatuko dituzte. Gainerako lau etxeak desjabetu egin dituzten pertsonendako izango dira; alegia, emergentzietarako erabiliko ditu Udalak. Lau etxebizitza horiek dira San Martin auzoko 4. zenbakiko 2-A, 2-B, 2-C eta 2-D.

Zozketa bidez egokituko dituzten babes ofizialeko etxe guztiek hiru logela dituzte; elbarriendako biak izan ezik. Gainera, garajeak eta etxebizitzei lotutako trastelekuak egingo dituzte.

Horiek etxearekin batera erosi beharko dituzte eskatzaileek.

Lau kupo

Zozketa egiteko prozeduran ez dago aldaketarik, aurretik egindako beste batzuekin alderatuz gero. Lau kupo berezituko dituzte: lehen kupoan, mugikortasun urria eta iraunkorra dutenak sartuko dira, eta horien artean bi etxe zozketatuko dituzte; bigarren kupoan, familia ugariak sartzen dira. Eskatzaileen artean beste bi etxe banatuko dituzte.

Etxebideren zerrendan lau urte baino gehiagoko antzinatasuna dutenak hirugarren kupoan sartuko dira. Bi etxebizitza zozketatuko dituzte; azkenik, gainerako 20 etxeak kupo orokorrean sartuko dituzte. Hasierako hiru kupoetako etxeren bat libre geratzen bada, kupo orokorrean zozketatuko dute. Etxe guztiak adjudikatu ondoren, erreserba-zerrenda egingo dute.

Uko egindakoei, zigorra

Etxea egokitu arren uko egiten duten eskatzaileak zigortu egingo dituzte. Behar besteko arrazoi barik uko egiten dutenak Oñatiko Udalak antola ditzakeen edozein motatako babes publikoko etxeen zozketatik kanpo geratuko dira hiru urtean. Aldiz, uko egiten badiote arrazoi ekonomikoengatik, zigorra urtebeterako izango da.

Baldintzak ikusgai daude alegazioak egin ahal izateko.

San Martin auzoko etxe guztiak bukatu barik daude. | MIREIA BIKUÑA

Korrika Txikia egingo dute etzi herriko kaleetan

M.B. | OÑATI

Maitatu, ikasi, ari...euskalari leloarekin helduko da hilaren 14an Korrika Oñatira. Motorrak berotzen hasteko hainbat ekitaldi egin dituzte dagoeneko, eta egingo dituzte asteon.

Hori horrela, etzi, eguaztena, Korrika Txikia egingo dute. 14:30ean elkartuko dira ikastetxeetako neska-mutikoak. Foruen plazan hasiko dute ibilbidea, eta gero: Kale Barria, Etxaluze, Santa Marina, Bakardadeko Ama kalea, Maiatzaren Bata plaza eta Foruen plaza.

Ondoren, 17:30ean, Korrika ekitaldia bera egingo dute. Besteak beste, Makalena, Pago-Uso eta Olaitturri elkarteek txokolatea banatuko dute. Era berean, herriko kaleak girotzeko, Oñatz dantza taldekoek kalejira egingo dute trikitilarien laguntzarekin. Eta ospakizuna bukatzeko, amaiera ekitaldia egingo dute plazan: dantza saioa egingo dute.

Udanatik sartuko da

Korrikaren tropel koloretsua egubakoitzean, hilaren 14an, helduko da Oñatira. Oñatiarrek lehen lekukoa hartuko dute Udanan, 09:20ean. Olakuatik sartuko dira herrian. Erdiko kaleak zeharkatu ondoren –plazara helduko dira 10:20an–, Kale Zaharrean behera egingo dute korrikalariek. Madalenatik Arrasaterako bidea hartuko dute Zubillaga zeharkatuta. Handik Elorregi aldera egingo dute.

OHARRAK

HITZALDIA

Errekalde Herri Eskolak antolatuta hitzaldia egingo du Iñaki Perurenak bihar, hilak 12, eskolako aretoan, 17:00etan. *Iñaki Perurena, mila aurpegi gizon bat* delako hitzaldia egingo du.

IPUIN KONTAKETA

Liburuaren Eguna ospatzeko ingelesezko ipuin kontaketa egingo dute bihar haur liburutegian, 18:00etan. 7-9 urte arteko neska-mutikoendako dira *My granny went to the market* eta *We all went in a safari* kontaketak.

POSTA BIDEZKO BOTOA

Maiatzaren 22an botoa eman ezin dutenek batzokian egin ahal dituzte tramiteak. Astelehenetik egubakoitzera egongo dira, 18:00etatik 20:00etara, posta bidezko botoa ematen laguntzeko. Informazio gehiago gura dutenek 943 78 01 17 telefonora dei dezakete edo batzokitik pasa.

Elkar Hezikoen elkar-trukea Holandako Goirle herriarekin

Elkar Heziko ikasleak Holandan egon dira. Elkar-trukearen itzulerako bidaia egin zuten martxoaren 27tik apirilaren 3ra arte Goirleko ikasleekin. Askotariko ekintzak egin zituzten, bai eskola barruan, eta baita kanpoan ere: hango sukaldaritzaren gaineko tailerra, arrauna kanaletan, Zeeland-era irteera...

ELKAR HEZI

ESKORIATZA-ARETXABALETA

Korrika Txikia eta ekitaldi mordoa eguenean

Eskoriatzan ez dute Korrika Txikirik egingo, baina buruhandiak, disko-jartzailea eta kantuak izango dira

M. ALTUBE | ESKORIATZA/ARETXABALETA

Korrika 17 abian da eguena ezkero, eta, astean, hilaren 14an, iritsiko da gurera, eguerdi partean. Hori ospatzeko lanean dabiltza herrietako Korrika Batzordeak, eta ekitaldiak antolatu dituzte eguenerako: Aretxabaletan, Korrika Txikia; eta Eskoriatzan, jai giroko ekitaldiak arratsaldean.

Korrikaren lekukoa Eskoriatzatik pasatzen orain dela bi urte. | GOIENA

Aretxabaletan, Korrika Txikia

Lekukoa iritsi aurretik, 11:00etan, herriko umeen txanda izango da eta Korrika Txikia egingo dute. Hona ibilbidea: Pausoka haur eskola; Andramari auzunea; Basabeazpi ikastola; Durana kalea; Herriko Plaza; Errekabarren kalea; Loramendi kalea; Araba ibilbidea; eta plazan bukaera. Gero bazkaltzera joango dira eguerdian iritsiko den lekukoari itxoiteko. Aramaiotik bueltan etorriko da Korrika (13:30) eta herria zeharkatu ondoren Eskoriatzarantz joko du.

Eskoriatzako ekitaldiak

Eskoriatzan ez dute egingo Korrika Txikirik baina ekitaldi mordoa antolatu dituzte. Lekukoa iritsi aurretik (12:00) salda eskainiko dute plazan, eta materiala saldu. 13:45ak inguruan iritsiko da Korrika eta ume, heldu eta nagusi, guztiek dute lagun egitera irteteko deia.

Arratsaldean jai giroak jarraituko du: buruhandiak kalean (16:30); musika plazan, Jon Urbieta disko jartzailearekin; txokolate beroa (18:00) –edalontzia norberak eroan dezala–; eta kantuan eginez pintxo-poteoa (19:00).

Egubakoitzean, hilak 15, ostera, *Euskarazetamol* antzezlana ikusteko aukera izango da unibertsitateko aretoan (22:30).

Autobusa Donostiara joateko

Korrikak domekan, hilak 17, bukatuko du ibilbidea Donostian, eta jai handia egingo dute. Hara joan gura dutenendako autobusa antolatu dute Debagoienean. Izena eman gura dutenek Inkernu eta Aldatz tabernetara jo dezatela Eskoriatzan eta Loramendi Elkartera Aretxabaletan. Azken eguna martitzena, hilaren 12a, da eta prezioa, 8 euro.

ARETXABALETA

Ibai osteko pasealekua egokitzen hasi dira egunotan

M.A. | ARETXABALETA

Deba ibaiaren beste aldean, Txarapeako etxeen azpiko aldean, pasealekua egokitzen hasi dira. Udalaren aspaldiko asmoa da kiroldegian hasi eta Lausittaraino joango den pasealekua egitea ibaiaren beste aldean, eta dagoeneko hasi dira lanok.

Kiroldegitik Iturrizar plazara

Lehen ere bazegoen pasealeku txiki bat Belorrieta auzunearen parean, eta hori txukuntzen dabiltza orain hondeatze -makinak. Hala, Loramendi kalean, Ibai Gain gastronomia elkarte parean, hasi eta Iturrizar plazaraino egokituko dute pasealekua Deba ibaiaren ertzean. Oraingoz, lurrak ateratzen dabiltza bertatik Bruesa enpresako langileak, eta gero, oinezkoendako pasealekua egokituko dute. Horiek guztiak egindakoan, Andramari auzune parean dagoen zubia herritarrendako zabalduko dute, pasealeku berrira eta Txarapea ibilbidera jo dezaten bertatik.

Langileek ez dute zehaztu lanok zenbat iraungo duten, baina laster bukatuko dituztelakoan daude udal ordezkariak.

ARETXABALETA

Oraindik lekua dago elikagaien manipulatzaile ikastarorako

M.A. | ARETXABALETA

Udalak eta Bizikasik elikagaien manipulatzaile txartela eskuratzeko ikastaroa antolatu dute apirilaren 28an eta 29an egiteko. Langabeei eta herriko komertzio eta ostalaritza zerbitzuetako langileei zuzenduta dago eta oraindik lekua daukate. Izena emateko Udaleko Enplegu Sailera bideratu behar dira eskaerak (20 euro); azken eguna: apirilak 18.

Homologatutako ziurtagiria

Etorkizunean txartel hori behar izango dutela uste duten lagunei dago zuzendua ikastaroa, eta bi talde egingo dituzte: langabeena (goizean, 10:00 -13:00) eta komertzio eta ostalaritza zerbitzuetako langileena (arratsaldean, 14:00-17:00). Talde bakoitzean 20 lagunendako lekua daukate, eta oraindik bete barik daude biak.

Hainbat kontu landuko dituzte, hala nola oinarrizko kontzeptuak; garbitasuna; infekzioak eta elikagaietatik datozen intoxikazioak; tresneria erabiltzeko arauak; prebentzioaren garrantzia; elikagaiak kontserbatzeko erak; eta homologatutako ziurtagiria.

ESKORIATZA

Hilaren 15a arte daude margolanak ikusgai

Apirilaren 3an egindako aire zabaleko margo lehiaketako lanak ikusgai daude Ibarraundi museoan, egubakoitza arte –astelehenetik egubakoitzera 09:00-14:00 eta 17:00-19:00–. Helduen mailan 16 margolari izan ziren eta gazteen artean hamar, gehienak eskoriatzarrak; horien guztien lanak daude ikusgai.

M.A.

OHARRAK

ARANTZAZURA JOATEKO IZENEMATEA

Zapatuan, hilak 16, Elizbarrutiak antolatuta egingo duten Arantzazuko igoerara autobusean joan gura duten aretxabaletarrek izena eman behar dute sakristian (12 euro). Azken eguna, eguaztena.

OSOKO BILKURA GAUR

Ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak gaur (18:00), tartean bake epailea proposatzeko.

OTOITZ SAIOA BIHAR

Agustindarren monasterioan egingo dute otoitz saioa bihar, martitzena (19:00).

Uhin elektromagnetikoen gainean jardungo du bihar Asier Agirre adituak Ibarraundi museoan

Elektromagnetismoa eta osasuna izeneko berbaldia eskainiko die bihar, hilak 12, Asier Agirre adituak herritarrei, Ibarraundin (19:00). Elektromagnetismo berbak zer esan gura duen, zelako eraginak dituzten uhinok, gure etxeetan erabiltzen ditugun tresnek (mikrouhinak, ordenagailu eramangarriak, wi-fiak...) sortzen dituzten eremuek osasunerako kalterik ote baduten eta beste hainbat konturen gainean jardungo du. Eremu horietatik babesteko aholkuren bat edo beste ere emango du.

OHARRAK

GAZTE OPORRALDIETARAKO IZENEMATEA ZABALIK

Apirilaren 15a arte dute zabalik 14 eta 17 urte artekoek gazte oporraldietan izena emateko: Galizia, Menorca, Girona, Salamanca eta Euskal Herria. Gazteria Zerbitzura jo, edo *www.gipuzkoa.net/oporraldi* webgunera.

Julen Arriolabengoa kaleratu berri duen 'Jaun Zuriaren Askazia' liburuarekin. | JULIO CALLEJA

Julen Arriolabengoa | Idazlea

"Mitoak gizartearen argazkiak ziren, eta beraz, garrantzitsuak"

- Gure iraganeko pasarte mitiko ahaztuak berreskuratu ditu liburu baten
- "Liburuak errazago harrapatuko du gure iragana ezagutzen duena", dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Euskal Herriaren historia mitikoko kondaira ezezagunak Jaun Zuriaren Askazia liburuan jaso ditu Julen Arriolabengoak (Aramaio, 1960). Ahaztuta zeuden kontaerak hartu edo modu ulerterrazean idatzi ditu, publiko zabalarendako. Alberdaniak atera du liburua: 130 orrialde ditu eta 15 eurotan jarri dute salgai.

Has gaitezen izenburutik. Zergatik *Jaun Zuriaren Askazia*?

Egia da askazia [senidea, ahaidea] hitza ez dela oso erabilia. Gabriel Arestik erabiltzen du *Nire aitaren etxea defendatuko dut* poema famatuan. Hitza bera poematik hartu nuen eta liburuak ildo kronologiko bati heltzen dionez, historiaren hasieratik XVI. mendera arte, belaunaldiz belaunaldi helarazi diren, istorio, ohitura eta kontakizunak islatu gura nituen. Argi neukan ideia hori izenburura ekarri behar nuela.

Jaun Zuria da pertsonaia zentrala da eleberrian. Kronologian IX. edo X. mendean geratzen da eta mitologiak edo historiak –batzuetan lehenak eta beste batzuetan bigarrenak– dio Bizkaiko jaurgoaren lehendabiziko jauna izan zela. Jaurgoaren instituzio politikoaren erreferentea da, eta nik jauna ikusten dut antzinako garaien eta garai modernoen arteko zubi moduan ikusten dut.

Historia mitikoa historia ezaguna bezain garrantzitsua izan daitekeela diozu. Zergatik?

Historia ezagutzeko kezka unibertsala da, gizakiak aurretik gertatu dena jakiteko nahia izan du beti. Hori horrela zen XVI. mendean ere. Historia idazteko orduko baliabideak eta egungoak oso ezberdinak ziren eta ohikoa zen orduko datu historikoak janzteko eta edertzeko fikziozko kontakizunak txertatzea. Mitoak orduko gizartearen argazkiak dira eta horregatik ikuspegi mitikoa kontuan hartu behar da, oso garrantzitsua da.

Noski, egun historialariak oso zorrotzak izan behar dute. Orain historia idazteko informazioa egiaztatu egin behar da.

Kondaira ezezagunak direla diozu. Nola berreskuratu dituzu?

XVI. mendean kronika asko eta asko idatzi ziren. Hala ere, oso inprenta gutxi ikusi nituen eta inprenta asmatu aurretiko eskuizkribu asko galdu egin dira. Eta mantendu diren gutxietan ikusten da nola kronika batek bestearengandik edaten duen, elkarren osagarri direla. Historialariendako ez dira deigarriak, egiaztatu gabeko ipuin moduan ulertzen dira egungo ikuspegitik. Horregatik dira ezezagunak, gutxietsiak eta baztertuak izan direlako. Hortxe zeuden; nik ezagutzera emateko lana hartu dut.

Norendako da liburua?

Publiko zabalarendako da baina bereziki historiaren inguruko fikzioak eta kontuak gustuko dituenari dago zuzenduta. Historia mitikoa eta historia ezaguna elkarren osagarri dira, eta beraz, historian jantzia denak gehiago gozatuko du. Oinarri barik irakur daiteke, baina liburuak errazago harrapatuko du gure iragana ezagutzen duena.

LEINTZ GATZAGA

Sei etxe eraiki gura dituzte herrian eta erosle bila dabiltza eskualdean

Etxe horietako hiruk prezio tasatua izango dute eta gainerako hirurak libreak izango dira

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Debagoienera zabaldu du Udalak Rosario kalean sei etxebizitza egiteko asmoaren berri. Herritarren artean iragarri zuen lehenengo, iaz, abendu inguruan, horiek eskuratzeko interesaturik egongo liratekeen jakiteko, eta orain, eskualdera zabaltzea erabaki du.

Eraikuntza enpresa batekin adostuta eraikiko dituzte sei etxebizitzok. Horietako hiru libreak izango dira: duplexak bi, ia 120 metro koadrokoak; eta hirugarrena, 90 metro koadroko etxea.

Beste hirurak Udalak gestionatuko ditu eta tasatutako prezioa izango dute –150.000 eurotik 247.000 eurora bitartean–: bat duplexa, 103 metro koadrokoa; eta beste biak 70 metro koadroko etxeak. Hala ere, jakinarazi dute Gatzagako Udalak ez duela tasatutako etxeen araudirik eta prezioa mugatuko duela bakarrik, gainerako balditzarik izan gabe.

Sei etxeek, gainera, 10 metro koadro inguruko trastelekua izango dute erdi-sotoan.

Argibideak udaletxean

Etxeotan interesatuta dauden debagoiendarrek Gatzagako udaletxera deitu beharko dute –943 71 47 46– eta argibide gehiago jasoko dituzte. Ez dute jarri eperik izena emateko.

ELGETA

33 lagunek eman dute odola eguenean egindako odol-ateratzeetan

Mundumirarako berriz ere herritar gehiago behar dira, zirkulazio eta garbiketa lanak egiteko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

"Sekula baino jende gehiago joan da bueltan odola eman ezinik", adierazi du Maria Asun Agirrek. Tentsio arazoak, ebakuntza baten zain egotea eta txertoren bat hartu berri izana dira odola eman ezinik geratzeko arrazoietako batzuk. Bada, eguenean 33 lagunek eman zuten odola. Hurrengo odol-ateratzeak azaroaren 22an egingo dituzte.

Mundumira

Mundumirako batzordea ere eguenean batu zen. Kalkulatuta daukate hiru orduko txandak antolatuz gero 92 lagun behar ko direla maiatzaren 28an eta 29an. Oraingoz, herriko tabernetan ipinitako izenemate orrietan 29 herritarrek eman dute izena.

Asmoa zen egueneko batzarrean lantaldeak osatzen joatea, baina herritarren artean beste deialdi bat egitea hobetsi dute. Egunotan herriko tabernetan izenemate orri berriak ipiniko dituzte lan motak eta txandak zeintzuk diren azalduta. Herritarrei eskatzen zaie egoki datorkien txandan izena emateko. Bestalde, laster ipiniko dituzte salgai Mundumirako kamisetak herriko hainbat saltokitan.

Hurrengo Mundumira batzordea maiatzaren 5ean, eguena, egingo dute, 19:00etan. Udaletxean egingo dute.

Elgetar taldea eguenean odola ematen. | L.Z.

ANTZUOLA

Korrika Txikia egingo dute eguenean herrian zehar

Herriko eskolako maila guztietako neska-mutikoek parte hartuko dute

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Apirilaren 14an, eguena, goizeko 7:00etan iritsiko da euskararen aldeko Korrika Antzuolara. Aurreko egunean, eguaztenean, herriko eskolako neska-mutikoek egingo dute Korrika txikia. Errekaldetik irtengo dira 12:00etan eta ibilbide hau egingo dute: Errekalde, Antigua, Ondarre, Sagasti, Altzarte, Beheko auzoa, San Josepe, Kalebarren, herriko plaza eta eskolako patioan bukatuko da. 2 urtetik hasi eta 6. mailara arteko neska-mutikoek egingo dute korrika. Gela bakoitzak kartel bat eramango du eta gelako ordezkariz ordezkari pasako dute lekukoa.

Bestalde, Korrika kulturalaren barruan, bihar, martitzena, hitzaldia egongo da. *Zer egin?* izenburupean euskararen erabileraren inguruan jardungo du Emun euskara zerbitzuetako Larraitz Madinabeitiak. Torresoroan izango da hitzaldia, 18:00etan.

Eguenean, apirilak 14, goizeko 7:00ak aldera iritsiko da Korrika 17 Antzuolara. Ordu horretan Altzarte parean egingo zaio harrera Korrikari eta herrian gora joango da, Deskarga aldera.

Ohiko osoko bilkura

Etzi, eguaztena, ohiko osoko bilkura egingo da udaletxeko batzar-aretoan, 18:00etan. Besteak beste, gai hauek landuko dituzte bilkuran: 2011ko udal aurrekontuak, lorezaintza kontratua eta armarrirako ideia lehiaketarako deialdia. Mozio bat ere aurkeztuko da, Usurbilgo itunaren gainean.

Bakearen aldeko kontzertua

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

LARUNBATA, APIRILAREN 30 EAN, 12:00 ETAN

Haurren lau koruk oso abesti ezagunak abestuko dituzte bakearen alde

Easo Eskolania (Donostia)
Donostiako Orfeoi Txikia
Bilboko Kontserbatorioko korua
Amici Musicae haurren korua (Zaragoza)

300 haur kantari

Sarrerak salgai:
- Servikutxa eta Kutxaren kutxazainetan
- Arantzazuko dendan
- Oñatin kultura etxean eta Turismo Bulegoan

Sarreraren prezioa:

15 €

Sarrera salmenta - Venta de entradas
CAJEROS SERVIKUTXA
943 00 12 00
www.kutxa.net

Sarrerak lortzeko: deitu 943 25 05 05 edo idatzi kluba@goiena.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

bazkideendako 100 sarrera doan*

*Pertsona bakoitzeko bi sarrera. Sarrerak agortu arte. Sarrerak jasotzeko azken eguna: apirilak 19

Babesleak: gizarte kutxa · ULMA · SAN SEBASTIAN DONOSTIA 2016

Antolatzailea: IPD MANAGEMENT

Laguntzailea: OÑATIKO UDALA

Hedabide laguntzailea: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergarako jokalari Aitor Azpiazu (7) eta Julen Uriarte (9) baloia menderatu nahian. Harmailetako zaleak adi-adi jokaldian jarraitzen. | JULIO CALLEJA

Txartelak eta epailea nagusi Bergarak irabazitako derbian

- Palencia epaileak 12 txartel erakutsi zituen: 11 hori eta bat gorria
- Mahoneroan gola Imanol Cabanillasek egin zuen 86. minutuan

EMAITZA

BERGARA
1-0
MONDRA

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Derbiak derbi dira beti. Partidu gogorrak eta tentsio handikoak, baina joko gutxirekin. Deskribapen hori aproposa da Bergarak eta Mondrak zapatuan jokatu zuen norgehiagokari erreferentzia egiteko. Gogorra izan zen – Palencia epaileak 11 txartel hori eta gorri bat erakutsi zituen–, eta tentsio handikoa. Batez ere, markagailuari dagokionean. Bergara izan zen gola egiteko gai izan zen talde bakarra, eta hura ere, azken minutuetan, 86.ean egin zuen Imanol Cabanillasek, korner erdiraketa errematatzerakoan. Hain justu ere, horixe izan zen partiduari emozioa eman zion bakarra: zein taldek irabaziko zuen jakitea. Azkenean hiru puntuak Bergaran geratu ziren.

Dena den, zapatuko derbiak beste irakurketa bat ere badu. Arrasatearrek oso haserre bukatu zuten partidua. Palencia epailearen erabakiek eragin zuzena izan zuten taldearengan: Iban Rodriguez entrenatzailea eta Ekain Garin jokalaria kaleratu egin zituen. Gainera, Mondra txartel askorekin zigortu zuen.

Epailearen lanak ez zuen eraginik izan azken emaitzan –Mondrak jaurtiketa bakarra egin zuen partidu osoan–; baina bai partiduaren garapenean. Lehen minututik zigortu zituen sarrerak txartelekin, eta partiduaren kontrola galdu zuen.

Lehen zatian, gaizki...

Kronikaren sarreran esandako moduan joko gutxiko partidua izan zen. Bi taldetako jokalariak joan-etorrian ibili ziren zelaian, baloiaren kontrol barik.

Harmailak lepo bete ziren, eguraldia lagun. Baina zaleek berehala hartu zioten itxura txarra partiduari. Jokalarien artean mahoneroek irakurri zuten hobeto lehia. Eurek izan zituzten aukera gehien. Lehena 12. minutuan. Korner erdiraketa baten ondoren, baloia jabe barik geratu zen Anderren ate inguruan. Mondrako atzelariek urrundu zuten baloia.

39. minutuan Bergarako Baltzategik izan zuen aukera. Uriartek erdiratutako baloia jarrera txarrean errematatu zuen, gora. Hurrengo jokaldian Mondrako entrenatzailea kalera bota zuen epaileak.

...eta bigarrenean, ere bai

Atsedenaren ondoren, partiduak itxura bera izan zuen: joko gutxi, bi taldeak bihotzarekin jokatzen, eta hartutako erabakiekin, epailea protagonista. Bigarrenean ere bergararrak iritsi ziren errazago Anderren atera: Arazkonagak eta Uriartek aukera bana izan zuten. Mondrak lehen jaurtiketa 69. minutuan egin zuen. Muruak indar gutxirekin jo zuen baloia.

Arrasatearrak bat gutxiagorekin geratu zirenean, lerroak aurreratu zituen Bergarak. Atzean sartu zen Mondra. Asko estutu ondoren, 86. minutuan egin zuen gola. Arrasatearrek ez zuten erreakzionatzeko denborarik eduki.

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Asier, Mikel, Ion, Iker, Andoni, Unai, Aitor (Beñat, 73. min.), Jokin (Oregi, 64. min.), Uriarte (Julen, 91. min.), Markel , eta Iñigo (Imanol, 67. min.)

Mondra: Ander, Loiti, Illart, Ekain, Lazpiur, Oier (Aitor, 84. min.), Lopez, Lander, Murua (Jokin, 82. min.), Andoni (Tena, 73. min.), eta Zabaleta (Pavon, 67. min.).

Epailea: Palencia jaunak zuzendu zuen lehia. Gonzalez eta Lasarte izan ziren marrazainak.

IBAN RODRIGUEZ
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Hasieratik ikusi dugu epaileak protagonista izan nahi zuela. Erabaki zorrotzak hartu ditu. Joko gutxi egin dugu bi taldeok. Bat gutxiagorekin geratu garenean, oso zail jarri zaigu derbia. Jokalariak minduta daude"

OSKAR MAIZTEGI
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Kosta egin zaigu gola egitea, baina merezita irabazi dugula uste dut. Partidua ez da oso polita izan ikusleendako, baina derbiak derbi dira. Hamarrekin geratu direnean saiatu dira berdinketa mantentzen, baina ez dute lortu"

EMAKUMEAK IGOERA

Lehen ordu erdian hiru gol egin zizkion Mondrak Arizmendiri

Emakumeen igoerako derbia arrasatearrek menderatu zuten hasieratik

EMAITZA

MONDRA

4-1

ARIZMENDI

Mondrako jokalariak lehen gola ospatzen. | JULIO CALLEJA

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Denboraldi erregularrean eta igoera fasean erakutsitako moduan, Mondrako neskek talde sendoa dute. Duda barik, euren multzoko talde indartsuena dira, eta horixe erakutsi zuten zapatuan Arizmendiren kontrako derbian. Norgehiagokako lehen ordu erdia bete orduko hiru gol egin zituzten arrasatearrek, eta erabakita utzi zuten derbia. "Hasi eta hiru gol jasotzen duzunean, estrategia goitik behera aldatzen da. Gu baino hobeak izan dira", esan zigun bukaeran Arizmendiko jokalari Marta Lizarraldek.

Bigarrenean emozio apur bat

Igoera faseko liderrak lehen minututik erakutsi zuen zergatik dagoen toki horretan. Baloia menderatu zuen eta jokaldi onak egin zituen. 13. minutuan egin zuen lehen gola Lidek. Orduan bukatu zen partidua. Harmailetan zeuden zaleen laguntza izan arren, Arizmendik kolpe gogorra jaso zuen Mondraren bigarren golarekin –24. minutuan egin zuen Vanessak–. Lau minutu geroago hirugarrena egin zuten bolea eder batekin Maitanek, eta lehiaketa erabakita utzi zuten. Bigarren zatiaren hasieran, Arizmendik emozio apur bat ipini zion derbiari: 55. minutuan gola egin zuen Susanak. Minutu batzuetan estutu egin zuen, baina ez zuen asmatu. Oihana atezainak geldiketa onak egin zituen. Lehia bukatzear zegoela, 88. minutuan, Taniak egin zuen laugarrena, areaz kanpotik egindako jaurtiketarekin.

Igoera fasea bukatzeko partidu bakarra falta da, eta bi taldeek bestelako helburuak dituzte: Mondrak finalerdiak prestatu, eta Arizmendik irabazi, Hirugarren Mailan jokatzeko.

ALAINE ROA | MONDRAKO JOKALARIA

"Urteko zailena dator orain: Mariñoren kontra jokatuko dugun finalerdia"

Alaine Roa. | M.B.

Alaine Roa pozik zegoen partidu bukaeran.

Emaitza ikusita, erraz irabazi duzuela esan daiteke?

Bai. Oso indartsu hasi gara, eta lehen minutuak erabakigarriak izan dira. 3-0 aurreratu ondoren lasaiago jokatu dugu.

Bero handia egin du gainera.

Izugarria izan da. Halako bero sargoriarekin gorputza berehala nekatzen da. Gainera, denboraldi bukaeran gaude, eta hori ere nabaritzen dugu.

Igoerako azken partidua geratzen zaizue. Ez duzue ezer jokoan.

Ez. Matematikoki finalerdietarako txartela daukagu. Dena den, azken lehia irabazi egin nahiko genuke, datuak eta estatistikengatik.

Orain dator denboraldiko zailena: Mariñoren kontrako finalerdia?

Mojategin jokatuko dugu Mariñoren kontra. Irabazten badugu Zarautz –Eibar partiduko irabazlearen kontra lehiatuko gara finalean.

Hirugarrenean lortuko duzue?

Espero dugu baietz. Aurreko bietan eskura izan dugu igoera, eta ihes egin digu. Aurten lortuko dugu.

MARTA LIZARRALDE | ARIZMENDIKO JOKALARIA

"Hirugarren mailan jokatu gura badugu, azken partidua irabazi behar dugu"

Marta Lizarralde. | M.B.

Marta Lizarralde nekatuta zegoen beroaren eraginez.

Nola ikusi duzu partidua?

Lehen zatian gaizki jokatu dugu. Eurak gu baino hobeto jokatu dute. Bigarrenenean, gola egin ondoren, hobeto ibili gara. Dena den, Mondrak guk baino talde hobeagoa dauka, eta merezimenduz irabazi dute.

Ordu erdian hiru gol jasotzea kolpe gogorra da?

Bai. Halakoetan estrategia goitik behera aldatzen da, eta kosta egin zaigu berpiztea. Ez da erraza, atsedenaren aurretik partidua ia galduta daukazula onartzea.

Dena den, igoera fase ona egiten dihardu-zue.

Bai. Hirugarren postuagatik lehian gaude. Lehenengo hiru taldeak datorren denboraldian Hirugarren Mailan jokatuko dute. Postu horri eutsi behar diogu.

Hortaz, azken partidua irabazi behar duzue?

Bai ala bai. Hondarribiaren kontra irabazi egin behar dugu. Almenen jokatuko dugu.

JULIO CALLEJA

OHOREZKO ERREGIONALA

UDAK laugarren lekua galdu du sailkapenean

Aretxabaletak galdu egin zuen atzo Ibarran Anaitasunaren kontra, 0-2. Partidua ez ezik, sailkapenean zuen laugarren postua galdu zuten Juanan Cruzen mutilek –Anaitasuna da orain laugarren–. Orain bosgarren daude aretxabaletarrak, 50 punturekin. Eguraldi txarrarekin irten ziren zelaira bi taldeak. Biak ala biak ahalegindu ziren, baina azkoitiarrek askoz hobeto jokatu zuten. UDA esku hutsik geratu zen.

OHOREZKO ERREGIONALA

Puntu ona batu zuen Aloñak Oiartzunen

M.B. | OÑATI

Aloña Mendik puntu garrantzitsua lortu zuen zapatuan Oiartzunen (0-0).

Lehen zatia oñatiarrek menderatu zuten. Oiartzunen jokoa kontrolatzeko, hiru jokalarirekin jokatu zuen erdian Aloñak. Emaitza ona eman zion estrategia horrek: oñatiarrek lau gol aukera garbi izan zituzten, baina ez zuten asmatu. Oiartzunek ere gol aukera bat izan zuen.

Bigarren zatiaren lehen ordu erdian erritmoa asko jaitsi zuten bi taldeek, eta ez zituzten aukerarik sortu. Baina, azken ordu laurdenean Oiartzunek hartu zuen baloiaren kontrola, eta Aloñak asko sufritu zuen berdinketari eusteko.

PREFERENTE MAILA

Mondrak, UDAk eta Antzuolak galdu

M.B. | ARRASATE

Preferente mailan diharduten Debagoieneko hiru taldeek galdu egin zuten aste bukaeran: Aretxabaletak 5-0 Amaikak Baten kontra; Mondrak 1-6 Mutrikurekin Mojategin; eta Antzuolak 2-0 Zestoan.

Mailaz igotzeko ahaleginean antzuolarrek ez zuten punturik batu Zestoan. Gainera, hirugarren tokian dagoen Mutrikuk erraz irabazi zuen Mondraren kontra. Hori horrela, asko zaildu zaizkio gauzak Antzuolari: hiru partidu geratzen zaizkie, eta sei puntuko atzerapena dute.

Aretxabaletak galdu arren, lasai jarraitzen du seigarren tokian, eta Mondrak aspaldi galdu du maila. Elkarren kontra jokatuko dute.

ESKUBALOIA

Ford Mugarriren kontra izango du jokoan Bergarak maila

Soraluze BKEk hil ala biziko partidua izango du domekan, 11:30ean, Labegaraietan. Denboraldiko azken norgehiagokan izango du jokoan urte osoko lana. Atzo, domeka, Leioan galdu ondoren (37-27), derrigor irabazi beharko du Ford Mugarriren kontrako derbia Euskadiko Txapelketan jokatzen segitu gura badu. "Urte guztiko lana izango dugu jokoan arrasatearren kontra. Ez da normala 21 punturekin maila jokoan izatea, baina Barakaldo eta Pulpo lehen mailatik jaitsiko dira. Hori horrela, gure multzoan lau taldek galduko dute maila", esan digu Josetxo Muniategik. Askartzaren kontra galdu ondoren, taldea buru-makur dagoela esan digu.

SASKIBALOIA

Aloñak irabazi eta Lizuanek galdu: EBA liga eskura dute

Sustrai Aloñak eskura du EBA ligako igoera: esku-eskura. Aste bukaeran irabazi egin zuen Goierriren kontra (65-71), eta Lizuanek galdu egin zuen. Hori horrela, hiru partiduko abantaila dute oñatiarrek, eta igoera bukatzeko lau geratzen zaizkie bakarrik.

Zapatuan ere zale asko joan ziren Zumarragara partidua ikustera. Lehen laurdenean Goierri Verkol aurretik ibili zen. Baina, oñatiarrek segidan eman zioten buelta partiduari. Bigarren eta hirugarren laurdenetan 8-10 puntuko abantaila izan zuten, eta erraz jokatu zuten. Azken tartearen hasieran 13 puntuko aldea zuten, baina Goierrik estutu egin zuen bukaeran De Miguelek egindako hiruko jaurtiketekin.

SASKIBALOIA

Zonako defentsan oinarritu zuen garaipena MUk (54-65)

Mondragon Unibertsitateak balio handiko garaipena ekarri zuen San Inazioren kantxatik. 54-65 irabazi zuten, eta aste bukaeran etxeko partidua irabazten badute, maila ziurtatuta izango dute.

Atzo eguerdian jokatutako norgehiagokako gakoa zonakako defentsa izan zen. Horren aurrean nafarrek arazo handia izan zuten erasoan jaurtiketa onak topatzeko. Dena den, San Inazio taldeak bitan zabaldu zuen 10 puntuko tartea: lehen eta hirugarren laurdenetan.

Horren aurrean, ondo erreakzionatu zuten arrasatearrek. Bereziki inportanteak izan ziren azken laurdenetan Andoni Arantzabalek sartuko hiruko jaurtiketak: bi egin zituen jarraian.

Eskoriatzako neskak gogor aritu ziren defentsan, eta erasoan indar handia erakutsi zuten. | JULIO CALLEJA

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Lauko finalerako garaipen garrantzitsua lortu zuen Eskoriatzak, Tecnun taldeari irabazita

- Lehen laurden orekatuaren ostean, eskoriatzarrak izan ziren nagusi bigarren laurdenetik aurrera
- Rasoren neskek eginiko defentsa ona izan zen partiduko gakoa, arerioaren jokoa eten zuten–eta

EMAITZA

ESKORIATZA

71-58

TECNUN

IRATI GOITIA | ESKORIATZA

Eskoriatzak arerio zuzena hartu zuen zapatu arratsaldean etxean: Tecnun. Lauko finala jokatzeko lehian dabiltza bi taldeak, eta ondorioz, norgehiagoka gogorra bizi izan zen Intxaurtxuetan.

Lehen laurdena oso parekatua izan zen, intentsitate handikoa. Eskoriatzarrek defentsa ona egin zuten eta eginiko presioari esker, Rasoren neskek euren jokoa ezartzea lortu zuten. Horrela, baloi ugari lapurtu zituzten eta arerioaren kanpo jaurtiketak oztopatzea ere lortu zuten. Eskoriatzarrek jarritako indarra medio, hiru puntuko aldearekin amaitu zen lehen laurdena (20-17).

Bigarren laurden erabakigarria

Partiduaren gakoa bigarren laurdena izan zen. Tecnun taldeko jokalari garrantzitsuenak lehiatik ateratzea lortu zuten Eskoriatzako neskek eta kanpotarrek saskiratze gutxi egin zituzten. Horrela, zati horretan lortu zuten eskoriatzarrek abantaila nabarmena (37-26).

Eskuratutako abantaila horri eusten saiatu ziren ondorengo laurdenetan ere. Horrela, 16 puntuko aldea izatera ere iritsi ziren hirugarren laurdenean.

Fernando Raso entrenatzaileak berak adierazi zigun abantaila hori ikusita, 20 puntuko aldea eskuratzeko nahia sartu zitzaiela. Izan ere, Tecnunen etxean jokatu zutenean 20 puntugatik galdu zuten eta lauko finaleko sailkapenerako garrantzitsua izango litzake alde hori lortzea. Eskoriatzarrek, baina, ezin izan zuten abantaila hori lortu, eta hain justu, orduantxe jokatu zuten okerren. Handikeria nahiarengatik agian, neskak urduri jarri eta minutu dezente egon ziren saskiratzerik lortu gabe. Arerioak hori ondo aprobetxatu zuen eta sei puntura murriztu zuen aldea. Hala ere, Rasoren neskek defentsa onarekin jarraitu zuten eta izandako beherakada hori bi jaurtiketa librerekin gainditzea lortu zuten. Hor lortu zuten eskoriatzarrek berriz aurrera egiteko indarra.

Helburua beteta

Raso entrenatzailea pozik zegoen partiduaren amaieran: "Oso pozik nago neskek egin duten lanarekin. Oso partidu garrantzitsua zen gaurkoa eta indar handia erakutsi dute. Gainera, gure helburua da lauko finalerako hirugarren gelditzea sailkapenean. Izan ere, lehenengo doan taldea oso indartsua da eta laugarren gelditzen denak bere aurka jokatu beharko du lauko finalean. Hori saihestu nahi dugu eta gaur irabazita hirugarren gaude sailkapenean". Gelditzen zaizkien azken bi norgehiagokak irabaztea ere garrantzitsua izango da helburu hori lortzeko, partidu bat galduz gero Tecnun aurreratuko zaie-eta.

ESKUBALOIA

Xabi Altzelai jaurtiketa egiteko gertu. | JULIO CALLEJA

Intentsitate handiagoarekin jokatu zuen Basaurik eta Ford Mugarri menderatu zuen

Lehen zatian bigarrenean baino askoz hobeto jokatu zuten etxekoek, baina ez zen nahikoa izan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Gutxien espero zutenean huts egin zuen Ford Mugarrik. Basauriren kontra galdu egin zuten zapatuan Iturripen. Bi taldeak oso bestelako jarrerarekin irten ziren kantxara: arrasatearrak igoerarako txartelarekin, eta bizkaitarrak jaitsiera ekiditeko puntuen bila. Hori horrela, Basaurik jokatu zuen askoz hobeto. Eurendako hil ala biziko partidua zen, eta ez zuten hutsik egin. "Ez dugu ondo jokatu, eta ez dugu ondo entrenatu", esan zigun Edu Orgazek bukaeran.

Liga bukatu ondoren, igoera fasea jokatuko du Ford Mugarrik, maiatzaren 5etik 7ra. Hil bukaeran jakingo duten zein talderen kontra lehiatuko diren eta non jokatuko duten.

TXIRRINDULARITZA

Irati Barrena oñatiarra izan zen lehen neska alebin mailan Aretxabaletako sarian

Alebin eta infantil mailako txirrindularitza lasterketak jokatu ziren Aretxabaletan, zapatuan

Alebin mailako txirrindulariak lasterketan. | JULIO CALLEJA

IRATI GOITIA | ARETXABALETA

Arratsaldeko 16:30ean puntu-puntuan epaileak txilibitua jo eta ziztu-bizian irten ziren alebin mailako neska-mutikoak.

Lau buelta egin behar izan zizkieten Basabe poligonoari txirrindulari gaztetxoenek; itzuliko kilometro bat.

Lehen bi itzulietan Asier Azkarate JMA taldeko arrasatearra izan zen nagusi, baina hirugarren bueltan ezin izan zuen eutsi eta atzean geratu zen. Azkenean, Imanol Alvarez Iturriaga taldeko elgoibartarra izan zen helmugara iristen lehena. Lau itzuliak egiten bigarrena ere elgoibartarra izan zen: Josu Astigarraga (Iturriaga taldea). Hirugarren postuko garaikurra berriz, Urretxura joan zen, Goierri taldeko Iñaki Salaberria izan zen kopa jaso zuena.

Mutiletan ez zen gure bailarakorik sailkatu lehen postuan, baina bai nesketan. Lizarralde Kirolak taldeko Irati Barrena oñatiarra izan zen lehena, egin zuen lan onari esker. Asier Azkaratek ere izan zuen saria egin zuen esfortzu eta lan txukunagatik, Dorletako Amako lehen saria jaso zuen-eta.

Infantilak

Infantil mailako txirrindulariek ere ibilbide bera egin behar izan zuten, baina hamahiru eta hamalau urteko neska-mutikoek zortzi itzuli egin behar izan zituzten.

Infantiletan LanModel taldekoak izan ziren jaun eta jabe. Lasterketa guztian zehar talde horretako lau kide joan ziren lehen postuetan eta eurek jarri zuten lasterketako erritmoa. Lehen bi itzulietan tropelean igaro ziren helmugatik, baina hirugarrenerako LanModelekoek ihes egin zuten eta euren artean jokatu zuten lehia.

Horrela, LanModeleko Oier Ibarguren eta Aitor Odriozolaren arteko azken esprintean erabaki zen garaipena. Haginak estututa zituztela sartu ziren biak helmugara, baina Ibarguren izan zen gehiago azken metroetan eta berak zeharkatu zuen lehenengo postuan helmuga.

Sailkapenean, lasterketan bezala, Azkoitiko LanModel taldea nagusi, lehen hiru postuak talde horretako ziklistentzako izan ziren-eta: lehena Oier Ibarguren izan zen, bigarrena Aitor Odriozola eta hirugarrena Unai Orbea. Nesketan ere talde bereko Maite Orbea izan zen garailea.

JMA taldeko Josu Kortabarria arrasatearrarentzat izan zen Dorletako Ama eskolako lehen saria.

Txirrindularien arteko aldeak nabarmenagoak izan ziren kategoria honetan alebinetan baino.

DATUA

68

PARTE-HARTZAILE

Aretxabaletako sarian 68 txirrindularik hartu zuten parte. Horietatik 22k alebin mailan eta 46k infantilen kategorian.

Bi lasterketetako irabazleak euren garaikurrekin. | I.G.

JULIO CALLEJA

GIMNASIA ERRITMIKOA

Erakustaldi polita Uarkapen

Zapatuan, Gipuzkoa osoko gimnastak elkartu ziren Arrasteko Uarkape pilotalekuan, Eskolarteko B mailako bigarren fasea jokatzeko. Goiz eta arratsaldez ibili ziren gimnastak euren lanak epaileen aurrean defendatzen. Arrasateko taldeetako kideek lan txukunak egin zituzten. Horrela, Dragoi Gimnasia Taldeko infantil mailakoak hurrengo faserako sailkatu ziren. Bestalde, aerobik erakustaldia ere izan zen.

PILOTA

Soraluce sariko lau t'erdiko finala Bergaran, martitzenean

I.G. | BERGARA

Lau t'erdiko Soraluce sariko finala martitzen honetan jokatuko da Bergarako pilotalekuan, 19:30ean.

Aitor Mendizabal antzuolarra eta Etxeberria beratarra izango dira finalean nor baino nor gehiago. Aurreko asteko martitzenean jokatu zituzten finalerdiak eta orduan eskuratu zituzten biek finalerako txartelak. Mendizabalek 22 eta 20 hartu zuen mendean Garralda partidu gogorraren ostean. Etxeberria berriz, Victorren aurka aritu zen eta norgehiagoka beroaren ostean, beratarrarentzat izan zen garaipena (22-18).

Datorren martitzenekoa partidu estua izango dela aurreikusten da, ikusleen gozamenerako.

TXIRRINDULARITZA

Alex Aranburu Nafarroako BBT proban lehena, jubeniletan

I.G. | ARRASATE

Atzo, domeka, Nafarroako BBTko Caja Rural kopako proba jokatu zuten Tuteran, eta jubenilen kategorian Alex Aranburu debagoiendarra izan zen lehenengoa.

Euskal selekzioko ordezkari bezala hartu zuen parte proban Aranburuk. Izan ere, astean zehar kontzentratuta egon dira.

Aramaion, martxoaren 13an jokatu zen BTTko Euskadiko Openenean ere lan bikaina egin zuen Aranburuk eta hirugarren sailkatu zen Dorletako Ama taldeko ziklista hori.

Atzokoa Nafarroako kopako laugarren proba izan zen, eta beste lau gelditzen dira. Hurrengoa Lizarran jokatu da maiatzaren 21ean.

Parapente bat Aloñako gurutzearen inguruan hegan egiten. | DEBAGOIENAKO AMILLENA AIRE KIROL TALDEA



Urtzi Berasaluze Aloñara igotzen. | XABI URTZELAI

PARAPENTEA-MENDIA

Aloñako Igoerarekin batera, parapente lasterketa egingo dute

- Biak ala biak egingo dituzte maiatzaren 8an Oñatin
- Parapente probako parte-hartzaileak Urtiagaindik irtengo dira korrika

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Debagoienako Amillena Aire Kirol Taldeak antolatuta parapente lasterketa egingo dute maiatzaren 8an Oñatin. Egun berean egingo dute Aloñako VII. igoera. Bi probak aldi berean egingo dituzte, eta bitxikeria izango da ikustea nor helduko den lehena plazako helmugara: korrikalaria edo parapentelaria. Horixe izango da Aloñako Igoerak izango duen berrikuntza nagusiena.

Parapente lasterketako parte-hartzaileak Urtiagaindik irtengo dira. Korrika igoko dira Aloñaraino, hegan egiteko ekipoarekin bizkarrean. Tontorrera heltzen direnean parapentea zabaldu eta hegan egingo dute Berezaoraino. Lurreratu ondoren, parapentea gorde eta korrika egingo dute helmugaraino geratzen den kilometroa. Aldi berean, baina, herriko plazatik hasita, Aloñako Igoerako parte-hartzaileek ohiko ibilbidea egingo dute: herriko plaza-Urtiagain-Belar-Aloña-Belar-Gorordo- herriko plaza. Guztira, 15,5 kilometro.

Izenemateak egiteko

Egun berean egingo diren bi probetarako izenematea zabalik dute dagoeneko.

Korrika egin gura dutenek maiatzaren 1era arte eman dezakete izena. Horretarako diru-sarrera egin behar dute Euskadiko Kutxan edo Rural Kutxan: mendi federatu txartela dutenek 15 euro ordainduko dute, eta federatuak ez direnek 20 euro. Dena den, ez da beharrezkoa mendian federatuta egotea. Izena eman daiteke turismo bulegoan edo *www.aloina.net* atarian.

Bestalde, parapente lehiaketan parte hartu gura dutenek *www.amillenahegan.com* webgunean eman behar dute izena maiatzaren 2a baino lehen. Izenematea, bost euro.

Iban Altube gogoan

Aloñako Igoerako antolatzaileek 1 zenbakidun dortsala gorde egingo dute aurten. Ez diote iazko irabazleari emango. Orain dela gutxi hil zen Iban Altuberen omenez gordeko dute. Lotura estua zuen antolatzaileekin eta proban parte hartu izan du.

FUTBOLA

EMAITZAK

Roteta-Trintxerpe	1-0
Zumaiako-Hondarribi	4-2
Oiartzun -**Aloña Mendi**	0-0
Bergara -Mondra	1-0
Tolosa-Real Union	0-1
Aretxabaleta-Anaitasuna	0-2
Idiazabal-Aurrera Ondarroa	4-1
Pasajes-Ordizia	4-1
Berio-Hernani	0-0

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Real Union	67	29
2	Hernani	65	29
3	Pasaia	60	29
4	Anaitasuna	52	29
5	**Aretxabaleta**	50	29
6	Oiartzun	45	29
7	**Bergara**	42	29
8	Tolosa	42	29
9	Aurrera	41	29
10	**Mondragon**	35	29
11	Trintxerpe	35	29
12	**Aloña Mendi**	35	29
13	Hondarribi	34	29
14	Berio	34	29
15	Roteta	25	29
16	Idiazabal	24	29
17	Zumaiako	23	29
18	Ordizia	19	29

HURRENGO JARDUNALDIA

Roteta-Berio
Trintxerpe-Zumaiako
Hondarribia-Oiartzun
Aloña Mendi -Bergara
Mondragon-Tolosa
Real Union-**Aretxabaleta**
Anaitasuna-Idiazabal
Aurrera-Pasajes
Ordizia-Hernani

ERREGIONAL PREFERENTEA

Amaikak Bat-Aretxabaleta B	5-0
Mondra B-Mutriku	1-6
Zestoa-Antzuola	2-0

ERREGIONALA- IGOERA

Bergara B-Martutene	1-0

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Aloña Mendi-Ordizia	4-2
Oiartzun-Mondra	6-2

GAZTEAK, IGOERA

Bergara-Arizmendi UDA B	1-2
Aretxabaleta B-Soraluze	2-1

OHOREZKO KADETEAK KOPA

Bergara-Vasconia	2-1

KADETEAK KOPA

Soraluze-Bergara B	3-1
Eibartarrak B- Aretxabaleta B	0-0
Arizmendi-Aloña mendi	2-0

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Mondra-Arizmendi	4-1

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Askartza-Soraluze BKE	37-27

TERRITORIALEKO KOPA

Izarraitz Aloña-Ordizia	33-18

FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK

Ordizia-Bergara	34-34
Aloña Mendi-Ordizia	36-21

ALDUNDIA SARIA, KAD. MUTIL

Urola- Chapime Arrasate	13-40
Berezao Aloña-Karibe Zaharra	20-27
Karibe Zaharra txiki-Soraluze BKE	23-24

ALDUNDIA SARIA, GAZTE NESK

Bergara Soraluze	Atsedena

ALDUNDIA SARIA, KAD. NESKA

Leizaran-Aloña Mendi	16-19
Aloña Mendi B-Zalla taberna	17-25

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eskoriatza	Atsedena

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Azpeitiko-Aretxabaleta	4-2

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA, IGOERA

Goierri Verkol-Sustrai Aloña	65-71

LEHEN MAILA JAITSIERA

San Inazio UPNA-MU	54-65

LEHEN MAILAKO SENIORRAK

TAKE Orbela-MU	65-35

BIGARREN MAILAKO SENIOR.

Hiercor Goierri-Sustrai Aloña	68-69

SENIOR EMAKUMEAK

Eskoriatza-Tecnun	71-58

GAZTEAK PARTAIDETZA

Soraluze BKE-Aloña Mendi	61-44

EMAKUME GAZTEAK PARTAID.

Bera Bera-Aloña Mendi	52-46

KADETE MUTILAK PARTAIDET.

Atco. San Sebastian-MU	47-55

GU
RE
KI
RO
LA

GOIENA TELEBISTA HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
20:45, 22:30

goiena

FUTBOLA

Jon Urtzelai | Eibarko jokalaria

"Lesiotik errekuperatzen nabil, eta oraindik maila ona eman dezakedala uste dut"

- Orain dela zazpi aste egin zioten Oñatikoari ebakuntza; asteon hasi da talde-lanean
- Denboraldi gogorra izan da, eta badaki ez duela Eibarren jarraituko; baina, baikor dago

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Realeko harrobiko jokalaria da Jon Urtzelai (Oñati, 1977). Talde txuri-urdinean bi generazio emankorren tartean egotea tokatu zitzaion Oñatikoari, Aitor Lopez Rekarteren eta Agustin Arantzabalen generaziokoak apur bat nagusiagoak ziren, eta Mikel Aranburu eta Labakaren generaziokoak, gaztetxoagoak. Realean ez zuen maila gorenera salto egiteko aukerarik izan, baina futbolean kirol ibilbide oparoa izan du. Azken denboraldi hau, baina, gogorra izango zen, seguru, urte erdi lesionatuta egoteaz batera Eibarren leku barik geratu delako; ez du hor jarraituko.

Zer moduz joan da astea?

Ondo, geroago eta hobeto. Egubakoitzean taldekideekin entrenatu ahal izan nuen, eta horrenbeste denbora min hartuta egon ostean, –ligako zazpigarren jardunaldian lesionatu zen– errekuperatze lanetan bakarrik entrenatzen ibili ostean, pozgarria da taldekideekin berriro ibiltzea, nahiz eta erritmo motelagoan izan.

Zelan eramaten da sei hilabete geldi egotea?

Egia esan, lesioekin zorte handia izan dut, hau izan delako larriena. Gogorra den arren, nahiko ondo eraman dut geldi egon behar izana.

Lesio hau zer izan da, futbol ibilbidean gainditu beharreko koska bat gehiago, ala erakutsi dizu futbolari agur esateko ordua geroago eta gertuago dagoela?

Futbol ibilbidean koska asko egoten dira, eta niri 34 urterekin iritsi zait lesio hau. Baina, ebakuntzaren ostean ikusten nabil ondo errekuperatzen nabilela, eta oraindik maila polita eman dezakedala. Denboraldi amaieran ikusiko dugu futbolean jarraitzeko ze aukera ditugun.

Adin horrek ematen duen beteranotasuna balio handikoa izan daiteke defentsaren erdian jokatzen duen jokalari batendako.

Hala da, eta lehen esandako moduan, ez naiz lesio asko izan duen jokalari bat. Gainera, ebakuntza eginda pubisak ez luke arazo gehiago eman behar. Badakit ondo jarriko naizela, eta joko -erritmoa hartuko dudala berriro ere; soka luzea geratzen zaidala uste dut.

Atezainaren ostean, zentralak izaten du taldea berdegunean kokatzeko ardura

Bai, eta urteek aurrera egin ahala geroago eta garbiago dut hori dela nire lekua, hor esperientzia behar delako. Uneoro jokalarien posizioa zuzentzen ibiltzen den horietakoa naiz.

Sekula ez zaizu burutik pasa atzerrira joatea?

Gazteago nintzenean bai, eta arantza horrekin geratuko naiz. Murtzian nengoela AEBtara joateko aukera izan nuen. Egia esan, ni B plana nintzen, Aitor Karanka fitxatzea zelako Colorado Rapids taldearen asmoa, eta hala egin zuten.

Urte hauetan guztietan, zer eman dizu futbolak?

Gauza asko. Hasteko, nire ogibidea izan da, futbolari esker bizi izan naiz. Horrekin batera lagun mordoa egin ditut futbolari esker. Eta, bizitzarako baloreak ere eman dizkit: errespetua, sakrifikatzen jakitea, talde lanean jardutea...

Eta zer kendu?

Gauza dezente, jendeak uste duena baino gehiago. Futbolariok beti izan dugu ondo bizi garen fama, baina hor ere denetik egongo da, batzuk besteak baino hobeto biziko dira (Barre). Batez ere beste edozein gaztek egin ahal izan dituen gauza asko ezin egin izana, koadrila planak..

Ondoan izan duzun jokalari onena?

Murtzian egon nintzen urteetan izan nituen maila oneneko jokalariak: Iban Alonso, Julio Alvarez, Rayoko kapitain Michel...

Eta miresten duzun jokalari bat?

Mikel Aranburu esango dut. Hala, San Juanetan etortzen denean barre apur bat egingo dugu. Benetan, sekulako jokalaria da, Anoetan kritikak jaso izan ditu, baloiak galtzen dituela-eta. Baina, hori etengabe eskaintzen den jokalaria delako da, ez da inoiz ezkutatzen. Onena, duda barik.

Eta, ze jokalarik eman dizu lan handiena?

Murtziarekin debut ederra izan nuen... Lagunarteko partidua jokatu genuen Werder Bremen talde alemaniarraren kontra, eta Klose eta Charisteas markatzea tokatu zitzaidan. Partidu hartan biek egin zuten gol bana; hasteko modu ona izan zen [Barre].

Jon Urtzelai, Oñatin, egubakoitz arratsaldean. | JULIO CALLEJA.

"Geroago eta hobeto nago, jada hasi naiz taldean entrenatzen"

"Futbol ibilbidean koska asko egoten dira; ni 34 urterekin lesionatu naiz"

"Uneoro jokalarien posizioa zuzentzen ibiltzen den horietakoa naiz"

"AEBtara joateko aukera izan nuen, eta arantza txiki hori geratu zait"

Urterik onenak, Murtzian

Realean zortzi urte egon ostean Jon Urtzelai Noveldara (Alacant) utzita joan zen. Etxera itzultzea erabaki eta bi urte egin zituen Barakaldon (2.B mailan). Han, bigarren urtea biribila egin eta lehen mailatik jaitsi berria zen Murtziak fitxatu zuen. Talde sendoa zuen Murtziak, izen handiko jokalariekin, eta horiek izan ziren futbolean Oñatikoaren urte onenak. Ejidoko esperientzia ez zen horren ona izan, eta Eibarren egin ditu azken urteak.

Jon Urtzelai. | DV

Autoritate faltak permisibitatean erortzea dakar gaur egun

Irene Txurrukak dio nahastu egiten ditugula autoritatea eta autoritarismoa

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Kolaboratzaile berria dugu *Guraso.com* atarian: Irene Txurruka. Amatasunaren inguruan idatziko du, eta argitaratu berri du lehenengo artikulua. "Gaur egungo gurasook ihes egin nahi dugu garai batean bizi izan genuen autoritarismotik, eta, ihes egite horretan, autoritatea autoritarismoarekin nahastuz, autoritaterik gabe uzten ditugu haurrak", adierazi du. "Oro har, autoritate faltak permisibitatean erortzea dakar eta permisibitatearen ondorioz haurrek arazoak izaten dituzte ardurak hartzeko, beren bulkadak kontrolatzeko eta beren adinari dagokion neurrian heltzeko".

Neskatila sukaldean. | DE LA MAZA

Autoritatea beharrezkoa da

Txurrukak aditzera ematen duenez, haurrek autoritate eta erreferente diren pertsonak behar dituzte emozionalki osasuntsu hazteko; "izan ere, autoritateak segurtasuna ematen die eta horrek euren autoestimuan eta euren buruarekiko segurtasunean dauka eragina". Horren harira, autoritatearen eta autoritarismoaren artean bereiztea oso erraza dela dio. "Autoritatez jokatzen dugunean, haurrarentzat onena dugu buruan. Esaterako, gauean garaiz oheratzea, nahiz eta umeak gogorik ez izan. Aldiz, autoritarismoz jokatzen dugunean, haurra ohera bidaltzeko arrazoia hark ni bakean uztea izan daiteke". Autoritarismoz jokatzen dugu haurrekiko afektu txikia erakusten dugunean eta harendako eredu koherentea ez garenean.

Irene Txurrukak autoritatea zer den azaltzen du *Guraso.com* webgunean. Osorik aurkituko duzue gure atarian.

Haurrak intsolazio arriskutik babestu egin behar ditugu

Urtaro honetan eguzkiak gogor jotzen du; umeekin neurriak hartzea ezinbestekoa da

L.Z. | ARRASATE

Azala helduok baino finagoa dute eta berotasuna izerdiaren bidez neutralizatzeko funtzioa garatzeke dute. Gainera, kasu askotan, eskain ezean ez dute likidorik hartzen. Adituek ematen dituzten gomendioen artean nabarmentzen dira txapelak eta eguzkitako kremak erabiltzea, ura behin eta berriz eskaintzea eta eguneko ordu gogorrenetan umeak itzalguneetan eta leku freskoetan edukitzea.

Deshidratazio arriskua

Umearen azala gorrituta badago edo eguzkitan egon ostean negarrez edo botaka hasten bada, eraman leku fresko batera, ipini buruz gora eta ura eskaini. Azaleko erredurak arintzeko almendra-olioa edo koko-olioa gomendatzen dute. Pepinoarekin eginiko zukua ere erabil daiteke. Busti oihalak zuku horretan eta ipini azalaren gainean. Eraman umea medikuarengana eta utzi atseden hartzen.

Umea, hondartzan, amarekin. | LUCIANO JOAQUIM

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

JAKINGAI

Alzheimerra: prebentzio neurriak

Arantza Hernandez
Arizmendiko irakaslea

Alzheimerraren bilakaerak familia zein gaixoa kezkatzen du. Kontuan izan behar da pertsona bakoitzak gaixotasunaren garapen ezberdina izaten duela; hiru urtetik 20 urtera arteko iraupena izan dezake, tratamenduaren eta jasotzen diren zaintzen arabera.

Hiru etapa

Gaixotasuna hiru etapatan bana dezakegu: hasierako fasean sintoma kognitiboak arinak dira; horregatik esaten zaio fase arina. Gaixoarekin bizi ezean, sintoma horiek nabaritzea zaila da. Bi eta bost urte arteko iraupena dauka etapa horrek eta epe horretan oroimenaren galera antzeman daiteke. Gaixoak gertatu berri diren jazoerak ahazten ditu; berdin dio 5, 10 edo 20 minutu pasa diren.

Tarteko fasean narriadura edo ondorio kognitiboa garrantzitsuagoa da. Gainera, egunerokotasuneko ekintzak egiteko gaitasunean galerak ageri dira eta jarrera desatseginak azaltzen ditu gaixoak. Bi urtetik hamarrera arteko iraupena izan ohi du bigarren etapa horrek.

Berantiar fasea edo fase larria da azkena. Gaixoak ez du gaitasunik bere burua zaintzeko. Mendekotasuna erabatekoa da.

Tratamendua

Alzheimerrak ez du tratamendu sendagarririk. Helburua izango da azaltzen doazen sintomak moteltzea, agerpenak atzeratzea eta tratatzea. Erabiltzen diren tratamenduen artean farmakologiakoak –medikua izango da tratamendua agindu eta kontrolatuko duena– eta ez farmakologiakoak desberdinduko ditugu. Tratamendu ez farmakologiakoak dira inguruaren egokitzapena, autonomiaren sustapena, terapia kognitiboak, errealitatearekiko orientazioa, estimulazio kognitiboaren programak, sozializazio estimulazioa, psikomotrizitatea, erlaxazio teknikak, sentipen eta afektibotasun estimulazioa...

Prebentzio faktoreak

Gaur egun alzheimerrari aurre hartzea ezinezkoa da, baina zenbait ikerketak frogatu dute gaixotasunaren agerpena atzeratu egin daitekeela eta haren bilakaeraren abiadura murriztu egin daitekeela.

Prebentzio faktoreen artean daude medikamentu eta tratamendu zehatzak (Ainesak), dieta kontrolatuak (kaloria eta gantz saturatuetan baxuak eta antioxidatzaileetan bereziki aberatsak), jarduera fisiko lasaia (20 minutuko hiruzpalau saio, esaterako), jarduera intelektualak, estres emozionalaren kontrola, eta kafea eta alkohola neurrian hartzea.



Pertsona nagusiak. | R_MAL

Gaixoak tratatzeko argibide batzuk

Gogoratu behar da pazientzia, umore ona eta lasaitasuna izango direla gure lagun onenak. Jatorduetan arazoak izanez gero, ordutegi finkoa ezarri, elikagaiak erakargarri azaldu eta gaixoaren gustuak errespetatu. Gaixoak edatea ukatuz gero, uraren alternatibak eskaini; esaterako, zukuak. Garbitzea ukatuz gero, zergatia antzematen saiatuko gara, baina ohiko garbitasuna egingo diogu eta ostean bere itxurari buruzko hitz positiboak esango dizkiogu. Gaixoak lo arazoak adierazten baditu, argia, tenperatura eta musika lasaia jarriko dizkiogu eta lotarako orduan ohitura bat ezarriko dugu.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK

KULTURA

Emozioz bete zuen Motxila 21 taldeak zapatuan Elgetako kafe antzokia

Emanaldi bukaeran publikoa zutitu eta bi abesti errepikatu behar izan zituzten ikusleak asetzeko

ANDER MONEDERO | ELGETA

Txalo zaparrada itzela jaso zuen Motxila 21 taldeak zapatuan Elgetako Espaloian. Iruñako taldeak bederatzi abestiz osatutako emanaldia egin zuen eta taldekideek publikoari transmititzen duten emozioak aretoan bildutako jendea zutiarazi zuen.

Down sindromea duten 12 pertsona eta beste zazpi musikarik osatzen dute Motxila 21 taldea, tartean Tijuana In Blue, Marea eta Barricadako hiru kidek. Bederatzi abestiz osaturiko emanaldia egin zuten, tartean taldearentzat egindako bi abesti: *Motxila 21* eta *No somos distintos*. Bi abesti horiek Down sindromea duten pertsonentzat himnoak dira, izan ere, musikari dioten maitasunaz eta urritasuna gainditzeko duten gaitasunaz hitz egiten dute.

Zapatuko kontzertua taldearentzat propio moldatutako bertsioekin hasi zuten, tartean Queen taldearen *We will rock you* abestiarekin. Gero, emanaldiko momenturik hunkigarriena iritsi zen: taldeak dituen bi abestiak jo zituzten. Abesti horietan, taldekideak bi abesti horien hitzekin oso identifikatuta sentitzen dira eta publikoa hunkitzea lortu zuten. Kontzertua bukatzeko Barricada taldearen *Blanco y negro* abestia jo zuten eta Iruñako talde mitikoaren abeslariarekin batera, *El Drogas*ekin batera, taldeko bi kidek abestu zuten. Gogoz, indarrez eta sentimenduz abestu zuten eta abestia bukatu bezain laster, publikoa zutitu, txaloka hasi eta beste abesti bat eskatu zuen. Taldekideek publikoaren nahia entzun eta dituzten bi abestiak errepikatuz bukatu zuten kontzertua.

Naturaltasuna nagusi

Motxila 21eko kideek naturaltasun handia transmititzen dute emanaldi bakoitzean eta *Piñas* eta *El Drogas*en esanetan, musika egin eta gozatzeko beste era bat da: sinpletasuna bertute bihurtzen dute. Entseguak, askotan, gogorrak izaten dira, batez ere abestiak txukuntzerako orduan, baina musikariek jotzeko duen gogoak aurrera egiteko indarra ematen die.

Azkenaldian kontzertu asko egiteko proposamenak jaso dituzte, horietako bat Suediatik.

"El Drogas" Motxila 21 taldeko kideekin abesten. | IBAN ARANTZABAL



IÑAKI LAHORTIGA
SAXOFOIA

"Kontzertu polita izan da, ondo jo dugu eta publikoak ondo erantzun du. Gustuko ditut jotzen ditugun abestiak, batez ere Barricadaren *Blanco y Negro*. Zuzenean jotzea asko gustatzen zait eta gero eta hobeto egiten dugu".



GONZALO PURROY
PERKUSIOA

"Oso gustura egon naiz kontzertuan. Normalean harrera ona izaten dugu gure kontzertuetan, publikoak abestiak errepikatzeko eskatzen digu eta guk gustura egiten dugu. Hori oso gauza polita da".

E. VILLAREAL 'EL DROGAS'
GITARRISTA ETA ABESLARIA

"Musikaz nola gozatzen duten ikustea zoragarria da. Sinpletasun musikalaz gozatzen dugu, down sindromea dutenek emozionalki besteak baino maila altuagoa dute. Ematen dioguna baino askoz gehiago jasotzen dugu".



EDUARDO 'PIÑAS'
PERKUSIOA ETA AHOTSA

"Emanaldi polita izan da, naturaltasun handia duten pertsonak dira eta hori transmititzen dute. Lan handia egin dugu eta horren emaitza dira gure emanaldiak. Kontzertu bakoitza esperientzia berri bat da".



LEIRE ZABALZA
PERKUSIOA ETA AHOTSA

"Egiten dugunarekin gozatu egiten dugu, musika jotzen dugunean zoriontsuak gara. Askotan entseguak oso gogorrak izaten dira baina kontzertuetan sufrimendu guztia zoriontasun bihurtzen da".

Arrasateko Musikaleko orkestra sinfonikoak eta Goikobalu abesbatzak elkarrekin hasi zuten kontzertua. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

San Frantzisko beteta, beste behin

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Hitzordu garrantzitsua izan zuten zapatuan Arrasateko musikari eta abeslariek. Urteko garrantzitsuenetako bat, seguruenik. Udaberriko musikaldiari amaiera emateko, beste behin ere, Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoak eta Goikobalu abesbatzak kontzertua eskaini zuten San Frantzisko elizan.

Argi geratu zen, beste urte batez ere, herritarrak herriko artisten emanaldia gustura hartzen dutela eta eguna iristeko zain egoten direla. San Frantzisko eliza lepo bete zen eta kontzertua hasi baino hamabost minutu lehenago dagoeneko ezinezkoa zen eserlekurik lortzea San Frantzisko elizan.

Elkarrekin hasi eta bukatu

Goikobaluk eta orkestra sinfonikoak elkarrekin hasi zuten kontzertua, elizako musikarekin. Franz Schuberten sei pieza interpretatu zituzten batera. Ondoren, orkestrak bakarrik jo zituen Carl Maria Von Weberren *El cazador furtivo* eta John Barry-ren *Bailando con lobos*. Azken hori ileak puntan jartzeko modukoa izan zen eta herritarrek sekulako txalo zaparradarekin eskertu zuen orkestraren lana.

Emanaldia amaitzeko Goikobalukoek berriro ere erretaulara igo eta elkarrekin abestu zuten Civeliusen *Finlandia*.

FITXA

SAN FRANTZISKO ELIZA

ARRASATE MUSIKALEKO ORKESTRA SINFONIKOA ETA GOIKOBALU ABESBATZAREN KONTZERTUA

Estiloa: Musika klasikoa.

Eguna: Apirilak 9, zapatua.

Ordua: 20:00.

Iraubena: Ordubete.

Bakarlariek ileak puntan jartzeko moduko momentuak eskaini zituzten . | J.C.

Bergarako Insurection eta Zumarragako Dark Rider garaile, musika moderno lehiaketan

Aurtengoa hirugarren edizioa izan da eta hamar taldek hartu dute parte

A.B. | BERGARA

Bergarako Zabalotegi aretoa pop, rock, jazz, blues eta beste hainbat estilotako musikaz bete zen atzo, domeka. Hain justu, Bergarako musika eskolak antolatuta musika moderno lehiaketa egin zuten. Aurtengoa hirugarren edizioa izan da, eta musikari modernoek, beste behin ere, sekulako maila erakutsi zuten. "Oso pozik gaude aurtengo taldeek egindako lanarekin. Asko gozatu dugu emanaldiekin. Denetarik egon da, baina orokorrean oso maila ona ikusi dugu", adierazi zuten antolatzaileek amaieran.

Publikoaren saria Bergarara

Lehiaketa bi saiotan banatu zuten; goizekoan bost taldek hartu zuten parte eta arratsaldekoan beste bostek. Ondoren sari banaketa etorri zen. Publikoaren saria Bergaran geratu zen; gitarra, baxua eta bateriarekin osatutako Insurection taldeak irabazi zuen. Lehiaketako irabazleak, bestalde, Zumarragako Dark Rider taldekoak izan ziren; horiek ere gitarra, baxua eta bateriarekin.

Gipuzkoa osotik etorritakoak

Lehiaketako parte-hartzaileak Zumarraga, Usurbil, Donostia eta Legazpitik etorritakoak ziren. Epaimahaia berriz, Zumarraga eta Legazpiko musika eskoletako irakasle bik osatu zuten.

Antolatzaileak oso pozik agertu ziren taldeen mailarekin. | ANDER MONEDERO

Jabier Muguruzak Oñatiko Guria taberna bete egin zuen atzo

A.B. | OÑATI

Ruper Ordorika, Quimi Portet, Mursergo... Bada, agur esan aurretik, Oñatiko Guriak beste behin ere taberna lepo betetzea lortu zuen. Oraingo honetan Jabier Muguruzaren kontzertuarekin. Angel Urzu gitarrajotzailearekin batera etorri zen, eta taberna barruan ez ezik kanpoko aldean ipinitako pantaila erraldoiaren parean ere jende dezente bildu zen kontzertuaz gozatzeko.

'Taxirik ez' lana aurkeztera

Bakarka argitaratu berri duen *Taxirik ez* diskoa aurkeztu zuen Jabier Muguruzak Oñatiko Gurian. Atxagak, Canok eta Irazuk idatzi dizkiote, besteak beste, abestien letrak.

Jabier Mugurazak eta Angel Urzuk Guria bete egin zuten. | JULIO CALLEJA

Bergarako gaztetxea whiskiz bete zuten zapatu gauean

Sarkor eta The Riff Truckers taldeek kontzertua eman zuten; Johnny Whisky-rekin zoramena etorri zen

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Zapatu gaueko kartela ikusita, argi zegoen Bergarako gaztetxea berotu egingo zela; Sarkor eta The Riff Truckers taldeak igo behar ziren taula gainera.

Aurreikusitakoa gertatu zen. Gernikatik iritsitako autobusak gainera, are gehiago berotu zuen gaua. Labur esateko, gernikarrek Bergarako gaztetxea hartu zuten zapatu gauean.

Hasiera lasai antzean

Sarkor taldeak izan zuen gaua girotzen hasteko ardura. Emanaldi lasaia izan zen, baina ikusleek gozatu egin zuten; dantza gehiegi egin ez zuten arren, argi ikusten zen jarraitzaileak oso gustura zeudela. Bigarren plateraren zain zeuden, baina momentua gozatzen.

Iazko uztailean argitaratutako *Sentimendu gabe* diskoko abestiak jo zituzten batez ere. Abestietako batzuk nahiko ezagunak ziren, irratian ere azkenaldian entzuten direlako.

Sarkor taldekoek hasi zuten zapatu gaueko kontzertua. | JULIO CALLEJA

Sarkor taldeak ongi bete zuen bere lana. Emanaldia bukatu zutenerako ikusleak berotuta eta gehiagoren zain zeuden.

Whiskiaren erregeak

The Riff Truckers taldekoak taula gainera igo zirenerako lehenengo ilarak jendez bete egin ziren. Whiskiaren erregeekin zoramena heldu zen Bergarako gaztetxera.

On Route diskoko abestiak jotzeaz gain, hainbat bertsio ere jo zituzten The Riff Truckersekoek; esaterako, Easy Rider filmeko soinu bandaren bertsioa. Dena dela, zapatuko gauerako propio gertatutako bertsio batek ikusleak zeharo bereganatu zituen, eta baita antolatzaileak ere. Bergarako gaztetxea kartzela bat izan zela jakin zutenez, Johnny Cashen *Folson Prision Blues* abestiaren bertsioa jo zuten.

Zoramena baina, gernikarren kontzertuetan ohitura den moduan, *Johnny Whisky* abestiarekin etorri zen. Jarraitzaileek bazekiten zer zetorren: whiskia edateko momentua. Abeslaria taula gainetik jaitsi eta jarraitzaileengana gerturatu zen whiskia eskaintzera. Abestia taula 20 bat lagunez beteta zegoela amaitu zen. Amaiera borobila!

Antolatzaileak oso pozik zeuden gauak emandakoarekin. 82 sarrera inguru saldu zituzten eta *www.txapairratia.org* webgunearen bitartez ere 12 bat lagunek jarraitu zuten kontzertua.

Ramon Arantzabal arrasatearraren lanak ikusgai, Nahikarin

Apirilaren 30era arte Ramon Arantzabal margolari arrasatearraren lanak ikusgai egongo dira Bergarako Nahikari tabernan. "Erakusketa honetarako erregistroak erabat aldatu nahi izan ditut, koloreak minimizatuz, espazioekin jolastuz, argiarekin, itzalekin. Metafisikoa eta metaforikoaren artean irrist egin dut atseginez", adierazi du Arantzabalek. Bisitariarekin konplizitatea lortzeko gainera, koadro bat zozketatuko dute hilaren 29an.

Avileseko Arte eta Ofizio Eskolaren erakusketa, Aroztegin

Egubakoitzean ireki zituen ateak Avileseko Arte eta Ofizio Eskolari buruzko margo erakusketak Bergarako Aroztegi aretoan. Eskolarekin lotura estua izan duten irakasle eta margolarien lanak daude ikusgai: Favila, Guille Fernandez, Ristra eta Rafa Dueñas, besteak beste.

Avileseko Arte eta Ofizioen Eskola 1879an sortu zen. Gaur egun 40 bat diziplina ematen dituzte eta 1.800 ikasle inguru dituzte ikasturte bakoitzean.

Korrikari adio eta bi urte barrura arte esateko, kontzertu berezia eguenean

Gose eta Anger taldeek kontzertua eskainiko dute Arrasateko gaztetxean

A.B. | ARRASATE

Euskararen aldeko lasterketa garrantzitsuena eguenean iritsiko da Debagoienera. Goizean goiz sartuko da gure ibarrean Elgetatik, baina festak eta ospakizunak egun guztiak iraungo du, goizaldeko ordu txikietara arte, seguruenik.

Arrasaten egun osoko egitaraua antolatu dute. 17:00etatik aurrera txokolatada egingo dute txikiendako Herriko plazan eta ondoren, Txatxilipurdiko lagunek jolasak egingo dituzte. 18:00etan Konpartsa txikiak girotuko ditu kaleak eta 18:30ean ekitaldi nagusia egingo dute Herriko plazan, besteak beste, Patxi Uribarren euskaltzaina omentzeko. 19:30ean, gero, DJ festa egongo da Elvis Cainorekin.

"Pausoz pauzo gelditu barik"

Egunari amaiera borobila emateko Gose eta Anger talde arrasatearrek kontzertua eskainiko dute Arrasateko gaztetxean, 22:00etan hasita.

Zalantza barik kontzertu berezia izango da eguenekoa; kontuan izanda Gosek jarri diola musika eta letra Korrika 17ri; talde arrasatearrarena da *Euskalakari* abestia. Abestiak dioen moduan "Pausoz pauso gelditu barik" girotuko dute eguen gaua Arrasateko gaztetxean.

Gosek egin du Korrika 17ren abestia. | MUSIKAZUZENEAN.COM

Ohiko duten moduan trikitia elektronikoarekin uztartuta, abesti alaia, dantzagarria eta freskoa egin dute Ines Osinagak, Iñaki Bengoak eta Jon Zubiaga *Osoron*-ek.

Dena dela Anger taldea izango da taula gainera igoko den lehena. Disko berria kaleratu zuten duela urtebete pasatxo eta hura aurkezten dihardute azken aldian. Arkaitz Biain taldekideak azaldu du gainera sorpresaren bat ere egon daitekeela: "Kontzertu polita izango da eguenekoa; gainera, Gosekoak lagun onak ditugu", azaldu du Biainek.

Bi talde arrasatearrak ezagututa argi dago gau dibertigarria izango dela. Korrika bi urte barrura arte agurtzeko modu ezin hobea.

Laburbira, euskarazko film laburren zirkuitua, Arrasatera iritsiko da martitzenean

Bederatzi lan ikusteko aukera egongo da, tartean, 'Artalde' eta 'Maritxu'

A.B. | ARRASATE

Topagunearen film laburren zirkuitua da Laburbira eta aurtengoa 8. edizioa du. Bihar, martitzena, iritsiko da Arrasatera eta zirkuituak geldialdia egingo du Kulturaten, 19:00etan hain justu ere.

Bederatzi ikus-entzunezko ikusteko aukera egongo da tartean, bi debagoiendarren lanak: Asier Altunaren *Artalde* (2009) eta Kepa Errastiren *Maritxu* (2010). Bi film labur horiez gain honako hauek ikusi ahalko dira: *Ondar ahoak* (Angel Aldarondo), *Blanc Postcards* (Artola, Gurtubai eta Vigil-Escalera), *S@rtalde* (Juan Artola Artano), *Esku-titi* (Saioa Aizpurua), *Biak bat* (Zapatillas film taldea), *Barrura begira* (Trataka taldea) eta *Nire bista faboritoa* (Kontraplano taldea).

Emanaldiak guztira ordubeteko iraupena izango du eta film labur bakoitza ikusi ostean solasaldia egiteko aukera izango da Kepa Errastirekin.

'Maritxu'. | GOIENA

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GURE MUSIKA TALDEAK

JUAN CARLOS IRIZAR

Juan Carlos Irizar musikari oñatiarra, Zegaman egindako aurkezpen kontzertuan. | JUAN CARLOS IRIZAR

"Aizkorpeko herriei eta ermitei eskaini diet sentimenduz egindako disko hau"

- Zortziko erritmoa duten 18 abestik osatzen dute disko berria
- Hurrengo lana prestatzeko, barrualdetik kostaldera begira dago Irizar

MAIDER ARREGI | OÑATI

Zegama, Zerain, Idiazabal, Segura eta Mutiloari, Aizkorriko puntatik ikusten diren herriei eskaini die *Aizkorriko ataria* izeneko lana Juan Carlos Irizarrek. 1981ean argitaratu zuen lehenengo diskoa eta musika bere bizitza dela kontatu digu musikari oñatiarrak.

Herri bakoitzari doinu bat egin diozu zortziko erritmoan.

Bai; barrualdeko herriek xarma berezitasuna dute. Kostaldekoak baino indar handiagoa dute eta zortzikoaren indarra eman nahi izan diet. Geure erritmo tipikoa da. Horregatik, doinu ezberdina baina erritmo bera daukate abestiek.

Diferentea da disko hau.

Oso disko ezberdina da. Halako parajeetan ermita bat ikustea, esaterako, sekulakoa da! Inpresio, sentimendu intentsuak eragiten dizkit musika egiterakoan. Oso musika sentikorra da.

Mistizismo kutsua daukate disko honetako abestiek.

Kantuek historia bat daukate atzean. Berezia da eta nire musikan nabari egiten da hori. Mistizismoa dutela uste dut.

Iker Zubeldia bertsolariak idatzi ditu letrak.

Iker Zubeldiak bere xarma eman die abestiei. Artista hutsa da. Hark, bertsoak egitean, herri bakoitzaren bereizgarritasuna, puntu hori ematea lortu du. Egindako lanarekin gustura geratu gara biok. Oso ondo moldatu gara elkarrekin. Niretzako zoragarria izan da egindako lana. Zegamako ereserki berria egin dugu zortzikoan. Zubeldiak herri horiek ezagutzen ditu eta Zegamak daukan bereizgarritasun hori ematea lortu dugula uste dut.

Pentagrama eta guzti, Aizkorriko ermitatik bueltaren bat emango zenuen, ezta?

Bai, noski! Aizkorrira joaten nintzen bakoitzean beti pentsatu izan dut abesti bat egin behar niola Aizkorriri. Eta momentua orain dela ikusi dut. Goiko lasaitasuna eta edertasuna ikusgarria da benetan.

Mendi buelta bakoitzeko doinu ezberdin bat irteten zaizu?

Gorputza egunero ezberdin dago eta egia da sentsazioak ere beste era batera ikusten direla. Mendi buelta bakoitza doinu bat da. Nik ukitu erromantikoa eta intimista eman nahi izan diot.

Piano ezberdinak erabili dituzu.

Nik normalean piano akustikoa erabiltzen dut. Baina bi doinutarako, San Pedro eta San Adrianen kantuetarako piano elektrikoa sartu nahi izan dut. Izan ere, San Adriango koba ondoan ura sortzen da eta bertako sentsazioari bibrafonoa dagokio. San Pedrorekin berdin gertatzen da: bertako baselizan 95 urteko Joxe Alustitzarekin topo egin nuen eta egunero errezatzera joaten zela esan zidan. Istoriook entzunda, toki horiek tinbre goxoagoa eskatzen zutela ohartu nintzen; bibrafonoarena, alegia.

Orain itsasaldeko beste kolore batzuekin zabiltza, ezta?

Bai, itsasaldeko usaina, gatza asko gustatzen zait. Urtebete mendialdean egin dut eta orain olatuen alboan eseri eta musika egiten hasi naiz. Hurrengo lana kostaldekoendako izango da!

ZERTZELADA

GOIERRIKO ATARIA

Estiloa: Folka.

Egilea: Juan Carlos Irizar.

Argitaletxea: JK

Iraupena: 51,9 minutu.

Bakea eta paisaiaren behatzeko modua

Dagoeneko ia zenbatezina da Juan Carlos Irizarrek kaleratutako diskoen kopurua; langile nekaezina da oñatiarra. Inspirazio, lantalde eta bidelagunak lortuz, tematika desberdineko diskoak egiten ditu; oraingoa, Aizkorritik ikusten diren herriei eskainia. Pieza ia guztiek pianoa dute oinarri, jakina, eta asko ahots gabekoak dira, baina soinuek, haize-instrumentuek eta gitarrek lagundutakoak ere badira. Badaude folk malenkoniko ugari, sehaska-kantuak, abesbatzen indarra, ia balsera hurbiltzen den zortzikorik eta tex-mex ukitua duen kanturen bat ere. Beharbada Aizkorrin entzunda beste modu baten gozatuko nuke, baina 18 kantu asko dira eta bizitasun handiagoa eskatuko nuke!

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 72 metro eraikiko etxebizitza salgai. 50 metro koadro erabilgarri. Erdigunean. Jantzia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 64 67 38

Arrasate. Etxebizitza salgai Zarugalden. Hirulogela, bi komun eta egongela handia. Oso eguzkitsua. Igogailu eta berokuntzarekin. 618 19 10 95 edo 646 97 36 79

Azkoitia. Etxebizitza salgai Azkoitian. Berritzeko. Aizkibel 6-4. 91m2. 618 10 31 62

Bergara. Bergarako Martoko kalean etxebizitza salgai. 65 metro, berrituta eta eguzkitsua. Bi logela, egongela, komuna, bi balkoi eta sukaldea. Igogailua eta sotanoa. 625 70 84 55

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 179.000 euro. 607 71 53 53

Oñati. Bidebarrieta kalean 90 m2ko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, ganbara eta garajea. 656 79 88 12

Oñati. Kalebarria 32an 80 m2ko etxebizitza ederra salgai. 9 urteko aintzinatasuna. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi bat. Igogailua eraikin berean garajeraino dauka. Kalitate handiko etxebizitza, diseinuzko altzariz hornitua. Prezio negoziagarria. Garaje itxia aukeran. 622 42 83 18

Oñati. Kalebarria 37an 71 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna, guztiz hornituak. Patio erabilgarria eta ganbara. Garaje itxia aukeran. Prezio ona. 665 71 77 98

Oñati. Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 647 24 80 02.

103. ERRENTAN EMAN

Ainsa (Huesca). 50 m2ko. Atiko berria alokagai udaran. Bi gela , komuna, sukaldea eta egongela. Oso polita. Kanpora begira. Asteburu, aste edo hile osorako. 630 67 48 64

Arrasate. Kontzeziño kalean etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi komun, igogailua, berokuntzarekin... Deitu 626 58 31 17 telefonora.

Eskoriatza. Baserria ematen da errentan Eskoriatzan, erosteko aukerarekin. Deitu 19:00ak eta 20:00ak artean 693 80 40 47 telefono zenbakira.

Marina D'Or. Oropesa del Mar, Castello. Apartamentua ematen da errentan Aste Santu, Bergarako jaietan edo udako denboraldirako. Marina D'Or urbanizazioan. Lehenengo ilaran. Bi logela, bi komun, egongela, sukaldea eta terraza handia. Itsasora begira. Aparkaleku plaza. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 75 62 51

Zaldibar. Apartamentu bat alokatzen da bikote batentzako aproposa. Interesik izan ezkero deitu arratsaldeko 8:00 tik aurrera telefono zenbaki honetara: 946 82 73 69

104. ERRENTAN HARTU

Bergara edo Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 12 61 44

Durango. Neska langilea durango edo iurretan alokatzeko pisu bila. Interesatua bazaude deitu zenbaki honetara: 667 92 38 91

Iurreta. Iurretan, 2 gelako etxea alokatu nahi dut. Igogailuarekin. 665 70 22 03 (Idoia).

Zarautz. Bikote gazte, arduradun, eta lan iraunkordunak pisua/apartamentua alokatu nahi du zarautzen urte osorako. Interesatua bazaude deitu zenbaki honetara: 652 75 34 38

Zarautz. Alokagai dagoen apartamentu bila gabiltza urte osorako. Bikotea haurrarekin. Arratsaldez deitu 626 08 19 97 telefonora.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Bainugela duen logela ematen da errentan. Etxe berria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 682 70 32 17

Aretxabaleta. Gela baten bila nabil sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Interesatua bazaude deitu zenbaki honetara: 943 79 77 44

Aretxabaleta. Logela bat daukat errentan emateko, neska ikasle batentzat. Ni ere neska naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 21 60 95

Arrasate. Logela bat ematen da errentan Arrasateko erdigunean. Interesatua bazaude deitu zenbaki honetara: 648 86 05 49

Arrasate. Pertsona euskalduna behar da erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko. Interesatua bazaude deitu zenbaki honetara 636 05 36 18. Jone

Arrasate. Logela ematen da errentan sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Deitu 618 00 08 28 telefonora

LAN POLTSA

ERIZAINTZAKO DIPLOMADUNA

Oinarri-arauak:
Mizpirualde zaharren egoitzan eta *www.bergara.net* webgunean jaso daitezke.

MIZPIRUALDE ZAHARREN EGOITZA
Bergara - Tel.: 943 76 13 68.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:
943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO
- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garajea irekia salgai Aretxabaletako Loramendi kalean. 4,76 x 2,50 metro kuadro ditu. 943 79 93 77

Bergara. Ibargarai kalean (Torrekua erretegiaren ondoan) garaje itxia salgai. Prezioa 7.000 euro. 605 77 57 33

Durango. Garaje itxia salgai durangoko tronperri kalean. 628 78 78 35

202. ERRENTAN EMAN

Elorrio. Garaje itxia alokagai Elorrion, auto bat eta trasteak sartzeko tokiarekin. Elorrioko Nizeto Urkizu kalean dago. Interesatuak telefono honetara deitu: 660 45 87 56.

204. ERRENTAN HARTU

Berriz. Garaje itxi bat behar da Berrizen auto bat eta txakur txiki bat izateko. Alokagai izanez gero deitu 94 622 57 24 edo 680 50 95 32 telefono zenbakietara eta Izaskun edo Jose Marirengatik galdetu.

Eskoriatza. Eskoriatzako erdialdean, hala bada, garajea hartuko genuke errentan. Alokagai izanez gero deitu 943 79 01 07 (Arantxa) edo 669 90 73 77 (Fran) telefono zenbakietara.

Bergara. Logela ematen da errentan Bolun. 670 85 86 68.

Bergara. Herri erdialdean hiru logelako etxe bat betetzeko pertsona bat behar da. Aitor eta Jon. 608 42 23 51 edo 628 45 10 37.

Donostia. Gela bat alokatzen dut Intxaurrondo zaharrean. Berritua. Berogailu zentrala du. Argitsua, gela guztiek kanpora ematen dute. Trena bertan du eta autobusak ere bai. Grosetik 20 minututara oinez. 685 71 81 58. Maialen

Deba Garaia Inmobiliaria
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Sanantonabat, 75 m2, oso ondo, eguzkitsua, loralegia.
- Aranerreka, 80 m2, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m2, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m2, eguzkitsua, oso ondo.
- Fraizkozuri, 75 m2, eguzkitsua, berritua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m2, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m2, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m2, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m2.
- Martoko, 87 m2, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m2, ondo.
- Ibargarai, 80 m2 oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m2 oso ondo.
- Zabalotegi 80 m2, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m2, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m2, berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m2, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m2, oso ondo.
- Zubieta, 125 m2, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m2, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m2.
- San Antonio, 65 m2, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m2, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m2. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m2. Berria. Garajearekin.

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m2, berria.
- Sagarerreka, 58 m2, aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

Durango. Garajea saltzen da. Durangoko erdialdean kokatua dago, Tronperri kalean. Itxia. Saltzeko premia du. Prezio negoziagarria. Interesatuak telefono honetara deitu dezakezue: 686 73 44 51

Korosti Inmobiliaria
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Martoko. 70 m2. Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68m2. Terrenoarekin.
- Artekale 40 m2. Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m2. Igogailuarekin.
- Koldo Eleizalde. 74 m2. Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 m2. Eraikuntza berria.
- Osintxu. 84 m2. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m2. Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m2. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m2. 162.273 €.
- Matxiategi 65 m2. Igogailuarekin. 190.000 €.
- Ibarra 47 m2. 146.888 €.
- Mizpildi. 70 m2. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 70 m2. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m2. 154.761€.
- Aranerreka 80 m2. 189.319€.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Herri Lagunak 52 m2. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamendi. 75 m2. Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m2. Oso etxe ona.

Elgeta:
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

Soraluze:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

3. LOKALAK

301. SALDU

Elorrio. 350 m2-ko pabilioia salgai edo alokagai, 60 m2-ko bulegoarekin. Prezio interesgarria. Tel.: 634 45 72 01

ESKORIATZA
Naira taberna errentan ematen da.
Aukera ona.
645 70 36 63

ARRASATE
Taberna salgai alde zaharrean. Prezio oso onean.
666 40 65 19

302. EROSI

Bergara. Lokal komertziala erosiko genuke. Bestela, lehenengo edo beheko solairuan dagoen etxebizitza. Ahal bada, san lorentzo edo matxiategi aldean. 656 74 74 78 / 605 76 32 72

304. ERRENTAN HARTU

Oñatin. Negozio berri bat jartzeko 60 metro koadro inguruko lokal bat hartuko nuke errentan. 943 53 28 15

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BERGARA
Azpeitxi jatetxean zerbitzaria behar da barrarako.
943 76 55 00

Bergara. Pertsona euskalduna behar da ume bat zaintzeko, 17:00etatik 20:00etara. 679637391 edo 679 63 73 91

Berriz. Berrizko andra euskalduna behar da ume bi zaintzeko. Ordu bat goizetan eta bi ordu eta erdi arratsaldetan. 626 84 18 70 (arratsaldez deitu)

Ibarra. Emakumea behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 943 67 05 70 arratsaldez.

Getxo. Pertsona euskaldun behar da arratsaldez umeaz arduratzeko eta etxeko lanak egiteko. 94 430 56 50 gauez.

402. ESKAERAK

Arrasate. Arrasateko neska euskalduna etxeak garbitzeko prest, esperientzia handikoa. 618 41 24 79

Arrasate. Hemengo neska etxeko lanak, umeak zaintzeko edo edozein lanerako prest. Orduka ere bai. 659 55 27 16

Arrasate edo Aretxabaleta. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko gauetan edo asteburuetan. Eskarmentuduna. 618 00 08 28

Arrasate edo Bergara. Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbiketan edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin. 634 84 41 94

Arrasate. Emakumea gertu lanerako. Garbiketak egiten edota etxean bertan bizi izaten. Ana Luisa de los Santos. 673 78 08 99

Arrasate edo Bergara. Neska gertu etxeko lanak egin, nagusi zein umeak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Orduka, etxean bertan bizi izaten, gauetan edo asteburuetan ere lan egingo nuke. 616 60 23 78

Arrasate. Bertako emakume euskalduna, 52 urtekoa, lanerako prest. Nagusiak zaintzen aritua naiz. 943 79 60 89

Arrasate. Bertako neska gertu orduka garbiketa lanak edo umeak zaintzen jarduteko. 943 77 00 26

Arrasate. Asteburuetan edo orduka lan egingo nuke ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. 682 31 97 37

Debagoiena. Esperientziadun neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Rakel. 665 70 37 83

Debagoiena. Bergara edo Arrasaten. Garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko gertu, 15:30etik 21:30era. 677 81 10 00

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko prest egongo nintzateke. Beste lan batzuk ere egiteko prest. Auto propioa daukat. Gilberto. 654 24 13 27

Debagoiena. Eskarmentudun neska gertu asteburuetan edo orduka nagusi zein umeak zaintzeko. Pertsona arduratsua naiz eta lanerako gogo handiz. 627 15 09 34

Debagoiena. Emakumea gertu asteburu edo gauetan nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Elkarteak ere bai. 699 09 46 26

Debagoiena. Emakume arduratsu eta esperientziaduna umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da, baita garbiketa lanak egiteko ere. Gloria. 630 26 13 28 / 943 79 13 88

Debagoiena. Emakume arduratsua, eskarmentuduna, gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Orduka, gauez, egunez zein etxean bizi izaten lan egingo nuke. 695 74 05 54

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Egunez, gauez, orduka zein etxean bizi izaten. 60662 37 82

Debagoiena. Emakumea gertu ile apaindegian lan egiteko edo garbiketa zein nagusien zainketarako. 619 23 37 30

Debagoiena. 27 urtekomutil gaztea nahiz eta lana bila nabil, edozein motatakoa, sukaldean eta obretan zein margotzen esperientzia handia daukat, baita hortuetan ere. Pare bat ordu badira ere beharrean bainago. Deitu 689 68 56 81 edo 606 74 42 37 zenbakietara.

Debagoiena. Etxeak, lokalak eta lantokiak margotzen dituen 3 urteko esperientziadun mutila naiz. Lan ona, azkarra eta merkea egiten dut, deitu galdetzeko lasai asko. Paretak garbitu, masa heman eta margotzen ditut. Deitu 648 68 24 30 edo 648 68 24 30 telefonora.

Debagoiena. Gizon arduratsua, heziketa onekoa eta ikasketak dituena edonolako lanak egiteko eskaintzen da. Pertson nagusien zaintzan esperientziaduna. Ordutegi moldagarria. Victor. 660 59 77 20

Debagoiena. 45 urteko emakumea, eskarmentuduna, nagusi zein umeak zaintzeko edo atari eta enpresak garbitzeko gertu. Deitu 685 21 24 89 edo 662 57 53 46 zenbakira.

Debagoiena. Esperientzia duen emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. 650 17 74 87

Debagoiena. Gizon arduratsua gertu edozein lan egiteko. 669 64 76 28

Debagoiena. Arrasate edo Bergara. Emakume euskalduna gertu orduka plantxa edo bestelako etxeko lanak egiteko. 699 54 17 27

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, eta zerbitzari edota sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko. 697 54 28 76 / 682 35 90 60

Debagoiena. Mutil eskarmentuduna gertu garbiketa lanetan jarduteko. 689 88 80 23

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Garbiketa lanak, nagusiak eta umeak zaindu edo tabernetan lan egiteko. Iris. 677 73 79 59 / 943 53 36 72

Debagoiena. 25 urteko neska sukalde laguntzaile lanerako gertu. Elikagaien manipulazio baimena eta sukaldaritza ikastaroa egindakoa. 634 29 24 45

Debagoiena. Emakume gaztea gertu lanerako: umeak zaindu, nagusiak, garbiketa lanak eta abar. Yasna. 617 28 08 07

Debagoiena. Emakumea gertu arratsaldetan lan egiteko. Garbiketak, nagusi zein umeak zaindu eta abar. Malena. 663 15 39 92

Debagoiena. Neska arduratsuak lan egingo luke nagusiak zaintzen edo egoitzatan geriatria laguntzaile gisa. Bost urteko eskarmentua. Garbiketa lanetarako ere gertu nengoke. 629 80 77 73

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Egunez, gauez, orduka zein etxean bizi izaten. 606 54 89 90

Debagoiena. Eibar. Taberna edo jatetxean lan edo garbiketa lanak egingo nituzke. Baita pertsona nagusiak zaindu ere. 605 54 45 34

Debagoiena. Gizona gertu edozain lan egiteko. Deitu 654 24 13 27 zenbakira.

Debagoiena. Neska boliviarra, eskarmentuduna, lanerako gertu. Egunez zein gauez, orduka edo egun osoz, garbiketa eta bestelakoetan. Legezko paperak ditut. Interestuok deitu zenbaki honetara: 618 14 71 34

Debagoiena. Sukaldari lanak egingo nituzke arratsaldeetan edo asteburuetan. Eskarmentuduna. Interestuok deitu zenbaki honetara: 619 78 63 41

Debagoiena. Mutil gaztea gertu sukaldari lanak egiteko. Euskal sukaldaritza ezagutzen dut eta menua eta karta egiten dakit. Miguel. Deitu 634 40 66 47 edo 943 79 74 13 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Neska sahararra, 20 urtekoa, nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Arduratsua. Galia. Interestuok deitu zenbaki honetara: 688 29 67 41

Durango. Neska euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiei lagundu edo umeak zaintzeko, astelehenetik ostiralera, goiz edo arratsaldez. 94 658 33 32 edo 688 676 588

Durango. Zurgintza orokorreko lan bila nabil (ateen, leihoen, tarimen eta parketaren jartzea, armairu eta sukaldeak neurrira eginda,...). 669 44 77 64

Durango. Arratsaldetan pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Zaindu programa eginda daukat eta Diba kooperatiban, tartean, mendekotasunaren ingurukoa. Interestuok deitu zenbaki honetara: 616 53 13 09 (Ana).

Durango. Erreferientziadun neska pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest, baita etxeko, portaletako edota tabernetako garbiketarako. Lanaldi osoan, interna edo orduka. 620 82 85 79

Tolosa. Ikasteko gogoa duen neska langilea eskaintzen da, arrandegian, harategian eta supermerkatuetan lan egiteko. Pertsona nagusiak, haurrak zaintzen eta garbiketan esperientzia. Harremanetan jartzeko deitu telefonozenbaki honetara mesedez: 600 87 69 42

Zarautz. Gizon euskalduna naiz, lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Interestuok deitu zenbaki honetara: 658 73 08 08

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aste Santuan zehar batxilergo bigarren mailako matematika eta fisika eskolak jasoko nituzke. Ondo ordainduko dira. Interestuok deitu zenbaki honetara: 695 72 79 55

Debagoiena . Ingeleseko ahozkotasuna lantzeko esperientziadun irakasle baten bila nabil. Astean bizpahiru ordu, arratsaldez. Lehenbailehen hasteko. Interestuok deitu zenbaki honetara: 665 72 79 38

Durango. Ingeles irakaslea behar da 15 eguneko amatasun baja bat betetzeko, ekainaren 1etik 15era. Ezinbestekoa: gramatikan eta mintzamenan maila altua izatea. Jatorrizko hiztuna izatea baloratuko da. 656 77 07 74. Olatz

502. EMAN

Arrasate. Neska euskalduna, ekonomian lizentziaduna, eskola partikularrak emateko gertu. 679 97 76 46

Arrasate. Neska gazte euskalduna lehen hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest. 616 32 73 08

Arrasate. 5.mailako ingenieritza ikaslea Arrasaten eskola partikularrak emateko prest. 625 74 91 50

Arrasate. Ingenieritza ikasten dabilen neska LH, DBH edota Batxilergoko klase partikularrak emateko prest arrasate edo inguruetan. 606 88 94 20

Arrasate. Unibertsitateko ikasle euskalduna eskeintzen da partikularrak emateko. Interestuok deitu zenbaki honetara: 636 12 05 79

Arrasate. Neska lizentziatua LH eta DBHko eskola partikularrak emateko prest. Ingeles eta euskara maila ona. Irlandan lanean 6 hilabeteko esperientzia. 658 73 30 07

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618 91 32 89

Bergara. Eskola partikularrak emango nituzke. Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta ingelesa. 645 72 01 50

Bergara. Bergaran frantseseko eskola partikularrak ematen ditut. Interestuok deitu zenbaki honetara: 679 74 00 61

Bergara. Unibertsitate ikasketak dituen pertsona euskalduna, DBH eta batxilergo mailako eskola partikularrak emateko prest. Behar izanez gero, jarri nirekin harremanetan 645 71 81 84

Donostia. Klase partikularrak Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. Behar izanez gero, jarri nirekin harremanetan: 628 04 15 26.

Donostia. Panderoa, kainabera eta txaramelak. Asteazken goizetan, donostiako arrano beltza euskal tokian (Ikatz kalea, 10) informazio gehiago: arranokoikastaroak@gmail.com

Donostia. Euskaraz zeiningelesez. Idatzi: luma@euskalnet.net e postara: www.euskalnet.net/maxeweb

Donostia. Ingeleseko klaseak Donostian (17 euro) edo elkarrizketa (15 euro)

Durangaldea. Mutil euskalduna matematika eta fisika klaseak emateko eskaintzen da Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Deitu 635 74 34 09telefonora.

Durango. Esperientziazabala duen ingeleseko irakaslea klase partikularrak emateko prest. Ordutegi zabala prezio ezin hobearekin. Zure maila berreskuratu, hobetu edo landu nahi ezkero, deitu inongo konpromisorik gabe: 686 84 06 27

Gernika lumo. Industria antolakuntzako goi ingeniariak (euskalduna) eta klaseak ematen 3 urteko esperientziadunak, matematikako klase partikularrak eskaintzen ditu 1. Dbhtik 2. Batxilergora bitartean. 606 86 40 79. Deitu konpromezu barik

Gitarra eskola partikularrak Durangon. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazza, funka eta abar. Eskalak, akordeak, errimtoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... 650 17 22 85

Ondarroa. Trikitixa jotzen irakasten dut. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 661 12 56 47 telefonora.

Villabona. Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Interestuok deitu zenbaki honetara: 664 16 02 68 edo idatzi mezua continental56@hotmail.com posta elektronikora.

6. MOTORRA

601. SALDU

Audi Coupe 2.3 in gorria salgai. 1992koa. 168.000km. 2000eur. Pertsona negusiek erabilia. Istripurik ez. Beti garajean. Iat a 2012ko otsailerarte. Mugik. 646 37 76 13 . Behar ezkero, mekanikoaren telefonoa ematen dugu. Elorrio

Opel corsa 1.3 cdti autoa salgai. Debagoienan. Opel corsa 1.3 cdti autoa salgai. 70 zp. 2004koa. 90.000 kilometro. Egoera ezinhobean. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 57 36 97

Renault traffic-a salgai. Renault traffic a salgai. Matrikula: frt8367. 59.000 km. Atzean, portoia barik, bi ate ditu. Kristal tintatuak. Turismoa. Kolorea: beltza. 661 33 24 46

Kawasaki - versys 650. Egoera onean, beti garajean. 2007koa da. 12.400 kilometro, gorria. Kutxa opari. Oharra: limitatuta dago.4.000 euro. Harremanetan ipintzeko: 690 07 15 72.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. 656 77 29 94

Aumak salgai. Aumak salgai Abadiñon. Hilda: 11 euro/kg. Bizirik: 5,5 euro/kgdeitu 20:00-tatik aurrera. 667 93 93 70.

Border colliak salgai. Otsailaren 22an jaioak. Aita-amak pastore lanetan arituak. Bi eme eta ar bakarra. Parasitoak kenduta entregatuko ditugu. Prezioa 160 euro. Tel.: 690 21 91 91.

703. EMAN

Katuak Gasteiztik. Katu abandonatuak kale gorritik atera, zaindu eta pertsona arduratsuei bakarrik ematen dizkiegu. Benetan maitagarriak eta ondo hezituak; bizitza eztituko dizute, duda barik. Gasteizen gaude, baina beste lekuetara ere eramaten ditugu. www.esperanzafelina.com edo 650 80 76 72.

704. BESTELAKOAK

Arratoi txakurra galdu. Arratoi txakurra galdu zen otsail hasieran elosu inguruan. Arra da, zuri-marroia, eta bi lepokorekin. Batean txintxarria dauka zintzilik. Argi izenari erantzuten dio. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. Kontxi. 630 62 15 97

8. DENETARIK

801. SALDU

Belar ondua salgai debagoienean. Belar ondua salgai debagoienean. 619 16 41 68

Esku-ohea. Sakanan. Masajeak, depilazioak egiteko.... Esku-ohea salgai. 90 euro. Oso egoera onean. 669 27 35 49.

Esnea ateratzekoa. Debagoienan. Bularreko esnea ateratzeko tresna salgai. Avent etxekoa. 40 euro. Idatzi marysea15@hotmail.com helbidera edo 653 72 22 54

Gurpildun aulki elektrikoa salgai. Debagoienan. Gurpildun aulki elektrikoa salgai. Erabili gabea. Erositako prezioan, 1.500 euro. 677 38 85 64

Fruitategirako. Fruitategirako apalak, montradorea eta pisatzeko gailua salgai. Bost hilabete daukate. 696 84 19 51.

Motoaitzurra eta motokultorea salgai. Agria 3000 motoaitzurra eta agria 2700 motokultorea salgai. 94 682 45 90

Olympus E-PL1 argazki kamera berria salgai. Debagoienan. Argazki kamera Olympus E-PL1 argazki kamera berria salgai. M. Zuiko digital ed 14-42mm objetiboarekin, 12,3 megapixels eta bere osagarri guztiekin 275 €. 627 34 91 77

Pianoa. Hormako pianoa salgai. Presazkoa da. 500 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Antoniogatik. 607 06 22 20

Pinu trinkozko egurrezko altzaria eta aparadorea salgai. Pinu trinkozko egurrezko altzaria salgai egongelarako. Erdiko altzaria 3,26 mko luzerarekin eta 2,16 mko garaierarekin eta aparadorea material berdinean 1,62 metro luzeran x 0,88 m altueran. Elkarte edo lokalen baterako ere egokiak. Dena 700 eurotan salgai. 690 67 43 15

Sofa salgai. 3 metroko sofa urdina salgai. Lau leku eta bosgarren bat eskuma aldera. Oso erosoa. Prezioa 350 euro. Kontaktua: 676 330 436.

Txakurrarentzako txabola. Anoetan, txakurrarentzako txabola baten bila nabil, erosteko edo alokairuan hartzeko. 680 10 39 59.

Uhal garraiatzailea. Zinta transportadora. Hainbat gauza garraiatzeko balio duen uhala salgai: patatak, belar-fardoak, zerealak eta abar. Egoera onean. 677 78 37 72

Umearendako aulkia. Oso egoera onean dauden haurtxoen grupo 0, kapazoa eta aulkia dittut saltzeko. Jane Slalom Pro da beronen marka eta 450 euro eskatuko nituzke hiru gauza hauengatik. 647 97 82 73

Umeen karroa salgai. Umeen karrotxoa saltzen dut, ia erabili barik dago Çcity mine singleÈ bat da Çbaby joggerÈ markakoa, oso erabilgarria eta konplementu guztiekin: beheko bandeja, parrillatxoa eta hankak jartzeko plataforma. 350 €. Interesatuak deitu: 696 39 73 87.

Umeendako kapazoa. Oso egoera onean dagoen umeendako kapazoa eta aulkia. Arrue derby modeloa. 180 euro. Zakua opari. 652 74 85 82

Xbox + kinect. Adventure jokoarekin, salgai. Kutxatik atera barik. 260 euro. 649 77 74 60

802. EROSI

Lursaila. Etxarri Aranatzen baratzea jartzeko ura duen lur saila erosiko nuke. 605 76 54 08.

Soinua erosiko nuke. Egoera onean dagoen, 3-4 ahotsetako soinu bat erostea gustatuko litzaidake. 660 83 78 55

803. EMAN

Arropa eta zapatak. Neska gazteendako moduko arropa eta zapatak ematen dira opari. 679 09 33 34

804. HARTU

Antzerkirako arropa. AEDk behar ditu: euskal selekzioaren bufanda, Gora Euskaditxanoa, 44 zenbakiko skate zapatilak, EHko surf federazioaren sudadera kramaileraduna, pintxodun gerrikoa. Berdin da zaharkituta edo egoera txar samarrean badaude. Ordaintzeko prest ere bagaude, baina merke beharko du izan! Harremanetarako *aed@aedelkartea.com* edo 943 77 12 28

806. GALDU

Txamarra Bergaran. Bergaran zapatu gauean, apirilaren 2an, Gaztetxea, Boulevard eta Eusebio tabernen artean zamarra galdu nuen. Beltza da eta Madness-en partxea du. 629 06 93 60

807. AURKITU

Belarritakoa Etxarrin Aranatzen. Zilarrezko belarritako luze bat topatu dute plazan. Beleixe irratian dauka .

808. BESTELAKOAK

Erretrobisorea apurtuta. Apirilaren 4an, 17:30ak inguruan, Arrasateko Grupo San Juanen autoko erretrobisorea apuntu zidaten. Emandako telefono zenbakia Huelvan bizi den pertsona batena da. Kotxea apurtu, zerikusirik ez daukan mugikorra jarri eta gainera aupergira barre egin? Norbaitek ikusi badu, mesedez abisatu. Apurtutako kotxea Opel Tigra horia da. 943 79 96 55 edo 685 72 46 86

ARAMBURU Etxeen administrazioa Higiezinen kudeaketa
943-65 17 13 / 664-37 25 60
www.aramburunet.net

SALGAI

- **Etxebizitza.** Amazabal kalean, igogailuarekin, Leitzan,Nafarroa.
- **Lokala.** Foruen kalean, Tolosan.
- **Garaje itxiak eta irekiak.** Tolosa, Ibarra eta Iruran.

ALOKATZEKO

- **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Herreros kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
- **Garajeak.** Larramendin, Tolosan.
- **Txokoa.** Tximinia, komuna, ohe bikoitza, ordezko ohea eta terraza, Baraibarren.
- **Lokala** Iurre auzoan, Tolosan.

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.
Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
Bergara. San Lorentzo kalean. 67 m2 etxebizitza 35 m2ko etxabe estalia. Eraikuntza berria. Estreinatzeko. Promotoretik salneurri berezia. 41.000.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. 41.000.000 pezeta.
Zarautz. Langako plaza (Salbiden). 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.
Zarautz. Vista Alegren. 3 logela, bainugela eta aseoa. Terraza handia hegoaldera. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta.
Zarautz. Erdialdean. 2 logelako atikoa erabat berritua. Igogailua eta gasa. 51.500.000 pezeta
Zarautz. 4. pisua igogailurik gabe. 2 logela. Berritu beharra dago. 35.000.000 pezeta.
Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
SALGAI
HERNANI Azkena. Terraza handia. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Sartzeko. 26.990.000 pta.
AMARA Olaeta kalea. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Sartzeko. 44.700.000 pta.
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 48.250.000 pta.
AMARA Azkena. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 49.990.000 pta.
AMARA Altua. Bistak ibaira. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 49.700.000 pta.
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Altua. Balkoia. 44.000.000 pta.
AMARA 85 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Dena kanpora. 51.700.000 pta.
ERDIALDEA Urbieta. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 43.990.000 pta.
AIETE Duplex oso polita. 2 logela, 2 egongela, sukaldea, bainugela. Balkoiak. 70.500.000 pta.
ANTIGUA Benta Berri. 90 m2. Altua. Terraza. Garajea, trastelekua. Polita.
ANTIGUA Matia. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 47.990.000 pta.
MARTUTENE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Parkinga. 28.990.000 pta.
ALTZA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 24.500.000 pta.
ALTZA 108 m2. 4 logela, sukaldea, egongela, 2bainugela. 30 m2-ko terraza. 46.500.000 pta.
ERRENTERIA Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 26.900.000 pta.
PASAI DONIBANE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 23.800.000 pta.
LEZO Eraiki berria. 2 eta 3 logelakoak. Terraza. Garajea. 280.000 €-tik gora.
ALOKAIRUAN
ERDIALDEA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 800 €.
ERDIALDEA Apartamentu oso polita. Bistak. Kanpora. 775 €.
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. 900 €.
BIDEBIETA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 750 €.
GROS Iparragirre. 2 logela, sukaldea, egongela handia, bainugela. 890 €.
USURBIL. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Polita. 690 €.
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

INMOKOSTA
INMOBILIARIA
SALDU
ARROA BEHEA. 3 gela, egongela, sukaldea, bainugela, balkoi handia. Kanpoaldera begira eta eguzkitsua. Garaje itxia. **210.350 euro (35 milioi pezeta)**
GETARIA. SAHATSAGA. DUPLEX ZORAGARRIA. 3 GELA, jan-egongela handia, 2 bainugela, sukaldea, balkoia eta solariuma. Igerileku gune eta guzti.
ORIO. ERAIKUNTZA BERRIA. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, bainugela, komuna, dena kanpora begira eta eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.
ORIO. Familia bakarreko etxe zoragarria. 3 solairu. 130m2 eta atikoa. Lorategia eta terrazak. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.
ZARAUTZ. ZIGORDIA kalea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoia. **276.470 euro (46 milioi pezeta)**.
ZARAUTZ. VISTA ALEGRE. 3 gela, sukaldea, bainugela, saloia. **211.490 euro (48.5 milioi pezeta)**.
ZARAUTZ. IXPILLA. 2 gela, saloi-jantokia, sukalde hornitua, bainugela. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.
ZARAUTZ. ARITZBATALDE. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, 2 bainugela, balkoia. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea. **414.700 euro (69 milioi pezeta)**
ZARAUTZ. ERDIALDEAN. 85m2. 2 logela, egongela ederra, sukalde hornitua, despentsa, bainua. Igogailua.
ZARAUTZ. MENDILAUTA. 3 logela, egongela bista ederrekin, sukalde hornitua, 2 bainu, balkoia, garajea. Aurretiko bistak.
ZARAUTZ. Etxe bat alokatu nahi dut udan.
943-83 55 18
www.inmokosta.com
Orape, 20 - behea • 20800 Zarautz

Euskal taldeek sustapenerako sare berria daukate 'Bandabeat.com'-en

Gustu eta antzekotasunaren araberako gomendatze sistema du guneak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Euskal musika talde hasiberrientzako tranpolin berria abiatu du Azkue Fundazioak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean. BandaBeat dauka izena eta *Myspace* eta, *Last.fm* sare sozialen antzera, talde berriak sustatuko ditu, bai gurean zein mundu osoan. Taldeek euren musika igo eta guneak berak sustatuko ditu abestiak, eta, erabiltzaileari, gustuko dituen taldeen arabera antzerako bandak iradokiko dizkio BandBeat-ek. Euskaraz zein edozein hizkuntzatan abesten duten taldeekin osatuko da sarea eta erabiltzaileari banda berriak proposatuko dizkio BandaBeat-ek, bere gustuen zein antzeko banden arabera. Taldeei euren musika igotzeko aukera ematen die eta guneak sustapenerako sistema dauka antzekotasunaren arabera.

Lehiaketak

Horiexek izango dira guneari bizia emateko modua, banden arteko lehiaketa birtualak antolatuta. Sari moduan, taldeei kontzertuak egin, irratietan sartzeko modua edota diskoa grabatzeko aukera emango diete. Dagoeneko ezaguna den Banden Lehia izango da lehiaketa horietako bat, aurrerantzean, BandaBeat-etik koordinatuko dena.



Gunearen irudi bat. | GOIENA

Europarlamentarien botoa aldatu zuten Twitterren erabiltzaileek eguaztenean

Turista mailan bidaiatzeari uko egin zioten politikariek eta erabiltzaileak tuiteatzen hasi eta erreakzio uholdea eragin dute haien aurka

J.B. | ARRASATE

Suziria piztu zuena Jorge Martinez (@cokeluark) izan zen. Eguazten gauean futbol partidua ikusten zebilela Twitterren zihardueten eskandalagarri iruditu zitzaion tuit baten bidez jakindakoa; hau da, Espainiako 36 eurodiputatuk uko egin ziotela turista klasean hegan egiteari. Albisteak asaldatuta, politikari horien zerrenda bilatu eta tuiteatzen hasi zen *#eurodiputadoscaraduras* etiketarekin. Hala, partiduaren erdian ibili zen tuiteatzen eta lagunez aparte zenbait kirol kazetari ere hasi ziren etiketa horrekin informazioa tuiteatzen, eta horrek ikaragarri zabaldu zuen ordu gutxian gaztearen salaketa.

Politikarien erantzuna

Eguen goizaldean bertan PSOEk eta UPyDk botoa aldatuko zutela esan zuten eta EAJko Izaskun Bilbaok azalpenak eman zituen, haren blogean azalduz nahi barik eman ziola abstenitzeko botoiari bozketetan eta bera hasieratik egon dela turista mailan bidaiatzearen alde.

Jorge Marínezek bidalitako lehen tuita. | GOIENA

Kazetariei orriaren bisiten arabera plusak ordaintzen has daitezke 'USA Today'-n

J.B. | ARRASATE

Prentsak Interneten zelan iraun behar duen zehaztuko duen eredua asmatzeko dago. *USA Today* egunkaria proposatzekotan dabilena da kazetariei euren albistearen bisita kopuruaren arabera plusak ordaintzen hastea. Sustapen modu hori zenbait blogetan erabili izan da, baina sekula ere ez kazetariekin. Bisita kopuruen arabera ordaintzearekin batera *USA Today*-n aztertzen dabiltza kazetariei euren istorioak sarean izan duten harrera eta arrakasta neurtzeko tresnak erabiltzen erakustea. Orrien estatistikak jaso eta euren albisteek izaten duten ibilbidearen lorratza jarraitzen erakutsiko liekete kazetariei.

Cameronek besteko soldata izango du Erresuma Batuko 'community managerrak'

J.B. | ARRASATE

Erresuma Batuko gobernua *community manager* baten bila dabil eta 161.497 euroko soldata agintzen dute; Cameron lehen ministroak kobratzen zuena baino 500 libera gutxiago da hori. Hedabide sozialetan presentzia eta eragin egokia izatea ezinbestekoa dela konturatzen hasi dira gobernuak eta dagoeneko Erresuma Batuan atera dute iragarki publikoa, hedabideetan jakinarazi dutenez. Lanpostuak Zuzendari Exekutibo Digitala izena dauka, eta, sare sozialez gain ,gobernuaren webguneez ardura beharko du pertsona horrek, eta haien itxura hobetu. Twitterren erabilpena aipatzen da modu nabarmenean iragarkian.

INTERNET

Facebookeko bizitza, liburuan

Egobook ipini diote izena zerbitzuari eta erabiltzailearen eguneraketa eta artxiboekin liburu bat osatzea da eskaintzen dutena. 21 eta 31,6 euro arte balio du liburuak, orri kopuruaren arabera. Orain arte bazegoen gauza bera egiteko aukera, baina nobedadea da orain Facebookek berak eskaintzen duela argitalpen zerbitzua. Aplikazioari profileko datuak eskuratzeko baimena ematea besterik ez da behar.

Fundatzailetako bat, Larry Page, Google-eko buru izatera itzuli da

Astelehenean hartu zuen kargua. Google-en fundatzaileetako bat da Page eta espezialistek diote Facebooki aurre egitea dela CEO berriaren kezka nagusia. Lan egiteko estilo berria eman gura dio konpainiari. Sortzailea konpainiara itzultzen denean, aurrekariek erakutsi dute arrakasta berria lortu ohi dutela enpresek. Hori espero dute Google-en ere, Jobs eta Apple-en arteko, alegia.

Androidek plataforma irekia izaten jarraituko duela berretsi dute

Esamesak esames, egubakoitzean berretsi zuen Andy Rubin zuzendariak Androiden kode osoa irekia izango dela behin garapen guztia amaitzen dutenean. 3.0 bertsioan dago Android sistema, eta, garatzaileek diotenez, hasierako fasea da oraindik eta heltzerakoan irekiko omen dute. *Honeycomb* delako sistema berri entzutetsuarekin amaitzen dutenean argitaratuko dute kode osoa, Andy Rubinek emandako azalpenen arabera.

Linux sistema eragile zabalduenak 20 urte bete berri ditu

Munduan zabalduen dagoen sistema eragile librea da Linux eta sortzaileek orain dela 20 urte denbora-pasa huts moduan sortu zuten. Android sistemak berak Linux hartu zuen oinarri moduan. Gaur egun *Cloud Computing* (hodeian programatzeko) erabiltzen da gehien, baina zenbait erakunde publiko ere hasi dira sistema eragile propio bezala erabiltzen. Erabat doakoa izatea izan da filosofia hasieratik.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON
'twitter.com/amaiapavon'

Ezin ihes egin

Futbolaren gaia lerro hauetan ez aipatzen saiatu izan naiz orain arte, baina nahiz eta ihes egiten ahalegindu, atzetik etorri eta ziztada mingarria eman dit gaur ere.

Telebista ikusteko bi saiakera egin ditut. Lehenengoa eguerdian, piztu, eta *De buena Ley* saioan (beste artikulu baterako emango luke honek ere) emakume bat gizonari kalte -ordain eske ari zitzaion, gizonak alaba etsituta omen zeukan, ez ziolako futbolean aritzen uzten. Itzali egin dut telebista gizona emakumezkoen ezintasunak haizatzen hasi denean. Bigarrena, gauez, piztu, eta La Sexta katean Bartzelona eta Madrilen partiduaren iragarkia: gizon nagusi batek urteetan ikusi ez duen semea aurkitu du, eta semeak erratuta dagoela esaten dio; noski, futbolari begira ari da; *Lo primero es lo primero,* dio esloganak.

Nahiz eta jakin badakidan fikziozko lanak direla bata zein bestea, asaldatu egin naiz gaur ere, ikusita futbolak bikotekidea edo aita errefusatzeko behar adinako funtsa duela telebistan.

Buenafuenterekin nire umore txarrak baretzeko eutsi egin diot saiakerari, eta ordainetan, Victor Varelaren elkarrizketa jaso dut.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 11

Ilaski Serranori elkarrizketa

14:10

Berbetan saioa Oizmendi telebistak ekoizten du eta aste honetan Ilaski Serrano aurkezlea elkarrizketatuko dute.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:10 Berbetan
14:45 Berriak
15:15 Trikitixa jaialdia
15:45 Ikusmira
16:10 Gipuzkoa kultura
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:50 Ikusten
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoa kultura
23:45 Magazinea

MARTITZENA, 12

Idoia Mendiari elkarrizketa

19:45

Idoia Mendia Justizia eta Administrazio Publikoetako sailburua eta Eusko Jaurlaritzako bozeramailea izango dugu gurean.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Erreportajea
16:30 28.Klip
17:00 Berriak
17:30 Marrazki bizidunak
17:50 Harmailatik
18:25 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Erremeixuak
21:15 Magazinea
22:30 Hamaika.bit
23:00 Magazinea

EGUAZTENA, 13

Pilotako Soraluce saria ikusgai

20:45

Martitzenean jokatutako Soraluce sariko finala eskainiko dugu: Aitor Mendizabal, Etcheverriren kontra.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:45 Hamaika.bit
16:15 Leku txiki bat
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Bertso saioa
18:10 Berbetan
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Pilota: Soraluce Saria
21:30 Tertulia
22:30 Filma
23:25 Magazinea

EGUENA, 14

'Dantzaz blai' topaketa

22:15

Dantzaz konpainiak *Dantzaz blai* izeneko topaketa antolatu du eta bertan jasotakoak eskainiko ditugu *Gipuzkoa kultura*-n.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:20 Hamaika.bit
15:50 Ikusmira
16:15 Trikitixa jaialdia
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Ipupomamua
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Hamaika.bit
21:15 Magazinea
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Erremeixuak
23:15 Magazinea

EGUBAKOITZA, 15

Korrika 17ren saio berezia

22:15

Korrika eguenean pasako da Debagoieneko herrietatik. Bada, guk bertan jasotakoak erakutsiko dizkizuegu luze eta zabal.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Leku txiki bat
16:15 Erremeixuak
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Gipuzkoa kultura
18:15 Ipupomamua
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Gipuzkoa kultura
21:15 Magazinea
22:15 Korrika 17
23:00 Tertulia
23:55 Filma

ARRASATE IRRATIA

Euskal Herriko Itzuliaren balorazioa, Anton Elortzarekin

Anton Elortza oñatiarra Euskal Herriko Itzuliaren antolatzaileetariko bat izan da aurten ere. Bada, Arrasate Irratiko uhinetan izango dugu astelehenean goizeko hamaiketan. Itzuliak emandakoa haren hitzetan jasoko dugu; haren balorazioa zein den jakingo dugu.

Korrikako furgonetarekin konexioak egunero

Korrikak egin ditu dagoeneko kilometro batzuk, eta 107.7ko uhinetan, falta diren kilometroen jarraipena egiten segituko dugu. Horretarako, Korrikako furgonetan doazenekin konexioak egingo ditugu, goizero-goizero, bertan gertatzen ari denaren berri zuzen-zuzenean emateko.

Zoriondu zure lagun edo familiakoa Arrasate Irratitik

Zure lagun edo familiakoren bat irrati bidez zoriondu nahi baduzu, edo, beste barik, abesti bat eskaini nahi badiozu, azken geltokian duzu horretarako aukera. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera eta geuk zoriondu ko dugu zure lagun edo familiartekoa.

TELE-ALBISTEAK

Korrika 17k Debagoienean emandakoa, telebistan

Korrikak bailaran egiten duen ibilbidea jasoko dugu eta saio berezia eskainiko dugu barikuan

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Dagoeneko badira 30 urte lehenengo Korrika egin zela; Oñatin hasi eta Bilbon amaitu zen edizio hura. Aurtengoa 17.a da, eta, Trebiñun hasita, dagoeneko egin ditu kilometro batzuk, beti bezala, euskararen aldeko helburu garbiarekin.

Debagoienera eguenean, hilaren 14an, helduko da; Elgetatik sartuko da goizaldeko 5etan, handik Angiozar, Bergara, Antzuola, Zumarraga, Legazpi, Udana, Oñati, Elorregi, Arrasate, Aramaio, Untzilla, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga zeharkatuko ditu, eta gure eskualdetik Arabarantz egingo du.

Bada, Goiena telebistako kamerak Korrikaren furgonetara igota ibiliko dira eta ibilbide osoan Korrikak ematen duena jasoko dugu.

Testigua eskuz esku nola pasatzen den ikusteko aukera izango dugu, besteak beste, eta Korrikak zeharkatzen dituen kale eta bideetan zein giro dagoen ere erakutsiko dizuegu Korrikari eskainitako saioetan: eguenean eta egubakoitzean.

Hasi da Korrika, argazkian ikusten denez. | KORRIKA

Egueneko 'Magazinea'-n egunak emandakoa jasoko dugu

Egubakoitzean Korrika 17ren saio berezia eskainiko dugu, 22:15ean

Korrika, Goiena telebistan

Esan bezala, eguenean pasatuko da Korrika Debagoieneko herrietatik, eta egun horretan bertan *Magazinea* saioan 19:45ean erakutsiko dizuegu Korrikak gurean eman duena.

Baina, horrez gain, egubakoitzean, 22:15ean, Korrika 17ri eskainitako saio berezia emitituko dugu. Bertan, bailarako ibilbideetan gertatu diren xehetasunak jasoko ditugu eta Debagoieneko ibilbidean gertatutakoak luze eta zabal jorratuko dugu.

Dokumentala

Mondragon Unibertsitatean ari diren Komunikazioko hiru ikaslek –Ekaitz Herrera, Alex Silva eta Iker Ugalde– dokumental bat egin dute Korrikarentzat, Euskaltzaindiaren omenez. *Zenbait gazte ausart* du izenburua dokumentalak. Ordubetekoa da, eta, bertan, 30 bat lagunek hitz egiten dute euskal akademiaren historiaz. Dokumentala martxoaren 25ean aurkeztu zen, Donostian, Kursaal jauregian, eta guk Goiena telebistan eskainiko dizuegu.

ZORION AGURRAK

OÑATI
Mireia Trabal Aranburu
Apirilaren 17an, 6 urte. Zorionak, Mireia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat.

BERGARA
Julen Unamuno Marzan
Apirilaren 17an, 2 urte. Zorionak, txapeldun. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo potolo bat etxekoen partetik.

BERGARA
Amaiur Olabarria Arrizabalaga
Apirilaren 15ean, 5urte beteko ditu gure etxeko poxpolinak. Zorionak eta txokolatezko patxo potolo bat etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.

ARRASATE
Aisha Luengo Elkoro
Apirilaren 15ean, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu handi-handi bat Eder, Luken eta etxeko danon partetik!

ARRASATE
Lur Delgado Llodio
Apirilaren 15ean, 23 urte. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu handi bat.

ARETXABALETA
Maren Oroiz Antoñana
Apirilaren 15ean, 2 urte. Zorionak, Maren! Ondo pasatu zure bigarren urtebetetzean. Zurekin ospatuko dugu. Musu potolo bat etxekoen partetik bereziki Naiara eta Nerearen partetik.

OÑATI
Alaitz Lazkanoiturburu Palacios
Apirilaren 14an, 11 urte. Gure alaba maitagarriari, zorionak eta ondo pasatu zure eguna, etxeko guztien partetik. Muxu handi-handi bat eta gora erreala!

ARRASATE
Oier Armendia Zallo
Apirilaren 14an, 4 urte. Zorionak, Oiertxo! Zure urtebetzerako txokolatezko pastel ederra egingo dugu, Korrikaren ostean berriz indarrak hartzeko. Patxo handi-handi bat etxeko guztien partetik!

ARRASATE
Ekaitz Zulueta Algorta
Apirilaren 14an, urtebete. Beti barreka dagoen geure mutiltxuarentzako moso handi bat eta zorionak!

LEINTZ GATZAGA
Ganix Otazu Arzelus
Apirilaren 13an, 2 urte! Zorionak, futbolari! Muxu potolo bat etxeko danen partetik!

ESKORIATZA
Luz Maria Ignacio
Apirilaren 13an, 36 urte. Zure urtebetetze eguna oso ondo pasa dezazula eta besarkada bat lagunen partetik.

OÑATI
Iban Perez
Apirilaren 13an, 25 urte. Zorionak, tio Piban! Ondo-ondo pasatu eguna! Muxutxuek eta 25 tirakada etxeko guztien partetik, baina bereziki Mario eta Enzoren partez!

BERGARA
Ibai Agirrezabal Ostolaza
Apirilaren 12an, 11 urte. Zorionak, maitxia! Egun ona pasatu aitxitxa, amama eta bereziki Eriken partetik! Muxu potolo bat.

ARAMAIO
Amaiur Arana Ajuriagerra
Apirilaren 12an, 7 urte. Zorionak gure kirolariari! Ondo pasatu zure 7. urtebetetzea. Muxu handi bat etxekoen eta, batez be, zure ahizpa Uxueren partetik. Txokolatadaren zain gaude!

ARETXABALETA
Nagore Biain eta Julen Lanzos
Nagorek apirilaren 12an, 4 urte eta Julenek 11n, 6 urte. Zorionak, bikote. Azkenean iritsi da horrenbeste itxarondako eguna. Gu be desiatzen gaz zuekin batera ospatzeko. Altxorraren bila prestatuko dou? Aupa UDA, aupa Reala eta aupa Porrotx! Milaka muxu June, Malen, Ekaitz, Jokin eta Lander.

OÑATI
Edurne Erostarbe
Apirilaren 11n, 39 urte. Zorionak, tia! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat familia guztiaren partetik!

BERGARA
Nora Larrea Gantxegi
Apirilaren 11n, 4 urte. Zorionak, printsesa, etxeko guztion eta bereziki Aner eta Unaxen partetik. Jarraitu holako jatorra eta txintxoa izaten! Muxu potoloak denon partetik!

BERGARA
Leire Sahuillo
Apirilaren 11n, 19 urte. Zorionak eta urte askotarako, *guapa*! Oso ondo pasatu zure eunian! 19 muxutxu Eider, Matxalen, Maialen, Iosu eta Mirenen partetik!

BERGARA
Ane Gartzia Perez
Apirilaren 11n, 4 urte. Urte askotarako, etxeko printzesa! Familia guztiaren partetik, egun ona pasatu!

ARRASATE
Izaro Uribarren Arkauz
Apirilaren 10ean, 10 urte. Zorionak, Izaro, etxekoen eta bereziki Marenen partetik. Patxo potolo bat.

OÑATI
Oier Perez de Arenaza
Apirilaren 10ean, 10 urte. Zorionak etxeko guztien partetik eta oso ondo pasa dezazula zure hamargarren urtebetze eguna.

OÑATI
Ana Sagasta
Apirilaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, ama. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat zure familixa danak partetik.

ARETXABALETA
Iraide Zabala Frutos
Apirilaren 9an, urtebete. Zorionak, printzesa! Zure lehenengo urtebetetzean heldu da. Ederto pasatuko dugu elkar. Muxu asko etxeko guztien partetik: Oinatz, aitatxo eta amatxo.

OÑATI
Eider eta Maren Calzada
Apirilaren 9an, urtebete. Zorionak etxeko loretxuei lehenengo urtebetetzian! Patxo handi-handi bana etxeko danon partetik!

OÑATI
Maialen Anduaga Baladron
Apirilaren 9an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako. Ondo hasi eta hobeto bukatu zure urtebetze eguna. Patxo pila bat etxeko danon partetik.

ARRASATE
Dolores Aguiriano
Apirilaren 9an, 81 urte. Zorionak, amama! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat familia guztiaren partetik!

BERGARA
Naia Berraondo Mateos
Apirilaren 8an, 4 urte. Zorionak, potxola! Neskatila handia zara. Patxo asko aitatxo eta amatxoren partetik. Maite zaitugu!

ARRASATE
Iraia Apaolaza Arregi
Apirilaren 7an, 4 urte. Zorionak printzesa, zure laugarren urtebetetzean. Milaka patxo potolo eta kilo zorion etxeko guztien partetik.

BERGARA
Naia Perez Marzan
Apirilaren 7an, 8 urte. Zorionak gure printzesa. Ondo pasatu zure eguna eta zortzi muxu Iker, ama eta aitaren partetik.

ARETXABALETA
Oihan Gomez
Apirilaren 7an, 3 urte. Zorionak eta muxu potolo bat zure guraso eta Anneren partetik.

ARETXABALETA
Irati Mendieta Gastañaga
Apirilaren 7an, 7 urte. Zorionak, printseza! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu handi-handi bat! Elene, Paule, aitatxo eta amatxoren partetik!



BERGARA
Julen Zabala Madariaga
Apirilaren 7an, 5 urte. Zorionak, Julen! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Familixa guztiaren partetik muxu asko!

BERGARA
Maider eta Izaro Otero Prieto
Apirilaren 6an, 6 urte. Zorionak, printzesak! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna eta muxu handi bat tio, tia eta bereziki Unairen partetik!

ANTZUOLA
Marce Fernandez Pozo
Apirilaren 6an, 49 urte. Zorionak, *gorrion*! Espero dugu asko disfrutatzea. Musu handi bat Haikaren eta etxekoen partetik.

ARRASATE
Oihana Ezkurra
Apirilaren 4an, urtebetetzea. Txuleta janda hogetamargarrena fan da. Hala ere geroz eta gazteago zaude. Zorionak eta hamarkada berri on! Muxu asko Liher, Zeke eta Itziarren partetik.

ARETXABALETA
Zuriñe Belategi Arribas
Apirilaren 4an, 19 urte. Zorionak, Anene! Egun zoragarria pasatu. Jaso ezazu muxu potolo-potolo bat Unairen partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu GOIENAren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez GOIENAko ordezkaritza batera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Danel Guridi Olalde

Oñati 3,680Kilo. Martxoaren 29a. Gurasoak: Iñigo eta Irene. Argazkian, Danel arreba Nahiarekin.

Oier Fernandez Valor

Aretxabaleta 3,530Kilo. Apirilaren 1a. Gurasoak: Pili eta David. Argazkian, umea amarekin.

Urko Muñez Morales

Arrasate 3,360Kilo. Apirilaren 3a. Gurasoak: Nieves eta Angel. Argazkian, umea gurasoekin.

Markel Diaz Vargas

Arrasate 3,540Kilo. Apirilaren 2a. Gurasoak: Yuli eta Dani. Argazkian, umea gurasoekin.

Zoreez Mudasar

Elgeta 2,800Kilo. Apirilaren 6a. Gurasoak: Zara Mudasar eta Mudasar Mirza Baig. Argazkian, umea gurasoekin.

Ibon Arrese

Aretxabaleta 3,370Kilo. Apirilaren 5a. Gurasoak: Oihana eta Jon. Argazkian, umea gurasoekin.

Amaiur Morillo Carretero

Aretxabaleta 3,440Kilo. Apirilaren 4a. Gurasoak: Miriam eta Unai. Argazkian, umea gurasoekin.

Nora Urbieta Alberdi

Bergara 2,820Kilo. Apirilaren 6a. Gurasoak: Naroa eta Aitor. Argazkian, umea gurasoekin.

Lujan Ortega Diez

Eibar 4,050Kilo. Apirilaren 7a. Gurasoak: Isabel eta Jorge. Argazkian, umea aitarekin.

Maddi Jaio Lasuen

Abadiño 2,970Kilo. Apirilaren 7a. Gurasoak: Olatz eta Iker. Argazkian, umea gurasoekin.

Nahia Urrestarazu Irazabal

Oñati 3,320Kilo. Apirilaren 6a. Gurasoak: Aintzane eta Vicente. Argazkian, umea amarekin.

Niko Sanabria Murua

Arrasate 3,300Kilo. Apirilaren 6a. Gurasoak: Miren eta Joseba. Argazkian, umea gurasoekin.

Irati Arribas Abad

Arrasate 3,330Kilo. Apirilaren 5a. Gurasoak: Nerea eta Jose. Argazkian, umea gurasoekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK



	Maila, altuera * Kolonbia-ko hiriburua		Aske, libre Labore mota		Bataiorako aska Setatu	
Hesola Heldu, umatu						
Txosten Lurraren mutur		Zaborra Ahalkea				
			Erreka handi Uzkur			
... izan, zilegi izan Mitoari dagokio				Juntagailua Burdinola		
					Oinarrizko edari Aluminioa	
Apaizaren soineko Iraultze					Röntgen 500	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

I	R	A	U	L	A	L	D	I
E	S	T	O	L	A	■	■	R
M	I	T	I	K	O	■	U	R
S	O	R	I	■	E	T	A	A
P	O	L	O	■	I	B	A	I
■	D	■	Z	A	R	A	M	A
■	■	■	T	A	K	E	T	A
■	■	B	O	G	O	T	A	B
■	■	■	K	■	L	■	■	■

BILA-BILA 7



AI, ENE!

Barazkiak, untxien pare

Batez ere etxeko txikien kasuan, ez da erraza barazkiak eta entsaldak janaraztea. Mahai-tresnokin errazagoa izango da, akaso.
www.nopuedocreer.com

AHOBERO

"Real Madrilen garaipenak zuri-beltzean ala koloretan ziren?"

VICTOR VALDES | BARTZELONAKO ATEZAINA

Datorren astetik hasita, eta ezustekorik ezean, hemezortzi egunean lau aldiz ikusi ahalko dira Barça eta Real Madril elkarren kontra. Valdesek Buenafuenteren programan bota zuen esaldiak bi taldeen arteko giroa berotzeko balio izango du, seguruenik.
La Sexta

EGURALDIA

Max. 17º
Min. 11º

Behe-hodeiak nagusituko dira zeruan eta han-hemenka zirimiria egingo du.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA

goiena

2011-04-10

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Unai Iturriaga 'Buah, txabal!' antzezlan estreinatu berria idaztea izan da 37 urteko durangarraren azken lana; bertso txapelketetako finaletan ohikoa, 2005ean Euskal Herriko txapelunorde izan zen. | **TXOMIN MADINA**

"Urte batzuetan bertso saioak parrandarako aitzakia ziren"

1. Askotan erabiltzen duzun esaldia da "Buah, txabal!"?
Ez, baina entzuten dut: esaldi topikoa da, eta, nolabait, hori esaten duen jendea nolakoa ez den irudika dezakezu.

2. 13 urterekin, lehen plaza. Adin horretan, zeri buruz bota daiteke bertsoa?
Nik prestatutako bertsoak bota nituela bakarrik dakit; bertso eskola osoak prestatu genituen; beraz, ez zen oso debut bertsolaria izan. Urduri bai, baina plaza zer zen, arrastorik ere ez.

3. Gaztetan bertso saioak parrandarako aitzakia ere izango ziren...
Urte batzuetan hala ziren. Baina hori ere gero eta gutxiago, zure lanaren beste kontzientzia bat hartzen zoaz-eta. Garai baten, akaso, aurretik zegoen parranda saioa baino, baina gero aldatuz doa.

4. Eskarmentu handia duzu finaletan. Bada bereziki gogoratzen duzunik?
Bizkaikoetan lehenengoa, 16 urterekin itzela izan zelako hara heltzea. Nagusikoetan, 2005ekoarekin geratzen naiz, ez txapeldunorde izateagatik bakarrik, baita ere txapelketetan zaila dena gertatu zelako: egun on bat, bertsotan gustura...

5. Txapeldunorde izatea azkena izatea baino okerragoa da?
Ez, zoragarria izan zen. Aurretik ere esaten nuen, lortu ahal nuen postu onena zela niretzat.

JON POZO

6. Finaletako askotan Igor Elortza izan duzu aurkari. Laguntasuna egon da inoiz kolokan?
Ezta pentsatu ere! Ez dut uste gutako inork bestea aurkari moduan ikusten duenik. Are gehiago, modu egoistan, komeni zaizu ondokoa ondo ibiltzea, langa altuago jartzen dizu-eta.

7. Nola gogoratzen dituzu Zazpi Eskale taldeko garaiak?
Oso oroitzapen onak ditut, Gu ta Gutarrak proiektuarekin borobildu zirenak. esperimentazio bide bat izan zen, asko ikasteko eta lagun onak egiteko. Gainera, Hertzainak nire betiko taldea izanda, Josu Zabalarekin lan egitea amets bat betetzea bezala izan zen.

8. Literatura, antzerkia, telebistako gidoiak... Pizkundeko gizona zaitugu, antza!
Horrela ikus dezakezu, edo kontsidera nazakezu eguneroko ogia irabazi behar duen autonomo bat; gertuago sentitzen naiz hortik.

9. Patillak dira zure ikur nabarmenetakoa. Inoiz mozteko asmorik?
Ez dut sekula pentsatu, baina ez dut egingo Amurizak bizarrarekin moduko promesik: moztekotan, libre izan gura dut erabakitzeko.

10. Umeak ez omen dituzu oso gustuko.
Egia da eurekin harremantzeko erraztasunik ez dudala, baina ilobak agertu heinean, ikasten zoaz. Beti izan naiz dialektikoagoa, intuitiboa edo sentibera baino.

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Ez nuke izatea onartuko"

"Groucho Marxek esandako hitz batzuekin bukatuko dut esaldia: sekula ez nuke onartuko ni lehendakaritzat onartuko nauen herrialde bateko lehendakari izatea. Ez dut nire burua paper horretan ikusten, ezta pentsatu ere!".

BIHARAMUNA

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Euskal paraxutistak

Itxura guztien arabera Rubalcabak lupa erabiliko du. Ez dago gaizki. Hobeto antzemango ditu akatsak... baina baita bertuteak ere. Eta Barne Ministeritzan eduki behar dituzten lupa-zerbitzuei begira jarriko bagina, santanderinoak "euskal kausari" mesede handia egin diezaiokeelakoan nago.

Inon entzun ala irakurri dut maiatzeko zerrendak osatzeko zailtasunak eduki litzakeela ezker abertzaleak –ez dakit EA/Alternatibarekin, edo EA Alternatibarik gabe edo zein formaziotan– batez ere herri txikietan. Bitxia da; izan ere, tradizionalki ezker abertzaleak herri txikietan izan ditu emaitzarik onenak. Baina badirudi Rubalcabak ekidin nahi duen zikinkeria biztanlerik gutxienetako nukleoetan ematen dela.

Pentsatu al dute ezker abertzalekoek euskal paraxutistak dei genezakeen aukeraz? PSOE eta PPk garbi asko erabili dute orain arte bide hori, herriekiko erabat zerrendakide arrotz eta ezezagunak aurkezteko. Hiri handietan eman daitekeen kontzentrazioa arindu liteke horrela, eta agintari gazte orbangabe ugari aurki litzake herri txikietara "misioetan"bidaltzeko. Penagarria delako ez balitz, barre egiteko motiboa litzateke.

iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR